5. La demarcación judicial será revisada cada cinco años o antes si las circunstancias lo aconsejan, mediante ley elaborada conforme al procedimiento anteriormente establecido.

6. Las Comunidades Autónomas, previo informe del Consejo General del Poder Judicial, determinarán, por Ley, la capitalidad de los partidos judiciales.

32. artikulua

1. Barrutia udalerrri batek edo probintzia bereko zenbait udalerrri mugakidek osaturiko lurralde-unitatea da.

2. Barrutiak aldatzeko, hala badagokio, kontuan izango dira gai kopurua, herriaren ezaugarriak, komunikabideak eta eskualde naturalak.

3. Barrutia bat etor daiteke probintzia-mugapearekin.

33. artikulua

Probintzia izen bereko administrazio-mugapera egokituko da.

34. artikulua

Autonomia-erkidegoa izango da justizia-auzitegi nagusien lurralde-esparrua.

35. artikulua

1. Legez ezarriko da mugape judiziala, eta haren bidez zehaztuko da organo judizialaren lurralde barrutia.

2. Horretarako, autonomia-erkidegoek parte hartuko dute dagokien lurraldearen mugape judizialaren antolaketan, eta Gobernuari igorriko diote, haren eskariz, barruti judizialak zehazteko proposamena.

3. Autonomia-erkidegoen proposamenak ikusirik, Justizia Ministerioak aurreproiektu bat idatziko du, eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak hari buruzko txostena egingo du bi hilabeteko epean.

4. Aipatutako txostena bidalirik, Gobernuak lege-proiektu bat onetsiko du, eta, autonomia-erkidegoen proposamenak eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren txostena bateratuta, Gorte Nagusiei igorriko die, izapideak egin ditzaten.

5. Mugape judiziala bost urtean behin berrikusiko da, edo lehenago, inguruabarren arabera beharrezko ikusiz gero, lehen adierazitako prozeduraren arabera egindako lege baten bidez.

6. Barruti judizialen hiriburuak zein diren autonomia-erkidegoek erabakiko dute, lege bidez, aurrez Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak txostena eginik.

Artículo 36

La creación de Secciones y Juzgados corresponderá al Gobierno cuando no suponga alteración de la demarcación judicial, oídos preceptivamente la Comunidad Autónoma afectada y el Consejo General del Poder Judicial.

Artículo 37

1. Corresponde al Ministerio de Justicia o al órgano competente de la comunidad autónoma con competencias en materia de justicia proveer a los juzgados y tribunales de los medios precisos para el desarrollo de su función con independencia y eficacia.

2. A tal efecto, el Consejo General del Poder Judicial remitirá anualmente al Ministerio de Justicia o al órgano competente de la comunidad autónoma con competencias en materia de justicia una relación circunstanciada de las necesidades que estime existentes.

TÍTULO III

DE LOS CONFLICTOS DE JURISDICCIÓN Y DE LOS CONFLICTOS Y CUESTIONES DE COMPETENCIA

CAPÍTULO PRIMERO

De los conflictos de jurisdicción

Artículo 38

1. Los conflictos de jurisdicción entre los Juzgados o Tribunales y la Administración serán resueltos por un órgano colegiado constituido por el Presidente del Tribunal Supremo, que lo presidirá, y por cinco vocales, de los que dos serán Magistrados de la Sala de lo Contencioso-administrativo del Tribunal Supremo, designados por el Pleno del Consejo General del Poder Judicial, y los otros tres serán Consejeros Permanentes de Estado, actuando como Secretario el de Gobierno del Tribunal Supremo.

2. El Presidente tendrá siempre voto de calidad en caso de empate.

Artículo 39

1. Los conflictos de jurisdicción entre los Juzgados o Tribunales de cualquier orden jurisdiccional de la jurisdicción ordinaria y los órganos judiciales

36. artikulua

Atalak eta epaitegiak sortzea Gobernuari dagokio, horretarako mugape judiziala aldatu beharrik ez dagoenean, nahitaez entzueran emanik dagokion autonomia-erkidegoari eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari.

37. artikulua

1. Justizia Ministerioari edo justiziaren arloko eskuduntzak dituen autonomia-erkidegoko organo eskudunari dagokio epaitegiak eta auzitegiak beharrezko bitartekoez hornitzea, beren funtzioa independentziaz eta eraginkortasunez bete dezaten.

2. Horretarako, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak bere ustez dauden beharren zerrenda eta inguruabarrak bidaliko dizkio urtean behin Justizia Ministerioari edo justiziaren arloan eskumenak dituen autonomia-erkidegoko organo eskudunari.

III. TITULUA

JURISDIKZIO-GATAZKAK ETA ESKUMEN-GATAZKA ETA -ARAZOAK

LEHEN KAPITULUA

Jurisdikzio-gatazkak

38. artikulua

1. Kide anitzeko organo batek ebatziko ditu epaitegi edo auzitegien eta Administrazioaren arteko eskumen-gatazkak. Honako kideok osatuko dute organo hori: Auzitegi Goreneko presidentea, buru eginez, eta bost bokal; horietatik bi Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salako magistratuak, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Osoko Bilkurak izendatuak, eta beste hirurak Estatu Kontseiluko kide iraunkorrak. Auzitegi Goreneko gobernu-idazkariak jardungo du idazkari.

2. Berdinketa-kasuan, presidentek kalitate-botoa izango du beti.

39. artikulua

1. Jurisdikzio Gatazken Salak ebatziko ditu jurisdikzio arrunteko edozein jurisdikzio-ordenatuko epaitegi edo auzitegien eta organo judizial militarren

militares, serán resueltos por la Sala de Conflictos de Jurisdicción, compuesta por el Presidente del Tribunal Supremo, que la presidirá, dos Magistrados de la Sala del Tribunal Supremo del orden jurisdiccional en conflicto y dos Magistrados de la Sala de lo Militar, todos ellos designados por el Pleno del Consejo General del Poder Judicial. Actuará como Secretario de esta Sala el de Gobierno del Tribunal Supremo.

2. El Presidente tendrá siempre voto de calidad en caso de empate.

Artículo 40

Anualmente se renovarán los componentes de los órganos colegiados decisorios previstos en los dos artículos anteriores.

Artículo 41

El planteamiento, tramitación y decisión de los conflictos de jurisdicción se ajustará a lo dispuesto en la Ley.

CAPÍTULO II

De los conflictos de competencia

Artículo 42

Los conflictos de competencia que puedan producirse entre Juzgados o Tribunales de distinto orden jurisdiccional, integrados en el Poder Judicial, se resolverán por una Sala especial del Tribunal Supremo, presidida por el Presidente y compuesta por dos Magistrados, uno por cada orden jurisdiccional en conflicto, que serán designados anualmente por la Sala de Gobierno. Actuará como Secretario de esta Sala especial el de Gobierno del Tribunal Supremo.

Artículo 43

Los conflictos de competencia, tanto positivos como negativos, podrán ser promovidos de oficio o a instancia de parte o del Ministerio Fiscal, mientras el proceso no haya concluido por sentencia firme, salvo que el conflicto se refiera a la ejecución del fallo.

arteko jurisdikzio-gatazkak. Honako kideok osatuko dute sala hori: Auzitegi Goreneko presidentea, buru eginez; gatazkan dagoen jurisdikzio-ordenari dagokion Auzitegi Goreneko salako bi magistratu eta Arlo Militarreko Salako bi magistratu; guztiak ere, Botere Judizialeko Kontseilu Nagusiaren Osoko Bilkurak izendatuak. Auzitegi Goreneko gobernu-idazkariak jardungo du idazkari.

2. Berdinketa-kasuan, presidenteak kalitate-botoa izango du beti.

40. artikulua

Urtero berrituko dira aurreko bi artikuluetan aurreikusitako kide anitzeko erabaki-organoetako kideak.

41. artikulua

Jurisdikzio-gatazkak planteatzean, izapidetzean eta erabakitzean, legean ezarritakoari jarraituko zaio.

II. KAPITULUA

Eskumen-gatazkak

42. artikulua

Auzitegi Goreneko sala berezi batek ebatziko ditu Botere Judizialaren barnean jurisdikzio-ordena desberdinetako epaitegi eta auzitegien artean gertatzen diren eskumen-gatazkak. Auzitegi Goreneko presidentea izango da sala horren buru, eta bi magistratuk osatuko dute: gatazkan dagoen jurisdikzio-ordena bakoitzeko bat. Gobernu Salak urtero izendatuko ditu magistratuok. Auzitegi Goreneko gobernu-idazkariak jardungo du sala berezi horretako idazkari.

43. artikulua

Eskumen-gatazka positibo nahiz negatiboak ofizioz, alderdi-eskariz edo Fiskaltzaren eskariz sustatu ahal izango dira, baldin eta prozesua epai irmo bidez amaitu ez bada, gatazka epaitzaren exekuzioari buruzkoa denean salbu.

Artículo 44

El orden jurisdiccional penal es siempre preferente. Ningún Juez o Tribunal podrá plantear conflicto de competencia a los órganos de dicho orden jurisdiccional.

Artículo 45

Suscitado el conflicto de competencia en escrito razonado, en el que se expresarán los preceptos legales en que se funde, el Juez o Tribunal, oídas las partes y el Ministerio Fiscal por plazo común de diez días, decidirá por medio de un auto si procede declinar el conocimiento del asunto o requerir al órgano jurisdiccional que esté conociendo para que deje de hacerlo.

Artículo 46

1. Al requerimiento de inhibición se acompañará testimonio del auto dictado por el Juez o Tribunal requirente, de los escritos de las partes y del Ministerio Fiscal y de los demás particulares que se estimen conducentes para justificar la competencia de aquél.

2. El requerido, con audiencia del Ministerio Fiscal y de las partes por plazo común de diez días, dictará auto resolviendo sobre su competencia.

Artículo 47

1. Si no se accediere al requerimiento, se comunicará así al requirente y se elevarán por ambos las actuaciones a la Sala de Conflictos, conservando ambos órganos, en su caso, los testimonios necesarios para cumplir lo previsto en el apartado 2 del artículo 48.

2. La Sala, oído el Ministerio Fiscal por plazo no superior a diez días, dictará auto en los diez siguientes, sin que contra él quepa recurso alguno. El auto que se dicte resolverá definitivamente el conflicto de competencia.

Artículo 48

1. Desde que se dicte el auto declinando la competencia o acordando el requerimiento, y desde que se tenga conocimiento de éste por el Juez o Tribunal requerido, se suspenderá el procedimiento en el asunto a que se refiere aquí.

2. No obstante, la suspensión no alcanzará a las actuaciones preventivas o preparatorias ni a las cautelares, cualesquiera que sean los órdenes jurisdiccionales.

44. artikulua

Jurisdikzio-ordena penalak lehentasuna izango du beti. Jurisdikzio-ordena horretako organoei ezin planteatuko die eskumen-gatazkarik ezein epaile edo auzitegik.

45. artikulua

Idazki arrazoitu baten bidez sustatuko da eskumen-gatazka, hura funtsatzen duten lege-manuak adieraziz. Epaile edo auzitegiak, hamar eguneko epe erkidean alderdiei eta Fiskaltzari entzuera emanik, auto bidez erabakiko du auziari buruz arduratzeari uko egitea dagokion ala auziaz arduratzen ari den jurisdikzio-organoari errekerimendua egin behar dion, ardura hori utz dezan.

46. artikulua

1. Inhibitzeko errekerimenduari testigantza hauek gaineratuko zaizkio: errekerimendua egiten duen epaile edo auzitegiak emandako autoarena, alderdien eta Fiskaltzaren idazkiena eta epaile edo auzitegi horren eskumena justifikatzeko egokitzat jotzen diren gainerako partikularrena.

2. Hamar eguneko epe erkidean Fiskaltzari eta alderdiei entzuera emanik, errekerituak bere eskumenari buruz ebatzen duen autoa emango du.

47. artikulua

1. Errekerimendua onartu ezean, errekerimenduaren egileari jakinaraziko dio, eta biek Gatazken Salari igorriko dizkiote jarduketak. Hala badagokio, 48. artikuluko 2. zenbakian aurreikusitakoa betetzeko beharrezkoak diren testigantzak gordeko dituzte bi organoek.

2. Gehienez ere hamar eguneko epean Fiskaltzari entzuera emanik, Gatazken Salak autoa emango du hurrengo hamar egunen barruan. Auto horren aurka ezin jarriko da errekurtsorik. Emandako autoak behin betiko ebatziko du eskumen-gatazka.

48. artikulua

1. Eskumenari uko egiteko edo errekerimendua egiteko autoa ematen denetik, eta epaile edo auzitegi errekerituak auto horren berri izaten duenetik, geldieran utziko da autoan aipatzen den auziari dagokion prozedura.

2. Hala ere, behin-behineko gatazkan dauden jurisdikzio-ordenak zeinahi izanik ere, ez dira geldieran utziko ez prebentziosko edo prestamenezko jarduketak

les en eventual conflicto, que tengan carácter urgente o necesario, o que, de no adoptarse, pudieran producir un quebranto irreparable o de difícil reparación. En su caso, los Jueces o Tribunales adoptarán las garantías procedentes para asegurar los derechos o intereses de las partes o de terceros o el interés público.

Artículo 49

Las resoluciones recaídas en la tramitación de los conflictos de competencia no serán susceptibles de recurso alguno, ordinario o extraordinario.

Artículo 50

1. Contra la resolución firme en que el órgano del orden jurisdiccional indicado en la resolución a que se refiere el apartado 6 del artículo 9 declare su falta de jurisdicción en un proceso cuyos sujetos y pretensiones fuesen los mismos, podrá interponerse en el plazo de diez días recurso por defecto de jurisdicción.

2. El recurso se interpondrá ante el órgano que dictó la resolución, quien, tras oír a las partes personadas, si las hubiere, remitirá las actuaciones a la Sala de Conflictos.

3. La Sala reclamará del Juzgado o Tribunal que declaró en primer lugar su falta de jurisdicción que le remita las actuaciones y, oído el Ministerio Fiscal por plazo no superior a diez días, dictará auto dentro de los diez siguientes.

CAPÍTULO III

De las cuestiones de competencia

Artículo 51

1. Las cuestiones de competencia entre Juzgados y Tribunales de un mismo orden jurisdiccional se resolverán por el órgano inmediato superior común, conforme a las normas establecidas en las leyes procesales.

2. En la resolución en que se declare la falta de competencia se expresará el órgano que se considere competente.

Artículo 52

No podrán suscitarse cuestiones de competencia entre Jueces y Tribunales subordinados entre sí. El Juez o Tribunal superior fijará, en todo caso, y

ez kautelazkoak, jarduketa horiek presazko edo beharrezko izaera badute edo, egin ezean, konponbiderik gabeko edo konponbide zaileko kaltea gerta badaiteke. Hala badagokio, epaile eta auzitegiek dagozkion bermeak hartuko dituzte alderdien edo hirugarren batzuen eskubideak edo interesak edo interes publikoa segurtatzeko.

49. artikulua

Eskumen-gatazkak izapidetzean emandako ebazpenen aurka ezin aurkeztuko da errekurtsorik, ez arruntik, ez berezirik.

50. artikulua

1. Hamar eguneko epean, jurisdikzio-ezagatiko errekurtsosa jarri ahal izango da 9. artikuluko 6. zenbakian aipatzen den ebazpenean adierazitako jurisdikzio-ordenako organoaren ebazpen irmoaren aurka, ebazpen horretan bere jurisdikzio-eza aitortu badu subjektu eta uzi berdinak dituen prozesu batean.

2. Ebazpena eman zuen organoaren aurrean jarriko da errekurtsosa, eta hark Gatazken Salari igorriko dizkio jarduketak; pertsonaturiko alderdirik baldin bada, haiei entzuera emango die aurrez.

3. Salak jarduketak igor ditzan eskatuko dio jurisdikzio-eza lehenengo aitortu zuen epaitegi edo auzitegiari, eta, gehienez ere hamar eguneko epean Fisaltzari entzuera emanik, auto bat emango du hurrengo hamar egunen barruan.

III. KAPITULUA

Eskumen-arazoak

51. artikulua

1. Goragoko hurren organo erkideak ebatziko ditu jurisdikzio-ordena bereko epaitegi eta auzitegien arteko eskumen-arazoak, prozesu-legeetan ezarritako arauekin bat etorritz.

2. Eskumen-eza aitortzen duen ebazpenean adieraziko da zein organo jotzen den eskumendun.

52. artikulua

Ezin sortuko da eskumen-arazorik elkarren mendeko epaile eta auzitegien artean. Kasu guztietan, goragoko epaile edo auzitegiak bere eskumena zehaz-

sin ulterior recurso, su propia competencia, oídas las partes y el Ministerio Fiscal por plazo común de diez días. Acordado lo precedente, recabarán las actuaciones del Juez o Tribunal inferior o le remitirán las que se hallare conociendo.

TÍTULO IV

DE LA COMPOSICIÓN Y ATRIBUCIONES DE LOS ÓRGANOS JURISDICCIONALES

CAPÍTULO I

Del Tribunal Supremo

Artículo 53

El Tribunal Supremo, con sede en la villa de Madrid, es el órgano jurisdiccional superior en todos los órdenes, salvo lo dispuesto en materia de garantías constitucionales. Tendrá jurisdicción en toda España y ningún otro podrá tener el título de Supremo.

Artículo 54

El Tribunal Supremo se compondrá de su Presidente, los Presidentes de Sala y los Magistrados que determine la ley para cada una de las Salas y, en su caso, Secciones en que las mismas puedan articularse.

Artículo 55

El Tribunal Supremo estará integrado por las siguientes Salas:

- Primera, de lo Civil.
- Segunda, de lo Penal.
- Tercera, de lo Contencioso-administrativo.
- Cuarta, de lo Social.
- Quinta: De lo Militar, que se regirá por su legislación específica y supletoriamente por la presente Ley y por el ordenamiento común a las demás Salas del Tribunal Supremo.

tuko du, errekurtsorako aukerarik gabe, eta hamar eguneko epe erkidean alderdiei eta Fiskaltzari entzueratik emanik. Eskumena erabakirik, jarduketak eskatuko dizkiote beheragoko epaile edo auzitegiari edo aztergai dituenak igorriko dizkiote.

IV. TITULUA

JURISDIKZIO-ORGANOEN OSAERA ETA ESKUDANTZIAK

I. KAPITULUA

Auzitegi Gorena

53. artikulua

Auzitegi Gorena, egoitza Madrilan duela, jurisdikzio-organo nagusia da ordena guztietan, konstituzio-bermeen gain xedaturikoa salbu. Espainia osoan izango du jurisdikzioa, eta beste ezein organok ezin izango du goren titulua eduki.

54. artikulua

Auzitegi Gorena kide hauek osatuko dute: presidentea, sala-presidenteak, eta legeak sala bakoitzerako eta hala dagokionean sala horietan eratzen den atal bakoitzerako zehazten duen bezainbeste magistratu.

55. artikulua

Sala hauek osatuko dute Auzitegi Gorena:

- Lehenengoa, arlo zibilekoa.
- Bigarrena, arlo penalekoa.
- Hirugarrena, administrazioarekiko auzien arlokoa.
- Laugarrena, gizarte-arlokoa.
- Bosgarrena, arlo militarrekoa; arlo horretako berariazko legeriari jarraituko zaio, eta, ordezaile moduan, lege honi eta Auzitegi Goreneko gainarako salen ordenamendu erkideari.

Artículo 55 bis

Además de las competencias atribuidas a las Salas de lo Civil y de lo Penal del Tribunal Supremo en los artículos 56 y 57, dichas Salas conocerán de la tramitación y enjuiciamiento de las acciones civiles y penales, respectivamente, dirigidas contra la Reina consorte o el consorte de la Reina, la Princesa o Príncipe de Asturias y su consorte, así como contra el Rey o Reina que hubiere abdicado y su consorte.

Artículo 56

La Sala de lo Civil del Tribunal Supremo conocerá:

1) De los recursos de casación, revisión y otros extraordinarios en materia civil que establezca la Ley.

2) De las demandas de responsabilidad civil por hechos realizados en el ejercicio de su cargo, dirigidas contra el Presidente del Gobierno, Presidentes del Congreso y del Senado, Presidente del Tribunal Supremo y del Consejo General del Poder Judicial, Presidente del Tribunal Constitucional, miembros del Gobierno, Diputados y Senadores, Vocales del Consejo General del Poder Judicial, Magistrados del Tribunal Constitucional y del Tribunal Supremo, Presidentes de la Audiencia Nacional y de cualquiera de sus Salas y de los Tribunales Superiores de Justicia, Fiscal General del Estado, Fiscales de Sala del Tribunal Supremo, Presidente y Consejeros del Tribunal de Cuentas, Presidente y Consejeros del Consejo de Estado, Defensor del Pueblo y Presidente y Consejeros de una Comunidad Autónoma, cuando así lo determine su Estatuto de Autonomía.

3) De las demandas de responsabilidad civil dirigidas contra Magistrados de la Audiencia Nacional o de los Tribunales Superiores de Justicia por hechos realizados en el ejercicio de sus cargos.

Artículo 57

1. La Sala de lo Penal del Tribunal Supremo conocerá:

1) De los recursos de casación, revisión y otros extraordinarios en materia penal que establezca la ley.

2) De la instrucción y enjuiciamiento de las causas contra el Presidente del Gobierno, Presidentes del Congreso y del Senado, Presidente del Tribunal Supremo y del Consejo General del Poder Judicial, Presidente del Tribunal Constitucional, miembros del Gobierno, Diputados y Senadores, Vocales del Con-

55 bis artikulua

Lege honen 56. eta 57. artikuluetan Auzitegi Goreneko arlo zibileko arlo penaleko salei esleitzen zaizkien eskumenez gain, sala horien ardura izango da akzio zibilak eta penalak izapidetzea, hurrenez hurren, honako hauei halakorik zuzentzen zaienean: erregina ezkontidea edo erreginaren ezkontidea, Asturiasko printzea edo printzesa eta haren ezkontidea, eta orobat abdikatu duen errege edo erregina eta haren ezkontidea.

56. artikulua

Auzitegi Goreneko Arlo Zibileko Salaren ardura izango dira:

1) Kasazio-errekurtoak, berrikuspen-errekurtoak eta legeak arlo zibilean ezarritako ezohiko errekurtoak.

2) Karguko jardunean egindako egitatei buruzko erantzukizun zibileko demandak, hauen aurka aurkezten direnean: Gobernuko presidentea, Kongresuko eta Senatuko presidentea, Auzitegi Goreneko presidentea, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko presidentea, Konstituzio Auzitegiko presidentea, Gobernuko kideak, diputatuak eta senatariak, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko bokalak, Konstituzio Auzitegiko eta Auzitegi Goreneko magistratuak, Auzitegi Nazionaleko presidentea eta Auzitegi Nazionaleko sala guztietako eta justizia-auzitegi nagusietako presidentea, Estatuaren Fiskal Nagusia, Auzitegi Goreneko saletako fiskalak, Kontu Auzitegiko presidentea eta kontseilariak, Estatu Kontseiluko presidentea eta kontseilariak, Herriaren Defendatzailea eta autonomia-erkidegoetako presidentea eta kontseilariak, horien autonomia-estatutuak hala zehazten duenean.

3) Karguko jardunean egindako egitatei buruzko erantzukizun zibileko demandak, Auzitegi Nazionaleko edo justizia-auzitegi nagusietako magistratuen aurka aurkezten direnean.

57. artikulua

1. Auzitegi Goreneko Arlo Penaleko Salaren ardura izango dira:

1) Kasazio-errekurtoak, berrikuspen-errekurtoak eta legeak arlo penalean ezarritako ezohiko errekurtoak.

2) Kargu hauen aurkako kausen instrukzioa eta auzipetzea: Gobernuko presidentea, Kongresuko eta Senatuko presidentea, Auzitegi Goreneko eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko presidentea, Konstituzio Auzitegiko presidentea, Gobernuko kideak, diputatuak eta senatariak, Botere Judizialaren

sejo General del Poder Judicial, Magistrados del Tribunal Constitucional y del Tribunal Supremo, Presidentes de la Audiencia Nacional y de cualquiera de sus Salas y de los Tribunales Superiores de Justicia, Fiscal General del Estado, Fiscales de Sala del Tribunal Supremo, Presidente y Consejeros del Tribunal de Cuentas, Presidente y Consejeros del Consejo de Estado y Defensor del Pueblo, así como de las causas que en su caso, determinen los Estatutos de Autonomía.

3) De la instrucción y enjuiciamiento de las causas contra Magistrados de la Audiencia Nacional o de un Tribunal Superior de Justicia.

4.º De los demás asuntos que le atribuya esta Ley.

2. En las causas a que se refieren los números segundo y tercero del párrafo anterior se designará de entre los miembros de la Sala, conforme a un turno preestablecido, un instructor que no formará parte de la misma para enjuiciarlas.

Artículo 58

La Sala de lo Contencioso-administrativo del Tribunal Supremo conocerá:

Primero. En única instancia, de los recursos contencioso-administrativos contra actos y disposiciones del Consejo de Ministros, de las Comisiones Delegadas del Gobierno y del Consejo General del Poder Judicial y contra los actos y disposiciones de los órganos competentes del Congreso de los Diputados y del Senado, del Tribunal Constitucional, del Tribunal de Cuentas y del Defensor del Pueblo en los términos y materias que la Ley establezca y de aquellos otros recursos que excepcionalmente le atribuya la Ley.

Segundo. De los recursos de casación y revisión en los términos que establezca la Ley.

Artículo 59

La Sala de lo Social del Tribunal Supremo conocerá de los recursos de casación y revisión y otros extraordinarios que establezca la ley en materias propias de este orden jurisdiccional.

Artículo 60

1. Conocerá además cada una de las Salas del Tribunal Supremo de las recusaciones que se interpusieren contra los Magistrados que las compongan, y

Kontseilu Nagusiko bokalak, Konstituzio Auzitegiko eta Auzitegi Goreneko magistratuak, Auzitegi Nazionaleko presidentek eta Auzitegi Nazionaleko sala guztietako eta justizia-auzitegi nagusietako presidentek, Estatuaren Fiskal Nagusia, Auzitegi Goreneko saletako fiskalak, Kontu Auzitegiko presidentea eta kontseilariak, Estatu Kontseiluko presidentea eta kontseilariak, Herriaren Defendatzailea eta, hala dagokionean, autonomia-estatutuek zehaztutako kausak.

3) Auzitegi Nazionaleko edo justizia-auzitegi nagusietako magistratuen aurkako kausen instrukzioa eta auzipetzea.

4) Lege honek esleitzen dizkion gainerakoak.

2. Aurreko paragrafoko bigarren eta hirugarren zenbakietan aipatutako kausetan, instruktore bat izendatuko da salako kideen artetik, aurrez zehaztutako txanda baten arabera; instruktore horrek ez du parte hartuko kausa horien auzipetzean.

58. artikulua

Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salaren arduraren izango dira:

Lehena. Auzialdi bakarrean, Ministro Kontseiluaren, Gobernuaren barzorde eskuordetuen eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren egintza eta xedapenen aurkako administrazioarekiko auzi-errekurtsoak eta Diputatuen Kongresuko eta Senatuko, Konstituzio Auzitegiko, Kontu Auzitegiko organo eskudunen eta Herriaren Defendatzailearen egintza eta xedapenen aurkakoak, legeak ezarritako moduetan eta gaitan, eta, orobat, legeak salbuespenez esleitzen dizkion errekurtsoak.

Bigarrena. Kasazio- eta berrikuspen-errekurtsoak, legeak ezarritako moduan.

59. artikulua

Auzitegi Goreneko Gizarte Arloko Salaren arduraren izango dira kasazio- eta berrikuspen-errekurtsoak eta legeak jurisdikzio-ordena horri dagozkion gaitan adierazitako beste errekurtso bereziak.

60. artikulua

1. Orobat, Auzitegi Goreneko sala bakoitzaren arduraren izango dira, batetik, sala horiek osatzen dituzten magistratuen aurka aurkeztutako errekusazioak,

de las cuestiones de competencia entre Juzgados o Tribunales del propio orden jurisdiccional que no tengan otro superior común.

2. A estos efectos, los Magistrados recusados no formarán parte de la Sala.

Artículo 61

1. Una Sala formada por el Presidente del Tribunal Supremo, los Presidentes de Sala y el Magistrado más antiguo y el más moderno de cada una de ellas conocerá:

1) De los recursos de revisión contra las sentencias dictadas en única instancia por la Sala de lo Contencioso-Administrativo de dicho Tribunal.

2) De los incidentes de recusación del Presidente del Tribunal Supremo, o de los Presidentes de Sala, o de más de dos Magistrados de una Sala.

En este caso, los afectados directamente por la recusación serán sustituidos por quienes corresponda.

3) De las demandas de responsabilidad civil que se dirijan contra los Presidentes de Sala o contra todos o la mayor parte de los Magistrados de una Sala de dicho Tribunal por hechos realizados en el ejercicio de su cargo.

4) De la instrucción y enjuiciamiento de las causas contra los Presidentes de Sala o contra los Magistrados de una Sala, cuando sean juzgados todos o la mayor parte de los que la constituyen.

5) Del conocimiento de las pretensiones de declaración de error judicial cuando éste se impute a una Sala del Tribunal Supremo.

6) De los procesos de declaración de ilegalidad y consecuente disolución de los partidos políticos, conforme a lo dispuesto en la Ley Orgánica 6/2002, de 27 de junio, de Partidos Políticos.

2. En las causas a que se refiere el número 4 del apartado anterior se designará de entre los miembros de la Sala, conforme a un turno preestablecido, un instructor que no formará parte de la misma para enjuiciarlos.

3. Una Sección, formada por el Presidente del Tribunal Supremo, el de la Sala de lo Contencioso-administrativo y cinco Magistrados de esta misma Sala, que serán los dos más antiguos y los tres más modernos, conocerá del recurso de casación para la unificación de doctrina cuando la contradicción se produzca entre sentencias dictadas en única instancia por Secciones distintas de dicha Sala.

eta, bestetik, jurisdikzio-ordena berekoak direnean, goragoko organo erkiderik ez duten epaitegi edo auzitegien arteko eskumen-arazoak.

2. Ondorio horietarako, errekusatutako magistratuak ez dira salako kide izango.

61. artikulua

1. Auzitegi Goreneko presidenteak, sala-presidenteek eta sala bakoitzeko magistratu antzinakoenak eta berrienak osatutako sala baten ardura izango dira:

1) Auzitegi horretako Administrazioarekiko Auzien Salak auzialdi bakarrean emandako epaien aurkako berrikuspen-errekurtsoak.

2) Auzitegi Goreneko presidentearen, sala-presidenteen edo sala bateko bi magistratu baino gehiagoren errekusazio-intzidentek.

Kasu horretan, dagozkion ordezkioak jarriko dira errekusazioak zuzenean eragindakoen lekuan.

3) Karguaz baliatuz egindako egitateengatik aurkeztutako erantzukizun zibileko demandak, Auzitegi Goreneko saletako presidenteen edo sala bateko magistratu guztien edo gehienen aurkakoak direnean.

4) Sala-presidenteen edo sala bateko magistratuen kontrako kausen instrukzioa eta auzipetzea, sala osatzen duten kide guztiak edo gehienak epaitzen direnean.

5) Hutsegite judiziala deklaratzeko uziez arduratzea, hutsegitea Auzitegi Goreneko sala bati egozten zaionean.

6) Alderdi politikoak legez kontrako deklaratzeko eta ondorioz desegiteko prozesuak, Alderdi Politikoei buruzko 2002ko ekainaren 27ko 6/2002 Lege Organikoak ezarritakoaren arabera.

2. Aurreko puntuko 4. zenbakian aipatutako kausetan, instruktore bat izendatuko da salako kideen artean, aurrez zehaztutako txanda baten arabera; instruktore horrek ez du parte hartuko kausa horien auzipetzean.

3. Auzitegi Goreneko presidenteak, Administrazioarekiko Auzien Salako presidenteak eta sala horretako bost magistratuk —bi antzinakoenak eta hiru berrienak— osatutako atal baten ardura izango dira doktrina bateratzeko kasazio-errekurtsoak, sala horretako atal desberdinek instantzia bakarrean emandako epaien artean kontraesana dagoenean.

CAPÍTULO II

De la Audiencia Nacional

Artículo 62

La Audiencia Nacional, con sede en la villa de Madrid, tiene jurisdicción en toda España.

Artículo 63

1. La Audiencia Nacional se compondrá de su Presidente, los Presidentes de Sala y los magistrados que determine la ley para cada una de sus Salas y Secciones.

2. El Presidente de la Audiencia Nacional, que tendrá la consideración de Presidente de Sala del Tribunal Supremo, es el Presidente nato de todas sus Salas.

Artículo 64

1. La Audiencia Nacional estará integrada por las siguientes Salas:

- De Apelación.
- De lo Penal.
- De lo Contencioso-Administrativo.
- De lo Social.

2. En el caso de que el número de asuntos lo aconseje, podrán crearse dos o más Secciones dentro de una Sala.

Artículo 64 bis

1. La Sala de Apelación de la Audiencia Nacional conocerá de los recursos de esta clase que establezca la ley contra las resoluciones de la Sala de lo Penal.

2. Cuando la sensible y continuada diferencia en el volumen de trabajo lo aconseje, los magistrados de esta Sala, con el acuerdo favorable de la Sala de Gobierno, previa propuesta del Presidente del Tribunal, podrán ser adscritos por el Consejo General del Poder Judicial, total o parcialmente, y sin que ello signifique incremento retributivo alguno, a otra Sala de diferente orden.

Para la adscripción se valorarán la antigüedad en el escalafón y la especialidad o experiencia de los magistrados afectados y, a ser posible, sus preferencias.

II. KAPITULUA

Auzitegi Nazionala

62. artikulua

Auzitegi Nazionalak, egoitza Madrilen duela, Espainia osoan du jurisdikzioa.

63. artikulua

1. Auzitegi Nazionala kide hauek osatuko dute: presidenteak, sala-presidenteek eta sala eta atal bakoitzerako legez zehaztutako magistratuek.

2. Auzitegi Nazionalako presidentea Auzitegi Nazionalako sala guztietako presidente da, eta Auzitegi Goreneko sala-presidenteen mailakotzat hartzen da.

64. artikulua

1. Sala hauek osatuko dute Auzitegi Nazionala:

- Apelazio Sala.
- Arlo Penaleko Sala.
- Administrazioarekiko Auzien Sala.
- Gizarte Arloko Sala.

2. Gai kopuruak hala eskatuz gero, sala baten barruan bi atal edo gehiago sortu ahal izango dira.

64 bis artikulua

1. Auzitegi Nazionalako Apelazio Salaren ardura izango dira legearen arabera Arlo Penaleko Salaren ebazpenen aurka jar daitezkeen apelazio-errekurtsoak.

2. Lan-bolumenean etengabe alde handia izateak hala eskatzen duenean, auzitegiko presidenteak proposatuta eta Gobernu Salaren adostasunez, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak esku izango du sala horretako magistratuak beste ordena bateko sala batera atxikitzeko, guztiz edo partez, hargatik inolako ordain-gehikuntzarik izan gabe.

Atxikipenerako, balioetsiko da eskalafioan zer antzintasun duten magistratuek, zer espezialitate edo esperientzia duten, eta, ahal dela, haien lehentasunak zein diren.

Artículo 65

La Sala de lo Penal de la Audiencia Nacional conocerá:

1) Del enjuiciamiento, salvo que corresponda en primera instancia a los Juzgados Centrales de lo Penal, de las causas por los siguientes delitos:

a) Delitos contra el titular de la Corona, su Consorte, su Sucesor, Altos Organismos de la Nación y forma de Gobierno.

b) Falsificación de moneda y fabricación de tarjetas de crédito y débito falsas y cheques de viajero falsos, siempre que sean cometidos por organizaciones o grupos criminales.

c) Defraudaciones y maquinaciones para alterar el precio de las cosas que produzcan o puedan producir grave repercusión en la economía nacional o perjuicio patrimonial en una generalidad de personas en el territorio de más de una Audiencia.

d) Tráfico de drogas o estupefacientes, fraudes alimentarios y de sustancias farmacéuticas o medicinales, siempre que sean cometidos por bandas o grupos organizados y produzcan efectos en lugares pertenecientes a distintas Audiencias.

e) Delitos cometidos fuera del territorio nacional, cuando conforme a las leyes o a los tratados corresponda su enjuiciamiento a los Tribunales españoles.

En todo caso, la Sala de lo Penal de la Audiencia Nacional extenderá su competencia al conocimiento de los delitos conexos con todos los anteriormente reseñados.

2) De los procedimientos penales iniciados en el extranjero, de la ejecución de las sentencias dictadas por Tribunales extranjeros o del cumplimiento de pena de prisión impuesta por Tribunales extranjeros, cuando en virtud de un tratado internacional corresponda a España la continuación de un procedimiento penal iniciado en el extranjero, la ejecución de una sentencia penal extranjera o el cumplimiento de una pena o medida de seguridad privativa de libertad, salvo en aquellos casos en que esta Ley atribuya alguna de estas competencias a otro órgano jurisdiccional penal.

3) De las cuestiones de cesión de jurisdicción en materia penal derivadas del cumplimiento de tratados internacionales en los que España sea parte.

65. artikulua

Auzitegi Nazionaleko Arlo Penaleko Salaren ardura izango dira:

1) Delitu hauei buruzko prozesuak, lehen auzialdian arlo penaleko epaitegi zentraleri dagozkienean salbu:

a) Koroaren titularraren, haren ezkontidearen, haren oinordekoaren, nazioaren erakunde nagusien eta gobernu-formaren aurkako delituak.

b) Dirua faltsifikatzea, kreditu- eta zorduntze-txartel faltsuak eta bidaia-ri-txeke faltsuak egitea, betiere erakunde edo talde kriminalek egiten badute hori.

c) Gauzen prezioa aldatzeko iruzurrak eta azpikeriak, nazio-ekonomian kalte larria sortzen dutenak edo sor dezaketenak edo auzitegi bati baino gehiagori dagokien lurralde-esparru batean hainbat jenderen ondareari kalte egiten diotenak edo egin diezaioketenak.

d) Droga edo estupefazianteen trafikoa, elikadura-iruzurrak eta farmaziako edo medikuntzako substantziekin lotutako iruzurrak, baldin eta banda edo talde antolaturen batek eginak badira eta eragina badute auzitegi bati baino gehiagori dagozkion lekuetan.

e) Nazio-lurraldetik kanpo egindako delituak, baldin eta, legeen edo tratatuen arabera, haiek auzipetzea Espainiako auzitegiari badagokie.

Kasu guztietan, aipatutako delitu guztiekin lotutako delituetara zabalduko da Auzitegi Nazionaleko Arlo Penaleko Salaren eskumena.

2) Atzerrian hasitako prozedura penalak, atzerriko auzitegiek emandako epaien exekuzioa edo atzerriko auzitegiek ezarritako espetxealdiaren betearazpena, baldin eta, nazioarteko tratatu baten arabera, Espainiari badagokio atzerrian hasitako prozedura penolarekin jarraitzea, atzerriko epai penala exekutatzea edo zigor edo segurtasun-neurri askatasun-gabetzaile bat betearaztea, salbu eta lege honek eskumen horietakoren bat beste jurisdikzio-organo penal bati esleitzen dionean.

3) Espainiak sinatutako nazioarteko tratatuak direla-eta arlo penalean bete beharreko jurisdikzio-lagapen arazoak.

4) Del procedimiento para la ejecución de las órdenes europeas de detención y entrega y de los procedimientos judiciales de extradición pasiva, sea cual fuere el lugar de residencia o en que hubiese tenido lugar la detención del afectado por el procedimiento.

5) De los recursos establecidos en la Ley contra las sentencias y otras resoluciones de los Juzgados Centrales de lo Penal, de los Juzgados Centrales de Instrucción y del Juzgado Central de Menores.

6) De los recursos contra las resoluciones dictadas por los Juzgados Centrales de Vigilancia Penitenciaria de conformidad con lo previsto en la disposición adicional quinta.

7) De cualquier otro asunto que le atribuyan las leyes.

Artículo 66

La Sala de lo Contencioso-Administrativo de la Audiencia Nacional conocerá:

a) En única instancia, de los recursos contencioso-administrativos contra disposiciones y actos de los Ministros y Secretarios de Estado que la ley no atribuya a los Juzgados Centrales de lo Contencioso-Administrativo.

b) En única instancia, de los recursos contencioso-administrativos contra los actos dictados por la Comisión de Vigilancia de Actividades de Financiación del Terrorismo. Conocerá, asimismo, de la posible prórroga de los plazos que le plantee dicha Comisión de Vigilancia respecto de las medidas previstas en los artículos 1 y 2 de la Ley 12/2003, de prevención y bloqueo de la financiación del terrorismo.

c) De los recursos devolutivos que la ley establezca contra las resoluciones de los Juzgados Centrales de lo Contencioso-Administrativo.

d) De los recursos no atribuidos a los Tribunales Superiores de Justicia en relación a los convenios entre las Administraciones públicas y a las resoluciones del Tribunal Económico-Administrativo Central.

e) De las cuestiones de competencia que se puedan plantear entre los Juzgados Centrales de lo Contencioso-Administrativo y de aquellos otros recursos que excepcionalmente le atribuya la ley.

Artículo 67

La Sala de lo Social de la Audiencia Nacional conocerá en única instancia:

4) Europako atxiloteta- eta entrega-agindua eta estradizio pasiboko prozedura judizialak betearazteko prozedura, edozein dela ere prozedurak eragindakoaren bizilekua edo atxilotze-lekua.

5) Arlo penaleko epaitegi zentralen, instrukzioko epaitegi zentralen eta adingabeen epaitegi zentralen epaien eta bestelako ebazpenen aurka legeak zehaztutako errekursoak.

6) Espetxe-zaintzako epaitegi zentralek emandako ebazpenen aurkako errekursoak, bosgarren xedapen gehigarrian aurreikusitakoaren arabera.

7) Legeek esleituriko beste edozein.

66. artikulua

Auzitegi Nazionaleko Administrazioarekiko Auzien Salaren ardura izango dira:

a) Auzialdi bakarrean, ministroen eta estatu-idazkarien xedapen eta egintzen aurkako administrazioarekiko auzi-errekursoak, baldin eta, legearen arabera, haien ardura ez badagokie administrazioarekiko auzien epaitegi zentraleri.

b) Auzialdi bakarrean, Terrorismoa Finantzatzeko Jardueren Zaintza Batzordeak emandako egintzen aurkako administrazioarekiko auzi-errekursoak. Orobat arduratuko da zaintza-batzorde horrek planteatutako epeak luzatzeko aukeraz, Terrorismoaren Finantzaketa Aurrezaintzeko eta Blokeatzeko 12/2003 Legearen 1. eta 2. artikuluetan aurreikusitako neurriei dagokienez.

c) Administrazioarekiko auzien epaitegi zentralen ebazpenen aurka legearen arabera jar daitezkeen itzulera-errekursoak.

d) Administrazio publikoen arteko hitzarmenei eta Auzitegi Ekonomiko-Administratibo Zentralaren ebazpenei buruz, justizia-azitegi nagusiei esleitzen ez zaizkien errekursoak.

e) Administrazioarekiko auzien epaitegi zentralen artean planteatzen diren eskumen-arazoak eta legeak salbuespenez esleitutako beste errekursoak.

67. artikulua

Auzitegi Nazionaleko Gizarte Arloko Salaren ardura izango dira, auzialdi bakarrean:

1) De los procesos especiales de impugnación de convenios colectivos cuyo ámbito territorial de aplicación sea superior al territorio de una Comunidad Autónoma.

2) De los procesos sobre conflictos colectivos cuya resolución haya de surtir efecto en un ámbito territorial superior al de una Comunidad Autónoma.

Artículo 68

1. Conocerá además cada una de las Salas de la Audiencia Nacional de las recusaciones que se interpusieren contra los Magistrados que las compongan.

2. A estos efectos, los Magistrados recusados no formarán parte de la Sala.

Artículo 69

Una Sala formada por el Presidente de la Audiencia Nacional, los Presidentes de las Salas y el Magistrado más antiguo y el más moderno de cada una, o aquel que, respectivamente, le sustituya, conocerá de los incidentes de recusación del Presidente, de los Presidentes de Sala o de más de dos Magistrados de una Sala.

CAPÍTULO III

De los tribunales superiores de justicia

Artículo 70

El Tribunal Superior de Justicia de la Comunidad Autónoma culminará la organización judicial en el ámbito territorial de aquella, sin perjuicio de la jurisdicción que corresponde al Tribunal Supremo.

Artículo 71

El Tribunal Superior de Justicia tomará el nombre de la Comunidad Autónoma y extenderá su jurisdicción al ámbito territorial de ésta.

Artículo 72

1. El Tribunal Superior de Justicia estará integrado por las siguientes Salas: de lo Civil y Penal, de lo Contencioso-administrativo y de lo Social.

2. Se compondrá de un Presidente, que lo será también de su Sala de lo Civil y Penal, y tendrá la consideración de Magistrado del Tribunal Supremo

1) Hitzarmen kolektiboak aurkaratzeko prozesu bereziak, hitzarmenaren aplikazio-esparrua zabalagoa bada autonomia-erkidego baten lurraldea baino.

2) Gatazka kolektiboetako buruzko prozesuak, autonomia-erkidego bat baino zabalagoako lurralde-eremu batean badu ebazpenak eragina.

68. artikulua

1. Auzitegi Nazionaleko sala bakoitzaren ardura izango dira sala osatzen duten magistratuen aurka aurkeztutako errekusazioak.

2. Ondorio horietarako, errekusatutako magistratuak ez dira salako kide izango.

69. artikulua

Auzitegi Nazionaleko presidentek, sala-presidenteek eta sala bakoitzeko magistratu antzinakoenak eta berrienak edo haien ordezkoez osatutako sala baten ardura izango dira Auzitegi Nazionaleko presidentearen, sala-presidenteen edo sala bateko bi magistratu baino gehiagoren errekusazio-intzidentek.

III. KAPITULUA

Justizia-uzitegi nagusiak

70. artikulua

Autonomia-erkidegoko justizia-uzitegi nagusia izango da antolamendu judizialaren gailurra erkidegoaren lurralde-eremuan, hargatik eragotzi gabe Auzitegi Gorenari dagokion jurisdikzioa.

71. artikulua

Justizia-uzitegi nagusiak autonomia-erkidegoaren izena hartuko du, eta haren lurralde-eremuan izango du jurisdikzioa.

72. artikulua

1. Sala hauek osatuko dute justizia-uzitegi nagusia: arlo zibil eta penaleko sala, administrazioarekiko auzien sala eta gizarte-arloko sala.

2. Justizia-uzitegi nagusiak honako kide hauek izango ditu: presidentea —arlo zibil eta penaleko salako presidente ere izango da, eta kargua bete ar-

mientras desempeñe el cargo; de los Presidentes de Sala y de los Magistrados que determine la ley para cada una de las Salas y, en su caso, de las Secciones que puedan dentro de ellas crearse.

Artículo 73

1. La Sala de lo Civil y Penal del Tribunal Superior de Justicia conocerá, como Sala de lo Civil:

a) Del recurso de casación que establezca la ley contra resoluciones de órganos jurisdiccionales del orden civil con sede en la comunidad autónoma, siempre que el recurso se funde en infracción de normas del derecho civil, foral o especial, propio de la comunidad, y cuando el correspondiente Estatuto de Autonomía haya previsto esta atribución.

b) Del recurso extraordinario de revisión que establezca la ley contra sentencias dictadas por órganos jurisdiccionales del orden civil con sede en la comunidad autónoma, en materia de derecho civil, foral o especial, propio de la comunidad autónoma, si el correspondiente Estatuto de Autonomía ha previsto esta atribución.

c) De las funciones de apoyo y control del arbitraje que se establezcan en la ley, así como de las peticiones de exequátur de laudos o resoluciones arbitrales extranjeros, a no ser que, con arreglo a lo acordado en los tratados o las normas de la Unión Europea, corresponda su conocimiento a otro Juzgado o Tribunal.

2. Esta Sala conocerá igualmente:

a) En única instancia, de las demandas de responsabilidad civil, por hechos cometidos en el ejercicio de sus respectivos cargos, dirigidas contra el Presidente y miembros del Consejo de Gobierno de la comunidad autónoma y contra los miembros de la Asamblea legislativa, cuando tal atribución no corresponda, según los Estatutos de Autonomía, al Tribunal Supremo.

b) En única instancia, de las demandas de responsabilidad civil, por hechos cometidos en el ejercicio de su cargo, contra todos o la mayor parte de los magistrados de una Audiencia Provincial o de cualesquiera de sus secciones.

c) De las cuestiones de competencia entre órganos jurisdiccionales del orden civil con sede en la comunidad autónoma que no tenga otro superior común.

3. Como Sala de lo Penal, corresponde a esta Sala:

a) El conocimiento de las causas penales que los Estatutos de Autonomía reservan al conocimiento de los Tribunales Superiores de Justicia.

tean Auzitegi Goreneko magistratu gisa hartuko da—, salako presidenteak, eta legeak sala bakoitzerako —eta sala bakoitzean sor daitezkeen ataletarako— zehaztutako magistratuak.

73. artikulua

1. Justizia-auzitegi nagusiko arlo zibil eta penaleko salaren ardura izango dira, arlo zibileko sala gisa:

a) Autonomia-erkidegoan egoitza duten ordena zibileko jurisdikzio-organoen ebazpenen aurka legearen arabera jar daitezkeen kasazio-errekurtsoak, baldin eta errekurtsoaren funtsa bertako zuzenbide zibil, foral edo bereziko arauak urratu izana bada eta dagokion autonomia-erkidegoak aurreikusia badu eskudantzia hori.

b) Autonomia-erkidegoan egoitza duten ordena zibileko jurisdikzio-organoek bertako zuzenbide zibil, foral edo bereziko gaietan emandako epaien aurka legeak zehaztutako berrikuspen-errekurtso bereziak, baldin eta dagokion autonomia-estatutuak aurreikusia badu eskudantzia hori.

c) Legean arbitrajea laguntzeko eta kontrolatzeko ezartzen diren funtzioak, eta orobat atzerriko laudo edo ebazpenen exequatur-eskaerak, baldin eta haie-taz arduratzea ez badagokio beste auzitegi edo epaitegi bati, tratatuetan edo Europar Batasuneko arauetan hitzartutakoaren arabera.

2. Sala horren ardura izango dira, orobat:

a) Auzialdi bakarrean, karguaz baliatuz egindako egitateen erantzukizun zibila dela-eta autonomia-erkidegoko presidentearen, gobernu-kontseilukideen eta legebiltzarkideen aurka jarritako demandak, baldin eta, autonomia-estatutu-tuen arabera, eskudantzia hori ez badagokio Auzitegi Gorenari.

b) Auzialdi bakarrean, karguaz baliatuz egindako egitateen erantzukizun zibila dela-eta probintzia-auzitegie-tako edo haien edozein ataletako magistratu batzuen edo gehienen aurka jarritako demandak.

c) Autonomia-erkidegoan egoitza duten eta goragoko organo erkiderik ez duten ordena zibileko jurisdikzio-organoen arteko eskumen-arazoak.

3. Arlo penaleko sala gisa, sala horren ardura izango dira:

a) Autonomia-estatutuek justizia-auzitegi nagusien ardurapean jarritako kausa penalak.

b) La instrucción y el fallo de las causas penales contra jueces, magistrados y miembros del Ministerio Fiscal por delitos o faltas cometidos en el ejercicio de su cargo en la comunidad autónoma, siempre que esta atribución no corresponda al Tribunal Supremo.

c) El conocimiento de los recursos de apelación contra las resoluciones dictadas en primera instancia por las Audiencias Provinciales, así como el de todos aquellos previstos por las leyes.

d) La decisión de las cuestiones de competencia entre órganos jurisdiccionales del orden penal con sede en la comunidad autónoma que no tengan otro superior común.

4. Para la instrucción de las causas a que se refieren los párrafos a) y b) del apartado anterior se designará de entre los miembros de la Sala, conforme a un turno preestablecido, un instructor que no formará parte de la misma para enjuiciarlas.

5. Le corresponde, igualmente, la decisión de las cuestiones de competencia entre Juzgados de Menores de distintas provincias de la comunidad autónoma.

6. En el caso de que el número de asuntos lo aconseje, podrán crearse una o más secciones e incluso Sala de lo Penal con su propia circunscripción territorial en aquellas capitales que ya sean sedes de otras Salas del Tribunal Superior, a los solos efectos de conocer los recursos de apelación a los que se refiere el párrafo c) del apartado 3 de este artículo y aquellas otras apelaciones atribuidas por las leyes al Tribunal Superior. Los nombramientos para magistrados de estas Secciones, a propuesta del Consejo General del Poder Judicial, recaerán en aquellos magistrados que, habiendo permanecido durante los 10 años inmediatamente anteriores en el orden penal, ostenten mayor antigüedad escalafonal.

Artículo 74

1. Las Salas de lo Contencioso-administrativo de los Tribunales Superiores de Justicia conocerán, en única instancia, de los recursos que se deduzcan en relación con:

a) Los actos de las Entidades locales y de las Administraciones de las Comunidades Autónomas, cuyo conocimiento no esté atribuido a los Juzgados de lo Contencioso-administrativo.

b) Las disposiciones generales emanadas de las Comunidades Autónomas y de las Entidades locales.

1. La nulidad de un acto no implicará la de los sucesivos que fueren independientes de aquél ni la de aquéllos cuyo contenido hubiese permanecido invariado aun sin haberse cometido la infracción que dio lugar a la nulidad.

2. La nulidad parcial de un acto no implicará la de las partes del mismo independientes de la declarada nula.

3. El juzgado o tribunal cuidará de que puedan ser subsanados los defectos en que incurran los actos procesales de las partes, siempre que en dichos actos se hubiese manifestado la voluntad de cumplir los requisitos exigidos por la ley.

4. Los actos de las partes que carezcan de los requisitos exigidos por la ley serán subsanables en los casos, condiciones y plazos previstos en las leyes procesales.

CAPÍTULO IV

De las resoluciones judiciales

Artículo 244

1. Las resoluciones de los Tribunales cuando no estén constituidos en Sala de Justicia, las de las Salas de Gobierno y las de los Jueces y Presidentes cuando tuvieren carácter gubernativo, se llamarán acuerdos.

2. La misma denominación se dará a las advertencias y correcciones que por recaer en personas que estén sujetas a la jurisdicción disciplinaria se impongan en las sentencias o en otros actos judiciales.

Artículo 245

1. Las resoluciones de los Jueces y Tribunales que tengan carácter jurisdiccional se denominarán:

- a) Providencias, cuando tengan por objeto la ordenación material del proceso.
- b) Autos, cuando decidan recursos contra providencias, cuestiones incidentales, presupuestos procesales, nulidad del procedimiento o cuando, a tenor de las leyes de enjuiciamiento, deban revestir esta forma.
- c) Sentencias, cuando decidan definitivamente el pleito o causa en cualquier instancia o recurso, o cuando, según las leyes procesales, deban revestir esta forma.

243. artikulua

1. Egintza bat deusez izateagatik ez dira deusez izango hartatik independenteak diren ondorengo egintzak, eta ez, orobat, deuseztasuna sortu zuen arau-haustea egin ez balitz ere edukiz berdinak izango ziren egintzak.

2. Egintza baten deuseztasun partzialak ez du ekarriko deuseztat jotako zatitik independenteak diren zatien deuseztasuna.

3. Epaitegi edo auzitegiak begiratuko du alderdien egintza prozesaletako akatsak zuzentzeko modua izan dadila, baldin eta legeak ezarritako baldintzak betetzeko borondatea adierazi bada egintza horietan.

4. Prozesu-legeetan aurreikusitako baldintza eta epeen arabera zuzendu ahal izango dira alderdien egintzak, ez badituzte betetzen legeak ezarritako baldintzak.

IV. KAPITULUA

Ebazpen judizialak

244. artikulua

1. Erabaki esango zaie auzitegien ebazpenei, justizia-saletan eraturik ez daudela hartu dituztenean, eta gobernu-salen eta epaile eta presidenteen ebazpenei, gobernu-izaera dutenean.

2. Erabaki deituko dira, orobat, diziplina-jurisdikziopeko pertsoneri epai edo bestelako egintza judizialetan egindako ohartarazpen eta zuzenketak.

245. artikulua

1. Epaile eta auzitegien jurisdikzio-izaerako ebazpenei honela esango zaie:

a) Probidentzia, prozesua materialki antolatzea dutenean helburu.

b) Auto, probidentzien aurkako errekurtsuak, intzidente-arazoak, prozesu-oinarriak eta prozeduraren deuseztasuna erabakitzen dituztenean edo, prozedura-legeen arabera, forma hori izan behar dutenean.

c) Epai, auzigai edo auzia behin betiko erabakitzen dutenean, instantzia edo errekurtsua edozein dela, edo, prozesu-legeen arabera, forma hori izan behar dutenean.

2. Las sentencias podrán dictarse de viva voz cuando lo autorice la Ley.
3. Son sentencias firmes aquellas contra las que no quepa recurso alguno, salvo el de revisión u otros extraordinarios que establezca la ley.
4. Llámese ejecutoria el documento público y solemne en que se consigna una sentencia firme. Las ejecutorias se encabezarán en nombre del Rey.

Artículo 246

En los casos en que la ley ordene al Secretario formular propuesta de resolución, el Juez podrá adoptar la modalidad de «conforme» o dictar la resolución que proceda.

Artículo 247

Las resoluciones judiciales que se dicten oralmente y deban ser documentadas en acta en los juicios verbales, vistas de los pleitos o causas y demás actos solemnes incluirán la fundamentación que proceda.

Artículo 248

1. La fórmula de las providencias se limitará a la determinación de lo mandado y del Juez o Tribunal que las disponga, sin más fundamento ni adiciones que la fecha en que se acuerden, la firma o rúbrica del Juez o Presidente y la firma del Secretario. No obstante, podrán ser sucintamente motivadas sin sujeción a requisito alguno cuando se estime conveniente.

2. Los autos serán siempre fundados y contendrán en párrafos separados y numerados los hechos y los razonamientos jurídicos y, por último, la parte dispositiva. Serán firmados por el Juez, Magistrado o Magistrados que los dicten.

3. Las sentencias se formularán expresando, tras un encabezamiento, en párrafos separados y numerados, los antecedentes de hecho, hechos probados, en su caso, los fundamentos de derecho y, por último, el fallo. Serán firmadas por el Juez, Magistrado o Magistrados que las dicten.

4. Al notificarse la resolución a las partes se indicará si la misma es o no firme y, en su caso, los recursos que procedan, órgano ante el que deben interponerse y plazo para ello.

2. Ahoz eman ahal izango dira epaiak, legeak hala baimentzen duenean.

3. Epaiak irmoak izango dira haien aurka errekurtsorik jarri ezin denean, salbu berrikuspen-errekurtsua edo legeak ezarritako ezohiko beste batzuk.

4. Betearazpen-agindu esaten zaio epai irmoa jasotzen duen dokumentu publiko eta solemnari. Betearazpen-aginduaren goiburua Erregearen izenean agertuko da.

246. artikulua

Legeak idazkariari ebazpen-proposamena egiteko agintzen dionean, epaileak aukeran izango du «ados» modalitatea erabiltzea edo dagokion ebazpena ematea.

247. artikulua

Ahoz eman diren eta ahozko epaiketetan, auzigai edo auzien ikustaldietan eta gainerako ekitaldi solemneetan aktan dokumentatu behar diren ebazpen juridizialek dagokien oinarria jaso beharko dute beren barruan.

248. artikulua

1. Probidentzien formulan, soil-soilik, agindua zer den eta zer epaile edo auzitegik eman duen zehaztu behar da, datu hauek beste oinarririk eta gehigarririk gabe: erabakiaren data, epailearen edo presidentearen sinadura edo izen-pekua eta idazkariaren sinadura. Hala ere, laburki arrazoitu ahal izango dira egoki irizten zaionean, baldintzarik gabe.

2. Autoak funtsatuak izango dira beti. Paragrafo bereizi eta zerbakitutan, egitateak eta arrazoibide juridikoak jasoko dituzte lehenik, eta, amaieran, xedapenezko atala. Autoa sinatu egin beharko dute hura ematen duen epaileak, magistratuak edo magistratuek.

3. Honela idatziko dira epaiak: goiburuaren ondoren, paragrafo bereizi eta zerbakitutan adieraziko dira aurrekariak, egitate frogatuak —hala badagokio— eta zuzenbideko oinarriak, eta, azkenik, epaitza. Epaiak sinatu, epaileak, magistratuak edo magistratuek sinatuko dute.

4. Ebazpena alderdiei jakinaraztean, irmoa den ala ez adieraziko zaie eta, hala badagokio, zer errekurtsorik jar daitezkeen, zer organoren aurrean jarri behar diren eta horretarako zer epe dagoen.

CAPÍTULO V

De la vista, votación y fallo

Artículo 249

Las vistas de los asuntos se señalarán por el orden de su conclusión, salvo que en la ley se disponga otra cosa.

Artículo 250

Corresponderá a los Presidentes de Sala y a los de Sección el señalamiento de las vistas o trámite equivalente y el del comienzo de las sesiones del juicio oral.

Artículo 251

1. El Juez o el ponente tendrán a su disposición los autos para dictar sentencia o resolución decisoria de incidentes o de recursos.

2. El Presidente y los Magistrados podrán examinar los autos en cualquier tiempo.

Artículo 252

1. Concluida la vista de los autos, pleitos o causas o desde el día señalado para la votación y fallo, podrá cualquiera de los Magistrados pedirlos para su estudio.

2. Cuando los pidieren varios, fijará el que presida el plazo que haya de tenerlos cada uno, de modo que puedan dictarse las sentencias dentro del tiempo señalado para ello.

Artículo 253

Los autos y sentencias se deliberarán y votarán inmediatamente después de las vistas y, cuando así no pudiera hacerse, señalará el Presidente el día en que deban votarse, dentro del plazo señalado para dictar la resolución.

Artículo 254

1. La votación a juicio del Presidente, podrá tener lugar separadamente sobre los distintos pronunciamientos de hecho o de derecho que hayan de hacerse, o parte de la decisión que haya de dictarse.

V. KAPITULUA

Ikustaldia, bozketa eta epaitza

249. artikulua

Amaiera-ordenaren arabera zehaztuko dira ikustaldiak, legeak besterik ezarzen ez badu.

250. artikulua

Salako eta ataletako presidentetek jarriko dituzte egunak ikustaldirako edo baliokide den izapiderako eta ahozko epaiketarako.

251. artikulua

1. Epaia emateko edo intzidente edo errekurtsioen ebazpena emateko, epai-leak edo txostengileak eskura izango dituzte jarduketak.

2. Presidenteak eta magistratuek edozein unetan aztertu ahal izango dituzte jarduketak.

252. artikulua

1. Jarduketa, auzi edo auzigaien ikustaldia amaiturik, edo bozketa eta epaitzarako zehaztutako egunetik aurrera, edozein magistratuk eskatu ahal izango ditu jarduketa, auzi edo auzigaiak, aztertzeko.

2. Batek baino gehiagok eskatzen dituztenean, buru denak zehaztuko du zer epetarako utzi magistratu bakoitzari, ezarritako denboraren barruan eman ahal izateko epaia.

253. artikulua

Ikustaldien ondoren, berehala erabaki eta bozkatuko dira autoak eta epaiak; hala egin ezin bada, presidenteak erabakiko du zer egunetan bozkatu, ebazpena emateko zehaztutako epearen barruan betiere.

254. artikulua

1. Bozketa, presidenteak hala erabakiz gero, bereiz egin ahal izango da, hartu beharreko egitatezko edo zuzenbidezko erabaki bakoitzari buruz edo erabakiaren zati bati buruz.

2. Votará primero el ponente y después los demás Magistrados por orden inverso al de su antigüedad. El que presida votará el último.

3. Empezada la votación, no podrá interrumpirse sino en caso de fuerza mayor.

Artículo 255

1. Los autos y sentencias se dictarán por mayoría absoluta de votos, salvo que expresamente la ley señale una mayor proporción.

2. En ningún caso podrá exigirse un número determinado de votos conformes que altere la regla de la mayoría.

Artículo 256

Cuando fuere trasladado o jubilado algún Juez o Magistrado deliberará, votará, redactará y firmará las sentencias, según proceda, en los pleitos a cuya vista hubiere asistido y que aún no se hubieren fallado, salvo que concurriera causa de incompatibilidad o proceda la anulación de aquélla por otro motivo.

Artículo 257

1. Si después de la vista y antes de la votación algún Magistrado se imposibilitare y no pudiere asistir al acto, dará un voto fundado y firmado y lo remitirá directamente al Presidente.

2. Si no pudiere escribir ni firmar, lo extenderá ante un Secretario de la Sala.

3. El voto así emitido se unirá a los demás y se conservará, rubricado por el que presida, con el libro de sentencias.

4. Cuando el impedido no pudiere votar ni aun de este modo, se votará el pleito o la causa por los no impedidos que hubieren asistido a la vista y, si hubiere los necesarios para formar mayoría, éstos dictarán sentencia.

Artículo 258

Cuando no hubiere votos bastantes para constituir la mayoría que exige el artículo 255, se verá de nuevo el asunto, sustituyéndose el impedido, separado o suspenso en la forma establecida en esta Ley.

2. Txostengileak emango du botoa lehenengo, eta gainerako magistratuek ondoren, antzintasunaren aurkako ordenan. Buru denak emango du botoa azkenik.

3. Bozketa ezingo da eten behin hasiz gero, ezinbestezko kasuren bat ez bada.

255. artikulua

1. Botoen gehiengo osoz emango dira autoak eta epaiak, non eta legeak ez duen proportzio handiagoa adierazten espresuki.

2. Ezein kasutan ezin eskatuko da gehiengoaren araua aldatzen duen boto kopururik.

256. artikulua

Epaila edo magistratu bat lekualdatzen edo erretiratzten denean, hura ikustaldietan izan den auzirik gelditzen bada epaitu gabe, epai horiek erabaki, bozkatu, idatzi eta sinatu egingo ditu, hala badagokio, non eta ez dagoen batezintasun-kausarik edo ez den epaia beste arrazoiren batengatik deuseztatu behar.

257. artikulua

1. Ikustaldiaren ondoren eta bozketaren aurretik magistratu bat ezindurik gertatzen bada, eta ezinezko gertatzen bazaio ekitaldian egotea, boto funtsatua eta sinatua emango du, eta presidenteari bidaliko dio, zuzenean.

2. Ezin badu ez idatzi ez sinatu, salako idazkari baten aurrean emango du botoa.

3. Horrela emandako botoa gainerakoei batuko zaie, eta, presidenteak izenpetuta, epai-liburuarekin batera gordeko da.

4. Ezinduak modu horretan ere botoa ematerik ez badu, ikustaldian direnetatik ezinduta ez daudenek emango dute auziari edo auzigaiari buruzko botoa, eta, gehiengoa eratzeko adina badira, epaia emango dute.

258. artikulua

Ez badago nahikoa boto 255. artikulua eskatzen duen gehiengoa osatzeko, berriz aztertuko da gaia, eta lege honek ezarritako moduan ordeztuko da ezindua, kargutik kendutakoa edo geldieran utzitakoa.

Artículo 259

Las sentencias se firmarán por el Juez o por todos los Magistrados no impedidos dentro del plazo establecido para dictarlas.

Artículo 260

1. Todo el que tome parte en la votación de una sentencia o auto definitivo firmará lo acordado, aunque hubiere disentido de la mayoría; pero podrá, en este caso, anunciándolo en el momento de la votación o en el de la firma, formular voto particular, en forma de sentencia, en la que podrán aceptarse, por remisión, los puntos de hecho y fundamentos de derecho de la dictada por el Tribunal con los que estuviere conforme.

2. El voto particular, con la firma del autor, se incorporará al libro de sentencias y se notificará a las partes junto con la sentencia aprobada por mayoría. Cuando, de acuerdo con la ley, sea preceptiva la publicación de la sentencia, el voto particular, si lo hubiere, habrá de publicarse junto a ella.

3. También podrá formularse voto particular, con sujeción a lo dispuesto en el párrafo anterior, en lo que resulte aplicable, respecto de los autos decisorios de incidentes.

Artículo 261

Cuando, después de fallado un pleito por un Tribunal, se imposibilite algún Magistrado de los que votaron y no pudiere firmar, el que hubiere presidido el Tribunal lo hará por él, expresando el nombre de aquel por quien firme y después las palabras «votó en Sala y no pudo firmar».

Artículo 262

1. Cuando en la votación de una sentencia o auto no resultare mayoría de votos sobre cualquiera de los pronunciamientos de hecho o de derecho que deban hacerse, volverán a discutirse y a votarse los puntos en que hayan disentido los votantes.

2. Si no se obtuviese acuerdo, la discordia se resolverá mediante celebración de nueva vista concurriendo los Magistrados que hubieran asistido a la primera, aumentándose dos más, si hubiese sido impar el número de los discordantes, y tres en el caso de haber sido par. Concurrirá para ello, en primer lugar, el Presidente de Sala, si no hubiere ya asistido; en segundo lugar, los Magistrados de la

259. artikulua

Ezindurik ez dauden epaile edo magistratu guztiek sinatuko dituzte epaiak, haiek emateko ezarritako epearen barruan.

260. artikulua

1. Behin betiko epai edo auto baten bozketan parte hartu duen orok sinatuko du erabakitakoa, gehiengoarekin bat ez etorri arren. Kasu horretan, bozkatzeko edo sinatzeko unean hala adierazirik, boto partikularra eman ahal izango du, epai forman; epai horretan, adostasuna adierazi ahal izango die, igorpen bidez, auzitegiaren epaiko egitate eta zuzenbide-oinarrietatik berak onartzen dituenei.

2. Boto partikularra, egileak sinatuta, epai-liburuan txertatuko da, eta gehiengoak onartutako epaiarekin batera jakinaraziko zaie alderdiei. Legearen arabera epaia argitaratzea nahitaezkoa denean, harekin batera argitaratu beharko da boto partikularra, halakorik bada.

3. Boto partikularra eman ahal izango da, orobat, intzidenteak erabakitzeko autoetan, aurreko zenbakian xedaturikoa betez eta hura aplikatzekoa den heinean.

261. artikulua

Auzitegi batek auzi bati buruz erabaki ondoren botoa eman zuten magistratuetako bat ezindurik geratzen bada eta sinatu ezin badu, auzitegiaren buru denak sinatuko du haren orde, noren izenean sinatzen duen adierazita eta ondoren «salan botoa eman zuen, baina ezin izan zuen sinatu» idatzita.

262. artikulua

1. Epai edo auto baten bozketan gehiengorik lortzen ez bada egitatezko edo zuzenbidezko edozein erabakiri buruz, berriz eztabaidatu eta bozkatuko dira boto-emaileak bat etorri ez diren puntuak.

2. Adostasunik lortu ezean, desadostasuna konpontzeko beste ikustaldi bat egingo da, hartarako lehenengo ikustaldiko magistratuak eta bi gehiago harturik —bat etorri ez direnen kopurua bakoitia bada—, edo hiru gehiago —kopurua bikoitia bada—. Horretarako, lehentasun-hurrenkera hau ezarriko da: lehenik eta behin, salako presidentea, lehen izan ez bada; bigarrenik, auzia aztertu

misma Sala que no hayan visto el pleito; en tercer lugar, el Presidente de la Audiencia, y, finalmente, los Magistrados de las demás Salas, con preferencia de los del mismo orden jurisdiccional.

Artículo 263

1. El que deba presidir la Sala de Discordia hará el señalamiento de las vistas de discordia y designaciones oportunas.

2. Cuando en la votación de una sentencia o auto por la Sala de Discordia o, en su caso, por el Pleno de la Sala no se reuniere tampoco mayoría sobre los puntos discordados, se procederá a nueva votación, sometiendo sólo a ésta los dos pareceres que hayan obtenido mayor número de votos en la precedente.

Artículo 264

1. Los Magistrados de las diversas Secciones de una misma Sala se reunirán para la unificación de criterios y la coordinación de prácticas procesales. Las reuniones se convocarán por el Presidente de la Sala, por sí, a petición mayoritaria de los Magistrados, así como en los demás casos que establezca la ley. Serán presididos por el Presidente de Sala.

2. En todo caso quedará a salvo la independencia de las Secciones para el enjuiciamiento y resolución de los distintos procesos de que conozcan.

Artículo 265

En cada Juzgado o Tribunal se llevará, bajo la custodia del Secretario respectivo, un libro de sentencias, en el que se incluirán firmadas todas las definitivas, autos de igual carácter, así como los votos particulares que se hubieren formulado, que serán ordenados correlativamente según la fecha.

Artículo 266

1. Las sentencias, una vez extendidas y firmadas por el juez o por todos los Magistrados que las hubieren dictado, serán depositadas en la Oficina judicial y se permitirá a cualquier interesado el acceso al texto de las mismas.

El acceso al texto de las sentencias, o a determinados extremos de las mismas, podrá quedar restringido cuando el mismo pudiera afectar al derecho a la intimidad, a los derechos de las personas que requieran un especial deber de tu-

ez duten sala bereko magistratuak; hirugarrenik, auzitegiko presidentea; eta, azkenik, gainerako saletako magistratuak, jurisdikzio-ordena berekoak lehenetsirik.

263. artikulua

1. Desadostasun Salaren buru izan behar duenak zehaztuko ditu desadostasunaren ikustaldiak eta dagozkion izendapenak.

2. Desadostasun Salak edo, hala badagokio, salako osoko bilkurak epai edo auto bati buruzko bozketa egitean ere ez bada lortzen adostu gabeko puntuei buruzko gehiengo, beste bozketa bat egingo da, aurrekoan boto gehien jaso dituzten bi iritzietatik bat aukeratzeko.

264. artikulua

1. Sala bereko atal desberdinetako magistratuak batzartu egingo dira irizpideak bateratzeko eta praktika prozesalak koordinatzeko. Batzarretarako deiak salako presidentea egingo ditu, berez, magistratuen gehiengoak eskaturik, eta orobat legeak ezartzen dituen gainerako kasuetan. Salako presidentea izango da batzar horien buru.

2. Zaindu egingo da, betiere, atalek independentzia izan dezatela aztertzen dituzten prozesuak epaitzeko eta ebazteko.

265. artikulua

Epaitegi edo auzitegi bakoitzean epai-liburu bat edukiko da, dagokion idazkariaren zaintzapean. Liburu horretan jasoko dira, sinaturik, behin betiko epai guztiak, izaera bereko autoak eta emandako boto partikularrak, dataren arabera modu korrelatiboan ordenatuak.

266. artikulua

1. Epaiak, behin epaileak edo dagokien magistratu guztiak eman eta sinatutakoan, bulego judizialean gordeko dira, eta haien testua ikusteko aukera emango zaio edozein interesduni.

Epaiak edo haien zati jakin batzuk ikusteko aukera mugatu ahal izango da, kalte egin badakieke intimitaterako eskubideari, babes-behar berezia duten pertsonen eskubideei edo, hala badagokio, biktima edo kalte dunen anonimatu-

tela o a la garantía del anonimato de las víctimas o perjudicados, cuando proceda, así como, con carácter general, para evitar que las sentencias puedan ser usadas con fines contrarios a las leyes.

2. Los secretarios pondrán en los autos certificación literal de la sentencia.

Artículo 267

1. Los tribunales no podrán variar las resoluciones que pronuncien después de firmadas, pero sí aclarar algún concepto oscuro y rectificar cualquier error material de que adolezcan.

2. Las aclaraciones a que se refiere el apartado anterior podrán hacerse de oficio dentro de los dos días hábiles siguientes al de la publicación de la resolución, o a petición de parte o del Ministerio Fiscal formulada dentro del mismo plazo, siendo en este caso resuelta por el tribunal dentro de los tres días siguientes al de la presentación del escrito en que se solicite la aclaración.

3. Los errores materiales manifiestos y los aritméticos en que incurran las resoluciones judiciales podrán ser rectificadas en cualquier momento.

4. Las omisiones o defectos de que pudieren adolecer sentencias y autos y que fuere necesario remediar para llevarlas plenamente a efecto podrán ser subsanadas, mediante auto, en los mismos plazos y por el mismo procedimiento establecido en el apartado anterior.

5. Si se tratase de sentencias o autos que hubieren omitido manifiestamente pronunciamientos relativos a pretensiones oportunamente deducidas y sustanciadas en el proceso, el tribunal, a solicitud escrita de parte en el plazo de cinco días a contar desde la notificación de la resolución, previo traslado de dicha solicitud a las demás partes, para alegaciones escritas por otros cinco días, dictará auto por el que resolverá completar la resolución con el pronunciamiento omitido o no haber lugar a completarla.

6. Si el tribunal advirtiese, en las sentencias o autos que dictara, las omisiones a que se refiere el apartado anterior, podrá, en el plazo de cinco días a contar desde la fecha en que se dicten, proceder de oficio, mediante auto, a completar su resolución, pero sin modificar ni rectificar lo que hubiere acordado.

7. Del mismo modo al establecido en los apartados anteriores se procederá por el Secretario Judicial cuando se precise aclarar, rectificar, subsanar o completar los decretos que hubiere dictado.

rako bermeari; orobat mugatuko da, oro har, epaiak legeen aurkako helburuetarako erabil daitezzen sailhesteko.

2. Epaiaren hitzez hitzeko ziurtagiria ezarriko dute idazkariak autoetan.

267. artikulua

1. Auzitegiek ezin aldatuko dute emandako ebazpenik, behin sinatutakoan, baina aukera izango dute haietako kontzeptu ilunen bat argitzeko eta errakuntza materialak zuzentzeko.

2. Aurreko zenbakian aipatutako argipenak ofizioz egin ahal izango dira, ebazpena argitaratu ondorengo bi egun baliodunen barruan, edo alderdi baten edo Fiskaltzaren eskariz, epe berean. Kasu horretan, auzitegiak hiru egunen barruan erabakiko du, argipena eskatzen duen idatzia aurkezten denetik aurrera.

3. Ebazpen judizialetako ageriko errakuntza materialak eta aritmetikoak edozein unetan zuzendu ahal izango dira.

4. Epai eta autoetan huts edo akatsik baldin bada, eta zuzentzea beharrezkoa bada haiek osoki gauzatzeko, auto bidez konpondu ahal izango dira huts edo akatsak, aurreko zenbakian adierazitako epe beretan eta prozedura beraren bidez.

5. Prozesuan behar bezala aurkeztu eta bideratutako uziei buruzko erabakiak nabarmenki aipatzen ez dituzten epai edo autoen kasuan, auzitegiak autoa emango du aipatu gabeko erabakiarekin ebazpena osatzeko edo ez osatzeko, ebazpena jakinarazi ondorengo bost egunen epean alderdi batek idatziz eskaturik eta eskaera hori gainerako alderdiei igorri ondoren, beste bost eguneko epean alegazio idatziak egin ditzaten.

6. Auzitegiak ikusten badu emandako epai edo autoetan badela aurreko zenbakian adierazitako ez-egiteetakoren bat, ofizioz osatu ahal izango du ebazpena, auto bidez, epaia edo autoa emandako egunetik hasi eta bost eguneko epean, baina erabakitakoa aldatu eta zuzendu gabe.

7. Aurreko zenbakietan ezarritako modu berean jokatuko du idazkari judizialak baldin eta beharrezkoa bada eman duen dekreturen bat argitzea, zuzentzea, moldatzea edo osatzea.

8. No cabrá recurso alguno contra los autos o decretos en que se resuelva acerca de la aclaración, rectificación, subsanación o complemento a que se refieren los anteriores apartados de este artículo, sin perjuicio de los recursos que procedan, en su caso, contra la sentencia, auto o decreto a que se refiera la solicitud o actuación de oficio del Tribunal o del Secretario Judicial.

9. Los plazos para los recursos que procedan contra la resolución de que se trate se interrumpirán desde que se solicite su aclaración, rectificación, subsanación o complemento y, en todo caso, comenzarán a computarse desde el día siguiente a la notificación del auto o decreto que reconociera o negase la omisión del pronunciamiento y acordase o denegara remediarla.

CAPÍTULO VI

Del lugar en que deben practicarse las actuaciones

Artículo 268

1. Las actuaciones judiciales deberán practicarse en la sede del órgano jurisdiccional.

2. No obstante lo dispuesto en el apartado anterior, los Juzgados y Tribunales podrán constituirse en cualquier lugar del territorio de su jurisdicción para la práctica de aquéllas, cuando fuere necesario o conveniente para la buena administración de justicia.

Artículo 269

1. Los Juzgados y Tribunales sólo podrán celebrar juicios o vistas de asuntos fuera de la población de su sede cuando así lo autorice la ley.

2. Sin embargo, el Consejo General del Poder Judicial, cuando las circunstancias o el buen servicio de la Administración de Justicia lo aconsejen, y a petición del Tribunal o Juzgado, podrá disponer que los Juzgados y las Secciones o Salas de los Tribunales o Audiencias se constituyan en población distinta de su sede para despachar los asuntos correspondientes a un determinado ámbito territorial comprendido en la circunscripción de aquéllos.

3. Igualmente, las Salas de Gobierno de los Tribunales Superiores de Justicia dispondrán que los Jueces de lo Penal, asistidos del Secretario, se constituyan para celebrar juicios orales con la periodicidad que se señale en las ciudades donde tengan su sede los Juzgados que hayan instruido las causas de las que

8. Ezin jarriko da errekurtsorik artikulua honen aurreko zenbakietan aipatutako argitze, zuzentze, moldatze edo osatzeaz erabakitzen duten auto edo dekretuen kontra, nahiz aukera izango den, hala badagokio, auzitegiaren edo idazkari judizialaren eskaera edo ofiziozko jarduera dagokion epai, auto edo dekretuaren kontra errekurtsua jartzeko.

9. Ebazpen jakin baten kontra dagozkion errekurtsoen epeak eten egingo dira haien argitze, zuzentze, moldatze edo osatzea eskatzen denetik, eta, betiere, pronuntziamenturik eza aitortzen edo ukatzen eta hura konpontzea erabakitzen edo ukatzen duen auto edo dekretua jakinarazi eta biharamunetik aurrera hasiko dira kontatzen.

VI. KAPITULUA

Jarduketak egin behar diren tokia

268. artikulua

1. Jurisdikzio-organoaren egoitzan egin beharko dira jarduketa judizialak.

2. Hala eta guztiz ere, epaitegi eta auzitegiak dagokien jurisdikzio-lurraldeko edozein lekutan eratu ahal izango dira jarduketak egiteko, justiziaren administrazio onerako beharrezkoa edo egokia bada.

269. artikulua

1. Epaitegi eta auzitegiek ezin egingo dute epaiketa edo ikustaldirik beren egoitza dagoen udalerritik kanpo, ez badu legeak hartarako baimena ematen.

2. Hala ere, inguruabarrengatik edo Justizia Administrazioaren zerbitzu onerako hala komeni denean, auzitegi edo epaitegiaren eskariz, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak erabaki dezake epaitegiak eta auzitegietak atal edo salak beren egoitza dagoen herritik kanpo eratu behar dutela dagokien barrutiko lurralde-eremu jakin bateko gaiak aztertzeko.

3. Orobat, justizia-auzitegi nagusietako gobernu-salek xedatu ahal izango dute arlo penaleko epaileek, idazkariak lagundurik eta adierazitako aldizka-kotasunarekin, ahozko epaiketak egin behar dituztela arlo horretako epaileei dagozkien gaiak instruitu dituzten epaitegiek egoitza duten hirietan, baldin

les corresponde conocer, siempre que su desplazamiento venga justificado por el número de éstas o por una mejor administración de justicia. Los Juzgados de Instrucción y los funcionarios que en ellos sirvieren prestarán en estos casos cuanta colaboración sea precisa.

CAPÍTULO VII

De las notificaciones

Artículo 270

Las resoluciones dictadas por jueces y tribunales, así como las que lo sean por secretarios judiciales en el ejercicio de las funciones que le son propias, se notificarán a todos los que sean parte en el pleito, causa o expediente, y también a quienes se refieran o puedan parar perjuicios, cuando así se disponga expresamente en aquellas resoluciones, de conformidad con la ley.

Artículo 271

Las notificaciones podrán practicarse por medio del correo, del telégrafo o de cualquier medio técnico que permita la constancia de su práctica y de las circunstancias esenciales de la misma según determinen las leyes procesales.

Artículo 272

Podrá establecerse un local de notificaciones común a los varios juzgados y tribunales de una misma población, aunque sean de distinto orden jurisdiccional. En este supuesto, el Colegio de Procuradores organizará un servicio para recibir las notificaciones que no hayan podido hacerse en aquel local común por incomparecencia del procurador que deba ser notificado. La recepción de la notificación por este servicio producirá plenos efectos.

CAPÍTULO VIII

De la cooperación jurisdiccional

Artículo 273

Los Jueces y Tribunales cooperarán y se auxiliarán entre sí en el ejercicio de la función jurisdiccional.

eta ahozko epaiketen kopuruak edo justizia egokiago administratzeak justifikatzen baditu epaile horien joan-etorriak. Instrukzio-epaitegiek eta haietan lan egiten duten funtzionarioek behar adina laguntza emango dute kasu horietan.

VII. KAPITULUA

Jakinarazpenak

270. artikulua

Epaile eta auzitegiek emandako ebazpenak, eta idazkari judizialek dagozkienez funtzioak betetzean emandakoak, jakinarazi egin behar zaizkie auzigai, auzi edo espedientean alderdi diren guztiei, eta orobat ebazpen horietan aipatzen direnei edo kalteak jasan ditzaketenei, ebazpenetan berariaz hala xedatzen denean, legearekin ados.

271. artikulua

Posta edo telegrafo bidez egin ahal izango dira jakinarazpenak, edo beste edozein bitarteko teknikoren bidez, aukera ematen badu jakinarazpena egin dela ziurtatzeko eta haren oinarritzko inguruabarrak prozesu-legeen arabera bete direla ziurtatzeko.

272. artikulua

Jakinarazpenetarako lokal komun bat jarri ahal izango da udalerrri bateko epaitegi eta auzitegi guztientzat, jurisdikzio-ordena berekoak ez izanda ere. Kasu horretan, prokuradoreen elkargoak zerbitzu bat antolatuko du jakinarazpena egin behar zaion prokuradorea ez agertzeagatik lokal komun horretan egin ezin diren jakinarazpenak jasotzeko. Zerbitzu horretan jasotako jakinarazpenak efektu beteak izango ditu.

VIII. KAPITULUA

Jurisdikzio-lankidetzak

273. artikulua

Epaile eta auzitegiek elkarlanean jardungo dute eta elkarri lagunduko diote jurisdikzio-funtzioa baliatzeko orduan.

Artículo 274

1. Se recabará la cooperación judicial cuando debiere practicarse una diligencia fuera de la circunscripción del Juzgado o Tribunal que la hubiere ordenado o ésta fuere de la específica competencia de otro Juzgado o Tribunal.

2. La petición de cooperación, cualquiera que sea el Juzgado o Tribunal a quien se dirija, se efectuará siempre directamente, sin dar lugar a traslados ni reproducciones a través de órganos intermedios.

Artículo 275

No obstante, podrán los Jueces realizar cualesquiera diligencias de instrucción penal en lugar no comprendido en el territorio de su jurisdicción, cuando el mismo se hallare próximo y ello resultare conveniente, dando inmediata noticia al Juez competente. Los Jueces y Tribunales de otros órdenes jurisdiccionales podrán también practicar diligencias de instrucción o prueba fuera del territorio de su jurisdicción cuando no se perjudique la competencia del Juez correspondiente y venga justificado por razones de economía procesal.

Artículo 276

Las peticiones de cooperación internacional serán elevadas por conducto del Presidente del Tribunal Supremo, del Tribunal Superior de Justicia o de la Audiencia al Ministerio de Justicia, el cual las hará llegar a las Autoridades competentes del Estado requerido, bien por la vía consular o diplomática o bien directamente si así lo prevén los Tratados internacionales.

Artículo 277

Los Juzgados y Tribunales españoles prestarán a las autoridades judiciales extranjeras la cooperación que les soliciten para el desempeño de su función jurisdiccional, de conformidad con lo establecido en los tratados y convenios internacionales en los que España sea parte y, en su defecto, en razón de reciprocidad según lo previsto en el artículo siguiente.

Artículo 278

1. Si se acredita la existencia de reciprocidad o se ofrece ésta por la autoridad judicial extranjera requirente, la prestación de cooperación internacional sólo será denegada por los Juzgados y Tribunales españoles:

274. artikulua

1. Lankidetza judiziala eskatuko da agindua eman duen epaitegi edo auzitegiaren barrutitik kanpo eginbideren bat egin behar denean edo eginbide hori beste epaitegi edo auzitegi baten berariazko eskumenekoa denean.

2. Epaitegia edo auzitegia edozein izanik ere, zuzenean egingo da beti lankidetza-eskaera, bitarteko organoen bidezko helarazpenik edo erreprodukzioirik gabe.

275. artikulua

Hala eta guztiz ere, epaileek jurisdikziopeko lurraldetik kanpoko leku batean egin ahal izango dute instrukzio penaleko edozein eginbide, leku hori gertu dagoenean eta egokia denean, epaile eskudunari berehala berri emanik. Beste jurisdikzio-ordena batzuetako epaile eta auzitegiek, orobat, jurisdikziopeko lurraldetik kanpo egin ahal izango dituzte instrukzio- edo frogageginbideak, baldin eta dagokion epailearen eskumenari kalte egiten ez bazaio eta prozesu-ekonomiako arazoiek justifikatzen badute.

276. artikulua

Auzitegi Goreneko, justizia-auzitegi nagusiko edo Auzitegi Nazionaleko presidentek Justizia Ministerioari bidaliko dizkio nazioarteko lankidetza-eskaerak, eta hark, orduan, errekeritutako estatuko autoritate eskudunei helaraziko dizkie, edo kontsul- edo diplomazia-bidetik edo, nazioarteko tratatuek hala aurreikusiz gero, zuzenean.

277. artikulua

Espainiako epaitegi eta auzitegiek eskatutako lankidetza emango diete atzerriko agintari judizialei beren jurisdikzio-funtzioa bete ahal izateko, Espainiak sinaturiko nazioarteko tratatu eta hitzarmenetan ezarritakoarekin bat, eta, halakorik ezean, hurrengo artikuluan aurreikusitako elkarrekikotasunaren arabera.

278. artikulua

1. Elkarrekikotasuna badela egiaztatzen bada edo errekerimendua egin duen atzerriko agintari judizialak hura eskaintzen badu, Espainiako epaitegi eta auzitegiek honako kasu hauetan bakarrik ukatu ahal izango dute nazioarteko lankidetza:

1) Cuando el proceso de que dimana la solicitud de cooperación sea de la exclusiva competencia de la jurisdicción española.

2) Cuando el contenido del acto a realizar no corresponda a las atribuciones propias de la autoridad judicial española requerida. En tal caso, ésta remitirá la solicitud a la autoridad judicial competente, informando de ello a la autoridad judicial requirente.

3) Cuando la comunicación que contenga la solicitud de cooperación no reúna los requisitos de autenticidad suficiente o se halle redactada en idioma que no sea el castellano.

4) Cuando el objeto de la cooperación solicitada sea manifiestamente contrario al orden público español.

2. La determinación de la existencia de reciprocidad con el Estado requirente corresponderá al Gobierno, a través del Ministerio de Justicia.

TÍTULO IV

(Artículos 279-291, derogados por la Ley 19/2003).

TÍTULO V

DE LA RESPONSABILIDAD PATRIMONIAL DEL ESTADO POR EL FUNCIONAMIENTO DE LA ADMINISTRACIÓN DE JUSTICIA

Artículo 292

1. Los daños causados en cualesquiera bienes o derechos por error judicial, así como los que sean consecuencia del funcionamiento anormal de la Administración de Justicia, darán a todos los perjudicados derecho a una indemnización a cargo del Estado, salvo en los casos de fuerza mayor, con arreglo a lo dispuesto en este Título.

2. En todo caso, el daño alegado habrá de ser efectivo, evaluable económicamente e individualizado con relación a una persona o grupo de personas.

3. La mera revocación o anulación de las resoluciones judiciales no presupone por sí sola derecho a indemnización.

1) Lankidetza-eskaerari dagokion prozesua Espainiako jurisdikzioaren eskumen eskusibokoa denean.

2) Egin beharreko egintzaren edukia ez dagokienean errekeritutako Espainiako agintari judizialaren eskudantziei. Kasu horretan, agintari judizial eskudunari igorriko zaio eskaera, eta berri emango zaio errekerimendua egin duen agintari judizialari.

3) Lankidetza-eskaera dakarren komunikazioak behar adinako egiazkotasun-kondizioak betetzen ez dituenean edo gaztelania ez den hizkuntza batean idatzita dagoenean.

4) Eskatutako lankidetzaren helburua nabarmenki Espainiako ordena publikoaren aurkakoa denean.

2. Errekerimendua egiten duen estatuarekin elkarrekikotasunik dagoen edo ez, Gobernuak zehaztuko du, Justizia Ministerioaren bidez.

IV. TITULUA

(279. artikulutik 291.era bitartekoak, 19/2003 Legeak derogatuak).

V. TITULUA

ESTATUAK JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAREN FUNTZIONAMENDUAGATIK DUEN ONDARE-ERANTZUKIZUNA

292. artikulua

1. Hutsegite judizialen ondorioz edozein ondasun edo eskubidetan sortutako kalteek, eta Justizia Administrazioaren ezohiko funtzionamenduaren ondorioz sortutakoek, eskubidea emango diete kaltetuei Estatuaren kontura kalte-ordaina jasotzeko, salbu eta ezinbestezko kasuetan, titulu honetan ezarritakoarekin bat.

2. Alegatutako kalteak, betiere, benetakoa, ekonomikoki neurgarria eta pertsona bati edo pertsona-talde bati banan-banan egozgarria izan beharko du.

3. Ebazpen judizialen errebotatze edo deuseztatze hutsak ez dakar berez kalte-ordaina jasotzeko eskubidea.

Artículo 293

1. La reclamación de indemnización por causa de error deberá ir precedida de una decisión judicial que expresamente lo reconozca. Esta previa decisión podrá resultar directamente de una sentencia dictada en virtud de recurso de revisión. En cualquier otro caso distinto de éste se aplicarán las reglas siguientes:

a) La acción judicial para el reconocimiento del error deberá instarse inexcusablemente en el plazo de tres meses a partir del día en que pudo ejercitarse.

b) La pretensión de declaración del error se deducirá ante la Sala del Tribunal Supremo correspondiente al mismo orden jurisdiccional que el órgano a quien se imputa el error, y si éste se atribuyese a una Sala o Sección del Tribunal Supremo la competencia corresponderá a la Sala que se establece en el artículo 61. Cuando se trate de órganos de la jurisdicción militar, la competencia corresponderá a la Sala Quinta de lo Militar del Tribunal Supremo.

c) El procedimiento para sustanciar la pretensión será el propio del recurso de revisión en materia civil, siendo partes, en todo caso, el Ministerio Fiscal y la Administración del Estado.

d) El Tribunal dictará sentencia definitiva, sin ulterior recurso, en el plazo de quince días, con informe previo del órgano jurisdiccional a quien atribuye el error.

e) Si el error no fuera apreciado se impondrán las costas al petionario.

f) No procederá la declaración de error contra la resolución judicial a la que se impute mientras no se hubieren agotado previamente los recursos previstos en el ordenamiento.

g) La mera solicitud de declaración del error no impedirá la ejecución de la resolución judicial a la que aquél se impute.

2. Tanto en el supuesto de error judicial declarado como en el daño causado por el anormal funcionamiento de la Administración de Justicia, el interesado dirigirá su petición indemnizatoria directamente al Ministerio de Justicia, tramitándose la misma con arreglo a las normas reguladoras de la responsabilidad patrimonial del Estado. Contra la resolución cabrá recurso contencioso-administrativo. El derecho a reclamar la indemnización prescribirá al año, a partir del día en que pudo ejercitarse.

Artículo 294

1. Tendrán derecho a indemnización quienes, después de haber sufrido prisión preventiva, sean absueltos por inexistencia del hecho imputado o por esta

293. artikulua

1. Hutsegite batengatik kalte-ordaina eskatzeko, hutsegitea berariaz aitorzen duen epaile-erabaki bat beharko da. Aurretiazko erabaki hori izan daiteke berrikuspen-errekurtsio bat dela-eta emandako epai bat ere. Bestelako edozein kasutan, erregelatzaileek aplikatuko dira:

a) Hutsegitea aitortzeko akzio judiziala, ezinbestean, hiru hilabeteren epean eskatu beharko da, baliatu daitekeen lehen egunetik hasirik kontatzen.

b) Hutsegitea aitortzeko uzia Auzitegi Gorenean aurkeztuko da, hutsegitea egozten zaion organoaren jurisdikzio-ordena bereko salaren aurrean; hutsegitea Auzitegi Goreneko sala edo atalen bati egozten bazaio, berriz, 61. artikuluan ezarritako salari dagokio eskumena. Jurisdikzio militarreko organoen kasuan, Auzitegi Goreneko Arlo Militarreko Bosgarren salari dagokio eskumena.

c) Arlo zibileko berrikuspen-errekurtsioa izango da uzia bideratzeko prozedura, eta alderdi izango dira, kasu guztietan, Fiskaltza eta Estatuaren Administrazioa.

d) Auzitegiak hamabost eguneko epean emango du behin betiko epaia, errekurtsorako aukerarik gabea; hori baino lehen, txostena egingo du hutsegitea egozten zaion jurisdikzio-organoak.

e) Ez bada hutsegiterik atzematzen, eskatzaileari ezarriko zaizkio kostuak.

f) Hutsegitea egozten zaion ebazpen judizialaren aurka ezin aurkeztuko da hutsegite-deklaraziorik, aurrez agortu ez badira ordenamenduak haren aurka aurreikusitako errekurtsioak.

g) Hutsegite-deklarazioa eskatze hutsak ez du eragotziko hutsegitea egozten zaion ebazpen judiziala exekututzea.

2. Hutsegite judizial aitortuaren kasuan nahiz Justizia Administrazioaren ezohiko funtzionamenduak eragindako kaltearen kasuan, zuzenean Justizia Ministeriora zuzendu beharko du interesdunak eskaera, eta Estatuaren ondare-erantzukizunari buruzko arauen arabera egingo dira haren izapideak. Ebazpenaren aurka, ezin jarriko da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik. Kalte-ordaina erreklamatzeko eskubidea urtebeteren buruan preskribatuko da, baliatzeko aukera izan zen lehen egunetik aurrera kontaturik.

294. artikulua

1. Kalte-ordaina jasotzeko eskubidea izango dute behin-behineko espezialtza izan denak, betiere kalteak sortu zaizkio, egotzitako egitatea izan ez

misma causa haya sido dictado auto de sobreseimiento libre, siempre que se le hayan irrogado perjuicios.

2. La cuantía de la indemnización se fijará en función del tiempo de privación de libertad y de las consecuencias personales y familiares que se hayan producido.

3. La petición indemnizatoria se tramitará de acuerdo con lo establecido en el apartado 2 del artículo anterior.

Artículo 295

En ningún caso habrá lugar a la indemnización cuando el error judicial o el anormal funcionamiento de los servicios tuviera por causa la conducta dolosa o culposa del perjudicado.

Artículo 296

El Estado responderá también de los daños que se produzcan por dolo o culpa grave de los Jueces y Magistrados, sin perjuicio del derecho que le asiste de repetir contra los mismos por los cauces del proceso declarativo que corresponda ante el Tribunal competente. En estos procesos será siempre parte el Ministerio Fiscal.

Artículo 297

Lo dispuesto en los artículos anteriores no obstará a la exigencia de responsabilidad civil a los Jueces y Magistrados, por los particulares, con arreglo a lo dispuesto en esta Ley.

zelako absolbitzen badute edo, arrazoi beragatik, largespen askeko autoa ematen bada.

2. Preso egondako denboraren arabera eta sortutako ondorio pertsonal eta familiarren arabera finkatuko da kalte-ordainaren zenbatekoa.

3. Aurreko artikuluko 2. zerbakiaren ezarritakoaren arabera izapidetuko da kalte-ordain eskaera.

295. artikulua

Ez da kalte-ordaina jasotzeko eskubiderik izango kaltetunaren dolo edo erruzko portaerak eragin badu hutsegite judiziala edo zerbitzuen ezohiko funtzionamendua.

296. artikulua

Orobat, epaile eta magistratuen dolo edo erru larriagatik sortutako kalteengatik erantzungo du Estatuak, hargatik eragotzi gabe auzitegi eskudunaren aurrean dagokion deklarazio-prozesuaren bidez berreskatzeko duen eskubidea. Fiskaltza alderdi izango da beti prozesuotan.

297. artikulua

Aurreko artikuluetan ezarritakoa ez da oztopo izango partikularrek, lege honetan xedaturikoaren arabera, epaile eta magistratuei erantzukizun zibila eskatzeko.

LIBRO IV
DE LOS JUECES Y MAGISTRADOS

TÍTULO I
DE LA CARRERA JUDICIAL Y DE LA PROVISIÓN DE DESTINOS

CAPÍTULO I
De la carrera judicial

Artículo 298

1. Las funciones jurisdiccionales en los juzgados y tribunales de todo orden regulados en esta ley se ejercerán únicamente por jueces y magistrados profesionales, que forman la Carrera Judicial.

2. También ejercen funciones jurisdiccionales sin pertenecer a la Carrera Judicial, con sujeción al régimen establecido en esta ley, sin carácter de profesionalidad y con inamovilidad temporal, los magistrados suplentes, los que sirven plazas de jueces como sustitutos, los jueces de paz y sus sustitutos.

Artículo 299

1. La Carrera Judicial consta de tres categorías:

- Magistrado del Tribunal Supremo.
- Magistrado.
- Juez.

2. Los Magistrados del Tribunal Supremo, sin perjuicio de su pertenencia a la Carrera Judicial, tendrán el estatuto especial regulado en la presente Ley Orgánica.

3. Sólo adquirirán la categoría de Magistrado del Tribunal Supremo quienes efectivamente pasen a ejercer funciones jurisdiccionales como miembros de este Tribunal.

Artículo 300

El Consejo General del Poder Judicial aprobará cada tres años, como máximo, y por períodos menores cuando fuere necesario, el escalafón de la Ca-

IV. LIBURUA
EPAILE ETA MAGISTRATUAK

I. TITULUA
KARRERA JUDIZIALA ETA DESTINO-ESLEIPENAK

I. KAPITULUA
Karrera judiziala

298. artikulua

1. Karrera judiziala osatzen duten epaile eta magistratu profesionalek baino ez dituzte beteko lege honek arautzen dituen epaitegi eta auzitegien jurisdikzio-funtzioak.

2. Halaber, karrera judizialeko kide izan gabe, jurisdikzio-funtzioak betetzen dituzte, lege honetan ezartzen den erregimenarekin bat, profesional-izaerarik gabe eta aldi baterako mugiezintasunarekin: ordezko magistratuek, epaileen postuak ordezko gisa betetzen dituztenek, bake-epaileek eta haien ordezkoek.

299. artikulua

1. Karrera judiziala hiru kategoria hauek osatzen dute:

- Auzitegi Goreneko magistratua.
- Magistratua.
- Epailea.

2. Auzitegi Goreneko magistratuek, karrera judizialeko kide izateari utzi gabe, lege organiko honetan arautzen den estatutu berezia dute.

3. Auzitegi Goreneko kide gisa jurisdikzio-funtzioak egiazki betetzera iristen direnek baino ez dute eskuratuko auzitegi horretako magistratuaren kategoria.

300. artikulua

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak, hiru urtean behin gutxienez, eta behar izanez gero sarriago, karrera judizialaren eskalafoia onetsiko du, erregelatzen.

rrera Judicial, que será publicado en el «Boletín Oficial del Estado», y comprenderá los datos personales y profesionales que se establezcan reglamentariamente.

CAPÍTULO II

Del ingreso y ascenso en la carrera judicial

Artículo 301

1. El ingreso en la carrera judicial estará basado en los principios de mérito y capacidad para el ejercicio de la función jurisdiccional.

2. El proceso de selección para el ingreso en la carrera judicial garantizará, con objetividad y transparencia, la igualdad en el acceso a la misma de todos los ciudadanos que reúnan las condiciones y aptitudes necesarias, así como la idoneidad y suficiencia profesional de las personas seleccionadas para el ejercicio de la función jurisdiccional.

3. El ingreso en la Carrera Judicial por la categoría de juez se producirá mediante la superación de oposición libre y de un curso teórico y práctico de selección realizado en la Escuela Judicial.

4. La convocatoria para el ingreso en la Carrera Judicial, que se realizará conjuntamente con la de ingreso en la Carrera Fiscal, comprenderá todas las plazas vacantes existentes en el momento de la misma y un número adicional que permita cubrir las que previsiblemente puedan producirse hasta la siguiente convocatoria.

Los candidatos aprobados, de acuerdo con las plazas convocadas, optarán, según el orden de la puntuación obtenida, por una u otra Carrera en el plazo que se fije por la Comisión de Selección.

5. También ingresarán en la Carrera Judicial por la categoría de magistrado del Tribunal Supremo, o de magistrado, juristas de reconocida competencia en los casos, forma y proporción respectivamente establecidos en la ley. Quienes pretendan el ingreso en la carrera judicial en la categoría de magistrado precisarán también superar un curso de formación en la Escuela Judicial.


A los efectos de la reserva de plazas en el orden jurisdiccional civil, los magistrados que hubiesen superado las pruebas de especialización en materia mercantil se equiparán a los que hubiesen superado las pruebas de selección en el orden jurisdiccional civil.

b) Dos a magistrados que reunieren las condiciones generales para el acceso al Tribunal Supremo señaladas en el artículo anterior.

Artículo 345

Podrán ser nombrados Magistrados del Tribunal Supremo los Abogados y juristas de prestigio que, cumpliendo los requisitos establecidos para ello, reúnan méritos suficientes a juicio del Consejo General del Poder Judicial y hayan

342 bis artikulua

Konstituzioaren 18.2 eta 18.3 artikuluan onartzen diren oinarrizko eskubi-deei eragiten dieten Inteligentzia Zentro Nazionalaren jardueren baimenaz arduratzeko eskumena duen Auzitegi Goreneko magistratua bost urterako izendatuko da, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak proposatuta, kategorian hiru urtez jardun duten Auzitegi Goreneko magistratuen artean.

343. artikulua

Auzitegiko saletan, bost magistratu-postutik lau, magistratu-kategorian gutxienez hamar urteko esperientzia duten eta karreran gutxienez hamabost urtez aritu diren karrera judizialeko kideen artean hornituko dira, eta bosgarrena, berriz, gaitasun-sonaren jabe diren abokatu eta bestelako juristen artean.

344. artikulua

Karrera judizialari erreserbatutako lau postutik:

a) Bi postu esleituko zaizkie kategoriara jurisdikzio-ordena zibil edo penaletik dagozkien hautaketa-proben bitartez sartu diren magistratuei, edo aipatutako kategoria izanik proba horiek gainditzen dituztenei; edo, jurisdikzio-ordenaren arabera, bi postu administrazioarekiko auzien edo gizarte-arloko auzien jurisdikzio-ordenan espezialistak diren magistratuei edo, gizarte-arlokoen kasuan, Lan Magistratuen Kidego zeneko kide izandakoei. Txanda horretan, karreran 15 urtez eta kategorian bost urtez soilik aritu izana eskatuko da.

Jurisdikzio-ordena zibilean postuak erreserbatzearen ondorioetarako, merkataritza-arloko espezializazio-probak gainditu dituzten magistratuak parekatuta egongo dira jurisdikzio-ordena zibileko hautaketa-probak gainditu dituzten magistratuekin.

b) Bi postu esleituko zaizkie aurreko artikuluan adierazten diren Auzitegi Gorenean sartzeko baldintza orokorrak betetzen dituzten magistratuei.

345. artikulua

Auzitegi Goreneko magistratu izendatu ahalko dira, horretarako ezarritako baldintzak beterik, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren ustez behar adina merezimendu duten abokatu eta juristak, betiere hamabost urte baino gehia-

desempeñado su actividad profesional por tiempo superior a quince años preferentemente en la rama del Derecho correspondiente al orden jurisdiccional de la Sala para la que hubieran de ser designados

Artículo 346

Cuando el número de Magistrados de una Sala no sea múltiplo de cinco, se adjudicará una plaza más al grupo b) del artículo 344; al grupo a) del mismo artículo; o al grupo de juristas de prestigio, sucesivamente y por este orden.

Artículo 347

Quienes tuvieran acceso al Tribunal Supremo sin pertenecer con anterioridad a la Carrera Judicial, se incorporarán al escalafón de la misma ocupando el último puesto en la categoría de Magistrados del Tribunal Supremo. Se les reconocerá a todos los efectos quince años de servicios.

CAPÍTULO VI BIS

De los jueces de adscripción territorial

Artículo 347 bis

1. En cada Tribunal Superior de Justicia, y para el ámbito territorial de la provincia, se crearán las plazas de Jueces de adscripción territorial que determine la Ley 38/1988, de 28 de diciembre, de Demarcación y Planta Judicial.

2. Por designación del Presidente del Tribunal Superior de Justicia, los Jueces de adscripción territorial ejercerán sus funciones jurisdiccionales en las plazas que se encuentren vacantes, como refuerzo de órganos judiciales o en aquellas plazas cuyo titular esté ausente por cualquier circunstancia, conforme a las previsiones establecidas en esta Ley.

3. En las Comunidades Autónomas pluriprovinciales y cuando las razones del servicio lo requieran, el Presidente del Tribunal Superior de Justicia podrá realizar llamamientos para órganos judiciales de otra provincia perteneciente al ámbito territorial de dicho Tribunal. En tales casos, los desplazamientos del Juez de adscripción territorial darán lugar a las indemnizaciones que por razón del servicio se determinen reglamentariamente.

goko jarduera profesionala izan badute, ahal dela izendatu diren salaren jurisdikzio-ordenari dagokion zuzenbide-arloan.

346. artikulua

Sala bateko magistratu kopurua ez denean bosten multiploa, postu bat gehiago esleituko zaio, hurrenez hurren eta ordena honetan: 344 artikuluko b) multzoari, artikuluko bereko a) multzoari, edo gaitasun-sonaren jabe diren juristen multzoari.

347. artikulua

Auzitegi Gorenean lehendik karrera judizialean egon gabe sartzen direnak Auzitegi Goreneko magistratuen kategoriako azken postuan sartuko dira karre-rako eskalafoian. Hamabost urteko zerbitzua aitortuko zaie, ondorio guztietarako.

VI BIS KAPITULUA

Lurralde-atxikipeneko epaileak

347 bis artikulua

1. Justizia-auzitegi nagusi bakoitzean, eta probintziaren lurralde-eremurako, lurralde-atxikipeneko epaileen plazak sortuko dira, 1988ko abenduaren 28ko Mugape eta Planta Judizialaren 38/1988 Legeak ezartzen dituen bezainbeste.

2. Justizia-auzitegi nagusiko presidentek izendaturik, lurralde-atxikipeneko epaileek hutsik dauden plazetan beteko dituzte beren jurisdikzio-funtzioak, organo judizialei laguntzeko edo titularra edozein arrazoiengatik falta den plazetan, lege honetan ezarritako aurreikuspenen arabera.

3. Probintzia bat baino gehiagoko autonomia-erkidegoetan, eta zerbitzuak hala eskatzen duenean, justizia-auzitegi nagusiko presidentek deialdiak egin ahal izango ditu auzitegi horren lurralde-eremuko beste probintzia bateko organo judizialetarako. Halako kasuetan, lurralde-atxikipeneko epailearen lekualdatzeek erregelamenduz ezartzen diren heineko kalte-ordainak izango dituzte zerbitzua dela eta.

4. En las Comunidades Autónomas en las que exista más de una lengua oficial o tengan Derecho Civil propio se aplicarán, para la provisión de estas plazas, las previsiones establecidas a tal efecto en la presente Ley.

CAPÍTULO VII

De la situación de los jueces y magistrados

Artículo 348

Los jueces y magistrados pueden hallarse en alguna de las situaciones siguientes:

- a) Servicio activo.
- b) Servicios especiales.
- c) Excedencia voluntaria.
- d) Suspensión de funciones.
- e) Excedencia por razón de violencia sobre la mujer.

Artículo 348 bis

Se pasará de la categoría de Magistrado del Tribunal Supremo a la de Magistrado al desempeñar cualesquiera otras actividades públicas o privadas con las únicas excepciones que a continuación se señalan:

1. Vocal del Consejo General del Poder Judicial.
2. Magistrado del Tribunal Constitucional.
3. Miembro de Altos Tribunales de Justicia internacionales.
4. Fiscal General del Estado.
5. Jefe del Servicio de Inspección del Consejo General del Poder Judicial.

Artículo 349

1. Los jueces y magistrados estarán en situación de servicio activo cuando ocupen plaza correspondiente a la Carrera Judicial, cuando se encuentren adscritos provisionalmente, cuando hayan sido nombrados jueces adjuntos, o cuando les haya sido conferida comisión de servicio con carácter temporal.

4. Hizkuntza ofizial bat baino gehiago edo berezko zuzenbide zibila duten autonomia-erkidegoetan, lege honetan halakoetarako egin diren aurreikuspenak aplikatuko dira plaza horiek betetzean.

VII. KAPITULUA

Epaile eta magistratuen egoera

348. artikulua

Epaile eta magistratuak egoera hauetako batean egon daitezke:

- a) Zerbitzu aktiboan.
- b) Zerbitzu berezietan.
- c) Borondatezko eszedentzian.
- d) Funtzio-geldieran.
- e) Emakumeen aurkako indarkeriagatiko eszedentzian.

348 bis artikulua

Auzitegi Goreneko magistratuaren kategoriatik magistratu-kategoriara igaroko dira beste edozein jarduera publiko edo pribatu betetzean, jarraian adierazten diren salbuespen bakarrekin:

1. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko bokal.
2. Konstituzio Auzitegiko magistratu.
3. Nazioarteko Justizia Auzitegi gorenen bateko kide.
4. Estatuko Fiskal Nagusi.
5. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Ikuskaritza Zerbitzuko buru.

349. artikulua

1. Epaile eta magistratuak zerbitzu aktiboan egongo dira karrera judizialeko postua betetzen dutenean, aldi baterako atxikita daudenean, alboko epaile izendatu dituztenean edo aldi baterako zerbitzu-eginkizuna esleitu zaie-nean.

2. Cuando se produzca la supresión o reconversión con cambio de orden jurisdiccional de una plaza de la que sea titular un juez o magistrado, éste quedará adscrito a disposición del Presidente del Tribunal Superior de Justicia, en los términos establecidos en el artículo 118.2 y 3.

Artículo 350

1. El Consejo General del Poder Judicial podrá conferir comisión de servicio a los jueces y magistrados, que no podrá exceder de un año, prorrogable por otro:

- a) para prestar servicios en otro juzgado o tribunal, con o sin relevación de funciones;
- b) para prestar servicios en el Ministerio de Justicia, con o sin relevación de funciones;
- c) para participar en misiones de cooperación jurídica internacional, cuando no proceda la declaración de servicios especiales.

2. Las comisiones de servicio requieren la conformidad del interesado, así como el informe de su superior jerárquico y el del Servicio de Inspección del Consejo General del Poder Judicial. Sólo podrán conferirse, en resolución motivada, si el prevalente interés del servicio y las necesidades de la Administración de Justicia lo permiten.

Artículo 351

Los jueces y magistrados serán declarados en la situación de servicios especiales:

a) Cuando sean nombrados Presidente del Tribunal Supremo, Fiscal General del Estado, Vocal del Consejo General del Poder Judicial, Magistrado del Tribunal Constitucional, Defensor del Pueblo o sus Adjuntos, Consejero del Tribunal de Cuentas, Consejero de Estado, Presidente o Vocal del Tribunal de Defensa de la Competencia, Director de la Agencia de Protección de Datos o miembro de Altos Tribunales Internacionales de Justicia, o titulares o miembros de los órganos equivalentes de las comunidades autónomas.

b) Cuando sean autorizados por el Consejo General del Poder Judicial para realizar una misión internacional por período determinado, superior a seis meses, en organismos internacionales, gobiernos o entidades públicas extranjeras o en programas de cooperación internacional, previa declaración de interés por el Ministerio de Asuntos Exteriores.

2. Titulartzat epaile edo magistratu bat duen postu bat kentzen edo jurisdikzio-ordena aldatuz berregituratzen denean, epaile edo magistratua Justizia Auzitegi Nagusiko presidenteari atxikita geratuko da, 118. artikulua 2. eta 3. zenbakietan ezarritako moduan.

350. artikulua

1. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak zerbitzu-eginkizuna eman diezaieke epaile eta magistratuei, gehienez urtebeterako eta beste urtebetez luzatzeko aukerarekin:

a) beste epaitegi edo auzitegi batean jarduteko, funtzio-errelebuarekin edo gabe;

b) Justizia Ministerioan jarduteko, funtzio-errelebuarekin edo gabe;

c) nazioarteko lankidetzaren juridikoko eginkizunetan parte hartzeko, zerbitzu berezizat hartzea ez dagokienean.

2. Zerbitzu-eginkizunak esleitzeko, beharrezkoa da interesduna ados egotea, eta txostena egitea hierarkian gaineratik duenak eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Ikuskaritza Zerbitzuko nagusiak. Zerbitzu-eginkizunak esleitzeko, ebazpen arrazoitu bidez, beharrezkoa da zerbitzuaren interes nabarmenak eta Justizia Administrazioaren beharrak horretarako bide ematea.

351. artikulua

Epaile eta magistratuak zerbitzu berezietan daudela joko da:

a) Kargu hauetarako edo autonomia-erkidegoetako organo baliokideetako titular edo kide izendatzen dituztenean: Auzitegi Goreneko presidente, Estatuaren Fiskal Nagusi, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko bokal, Konstituzio Auzitegiko magistratu, Herriaren Defendatzaile edo haren alboko, Kontu Auzitegiko aholkulari, Estatu Kontseiluko kide, Lehiaren Defentsarako Auzitegiko presidente edo bokal, Datuak Babesteko Bulegoaren zuzendari edo Nazioarteko Justizia Auzitegi Gorenetako kide.

b) Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak baimena ematen dienean, sei hilabetetik gorako aldi jakin baterako, nazioarteko organismoetan, atzerriko gobernu edo erakunde publikoetan edo nazioarteko lankidetzako programetan nazioarteko eginkizun bat betetzeko, aurretik Kanpo Arazoetako Ministerioak interes-adierazpena eginda.

c) Cuando adquirieran la condición de funcionarios al servicio de Organizaciones Internacionales o de carácter supranacional.

d) Cuando sean nombrados o adscritos como Letrados al servicio del Tribunal de Justicia de las Comunidades Europeas, del Tribunal Constitucional, del Consejo General del Poder Judicial o del Tribunal Supremo, o Magistrados del Gabinete Técnico del Tribunal Supremo, o al servicio del Defensor del Pueblo u órgano equivalente de las Comunidades Autónomas.

e) Cuando presten servicio, en virtud de nombramiento por real decreto, o por decreto en las comunidades autónomas, en cargos que no tengan rango superior a director general.

f) Cuando sean nombrados para cargo político o de confianza en virtud de Real Decreto o Decreto autonómico, o elegidos para cargos públicos representativos en el Parlamento Europeo, Congreso de los Diputados, Senado, Asambleas legislativas de las Comunidades Autónomas o Corporaciones locales.

En este caso, así como en el supuesto previsto en la letra f) del artículo 356, los Jueces y Magistrados, y los funcionarios de otros Cuerpos, que reingresen en la Carrera correspondiente, deberán de abstenerse de conocer de los asuntos concretos vinculados con su actividad política.

Artículo 352

Los Magistrados del Tribunal Supremo serán declarados en la situación de servicios especiales si fueran designados para desempeñar alguno de los cargos siguientes:

- a) Vocal del Consejo General del Poder Judicial.
- b) Magistrado del Tribunal Constitucional.
- c) Miembro de Altos Tribunales Internacionales de Justicia.
- d) Fiscal General del Estado.
- e) Jefe del Servicio de Inspección del Consejo General del Poder Judicial.

Artículo 353

La situación de servicios especiales se declarará de oficio por el Consejo General del Poder Judicial, o a instancia del interesado, una vez se verifique el supuesto que la determina, y con efectos desde el momento en que se produjo el nombramiento correspondiente.

c) Nazioarteko edo estatuaz gaindiko izaerako erakundeen zerbitzura dauden funtzionario bihurtzen direnean.

d) Letradu izendatzen edo atxikitzen dituztenean Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiaren, Konstituzio Auzitegiaren, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren edo Auzitegi Gorenaren zerbitzuan, edo Auzitegi Gorenako Kabinete Teknikoko magistratu, edota Herriaren Defendatzailearen edo autonomia-erkidegoetako organo baliokidearen zerbitzura.

e) Errege-dekretu bidez edo autonomia-erkidegoetan dekretu bidez izendatuta dihardutenean, betiere zuzendari nagusiarena baino maila goragokoa ez duten karguetan.

f) Kargu politiko edo konfiantza-kargu baterako izendatzen dituztenean, errege-dekretu bidez edo autonomia-erkidegoetako dekretu bidez, edo ordezkaritza-kargu publikoetarako aukeratzen dituztenean, dela Europako Parlamenturako, Diputatuen Kongresurako, Senaturako, autonomia-erkidegoetako legebiltzarretarako edo toki-korporazioetarako.

Kasu horretan, eta orobat 356. artikuluko f) letran aurreikusitako kasuan, dagokien karreran berriz sartzen diren epaile eta magistratu eta beste kidegoetako funtzionarioek ez dute gaiaz arduratzerik izango beren jarduera politikoa-ekin loturiko gai konkretuak direnean.

352. artikulua

Auzitegi Gorenako magistratuak zerbitzu berezietan daudela joko da honako kargu hauetako bat betetzeko izendatzen badira:

- a) Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko bokal.
- b) Konstituzio Auzitegiko magistratu.
- c) Nazioarteko justizia-auzitegi nagusietako kide.
- d) Estatuaren Fiskal Nagusi.
- e) Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Ikuskaritza Zerbitzuko buru.

353. artikulua

Zerbitzu berezietako egoera ofizioz adieraziko du Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak, edo interesdunaren eskariz adieraziko da bestela, egoera hori dakarren kasua egiaztatzen denean, eta dagokion izendapena gauzatzen den unetik sartuko da indarrean.

Artículo 354

1. Los jueces y magistrados en situación de servicios especiales percibirán la retribución del puesto o cargo que desempeñen, sin perjuicio del derecho a la remuneración por su antigüedad en la carrera judicial.

2. A los jueces y magistrados en situación de servicios especiales se les computará el tiempo que permanezcan en tal situación a efectos de ascensos, antigüedad y derechos pasivos. Tendrán derecho a la reserva de la plaza que ocupasen al pasar a esa situación o la que pudieren obtener durante su permanencia en la misma.

Artículo 355

Al cesar en el puesto o cargo determinante de la situación de servicios especiales deberán solicitar el reingreso al servicio activo en el plazo máximo de 10 días a contar desde el siguiente al cese e incorporarse a su destino dentro de los 20 días inmediatamente siguientes; de no hacerlo, serán declarados en situación de excedencia voluntaria con efectos desde el día en que cesaron en el puesto o cargo desempeñados. El reingreso tendrá efectos económicos y administrativos desde la fecha de la solicitud.

Artículo 355 bis.

1. Los destinos cuyos titulares se encuentren en situación de servicios especiales se podrán cubrir por los mecanismos ordinarios de sustitución, mediante comisiones de servicio con o sin relevación de funciones o a través de los mecanismos ordinarios de provisión, incluso con las promociones pertinentes, para el tiempo que permanezcan los titulares en la referida situación.

2. Si la vacante se cubre mediante los mecanismos ordinarios de provisión, quienes ocupen los referidos destinos quedarán, cuando se reintegre a la plaza su titular, adscritos al Tribunal colegiado en que se hubiera producido la reserva o, si se tratase de un Juzgado, a disposición del Presidente del Tribunal Superior de Justicia correspondiente y sin merma de las retribuciones que vinieren percibiendo. Mientras permanezcan en esta situación prestarán sus servicios en los puestos que determinen las respectivas Salas de Gobierno, devengando las indemnizaciones correspondientes por razón del servicio cuando éstos se prestaren en lugar distinto del de su residencia, que permanecerá en el de la plaza reservada que hubiere ocupado.

Mientras desempeñan la plaza reservada, una vez transcurrido un año desde que accedieran a la misma, o en cualquier momento cuando se encuen-

354. artikulua

1. Betetzen duten postu edo karguari dagokion ordainsaria jasoko dute zerbitzu berezietan dauden epaile eta magistratuek, hargatik eragotzi gabe karrera judizialean duten antzinatasunagatik ordainsaria jasotzeko eskubidea.

2. Zerbitzu berezietan dauden epaile eta magistratuei egoera horretan ematen duten denbora kontatu egingo zaie igoeretarako, antzinatasunerako eta eskubide pasiboetarako. Eskubidea izango dute egoera horretara igarotzean betetzen duten postua erreserbatzeko edo, egoera horretan ematen duten denboran plaza eskuratzen badute, hura erreserbatzeko.

355. artikulua

Zerbitzu berezietan egotea dakarren lanpostu edo kargua uztean, zerbitzu aktiboan berriro sartzeko eskaera egin beharko dute, 10 eguneko epean gehienez, kargua uzten den egunaren hurrengotik zenbatzen hasita, eta ondorengo 20 egunen barruan hasi behar dute postu berrian. Ez badute hala egiten, borondatezko eszedentzian daudela joko da, betetzen zuten postua edo kargua utzi zuten egunetik. Zerbitzu aktiboan berriro sartzeko eskaera egin zen egunaz geroztik izango ditu efektu ekonomiko eta administratiboak.

355 bis artikulua

1. Titularra zerbitzu berezietan duten destinoak bete daitezke ohiko ordezen-mekanismoen bitartez, zerbitzu betekizunen bitartez —funtzio-aldaketarekin edo gabe— edo hornitze-prozedura arrunten bitartez, dagozkion sustapenekin, titularrak aipaturiko egoeran dauden denbora guztirako.

2. Hornitze-prozedura arrunten bitartez betetzen bada hutsunea, destino horiek betetzen dituztenak, titularra bere postura itzultzean, erreserba egin den kide anitzeko auzitegiari atxikita geldituko dira, edo, epaitegia izanez gero, dagokion justizia-auzitegi nagusiko presidentearen agindura, ordura arte jasotako ordainsariak murriztu gabe. Egoera horretan dauden bitartean, dagozkien gobernu-salek zehaztutako lanpostuetan jardungo dute, eta zerbitzuagatik dagozkion kalte-ordainak ordainduko dira bizilekutik kanpo jardun behar izanez gero; bizilekua, postua erreserbatua dagoen lekuan mantenduko da.

Erreserbatutako postuan diharduten bitartean, postu hori eskuratu zutenetik urtebetera edo atxikipen-egoeran dauden beste edozein unetan, zeinahi

tren en situación de adscripción, podrán acceder en propiedad a cualesquiera destinos por los mecanismos ordinarios de provisión y promoción. Ocuparán definitivamente la plaza reservada que sirvieren cuando vaque por cualquier causa. Cuando queden en situación de adscritos, serán destinados a la primera vacante que se produzca en el Tribunal colegiado de que se trate o en los Juzgados del mismo orden jurisdiccional del lugar de la plaza reservada, a no ser que se trate de las plazas de Presidente o legalmente reservadas a Magistrados procedentes de pruebas selectivas, si no reunieren esta condición.

3. Quienes hallándose en una situación administrativa distinta del servicio activo obtuvieran mediante concurso una plaza ofertada al amparo de lo dispuesto en este artículo, necesariamente deberán reincorporarse al servicio activo para proceder al desempeño efectivo de funciones judiciales en dicha plaza.

Artículo 356

Procederá declarar en la situación de excedencia voluntaria, a petición del juez o magistrado, en los siguientes casos:

a) Cuando se encuentre en situación de servicio activo en un cuerpo o escala de las Administraciones públicas o en la carrera fiscal.

b) Cuando pase a desempeñar cargos o prestar servicios en organismos o entidades del sector público, y no le corresponda quedar en otra situación. En este supuesto, producido el cese en el cargo o servicio, deberá solicitar el ingreso en el servicio activo en el plazo máximo de 10 días a contar desde el siguiente al cese. De no hacerlo así se le declarará en situación de excedencia voluntaria por interés particular.

c) Por interés particular, siempre que haya prestado servicios en la carrera judicial durante los cinco años inmediatamente anteriores, sin que en esta situación se pueda permanecer menos de dos años.

La declaración de esta situación quedará subordinada a las necesidades de la Administración de Justicia. No podrá declararse cuando al juez o magistrado se le instruya expediente disciplinario.

d) Para el cuidado de los hijos, por un período no superior a tres años para atender a cada hijo, tanto cuando lo sea por naturaleza, por adopción, por acogimiento permanente o preadoptivo, a contar desde la fecha de nacimiento o desde la fecha de la resolución judicial o administrativa que lo acuerde, respectivamente. Los sucesivos hijos darán derecho a un nuevo período de excedencia

destinoz jabetu ahal izango dira, hornitze- eta sustapen-mekanismo arrunten bidez. Betetzen ari diren postu erresebatua behin betiko okupatu ahal izango dute edozein kausagatik hutsik geratzen denean. Atxikipen-egoeran geratuz gero, dagokion kide anitzeko auzitegian edo postu erresebatua dagoen lekuko jurisdikzio-ordena bereko epaitegian sortutako lehenengo hutsaldia bete beharko dute, non eta ez diren presidente-postua edo hautaketa-probetatik datozen magistratuari legez erresebatutako postuak, baldintza horiek betetzen ez badituzte.

3. Zerbitzu aktiboaz bestelako administrazio-egoera batean dagoen norbaitek artikulua honen babesean eskainitako postu bat lortzen badu lehiaketa bidez, zerbitzu aktibora itzuli beharko du nahitaez plaza horretan funtzio judizialak egiazki betetzen hasteko.

356. artikulua

Epaile edo magistratua borondatezko eszedentzian deklaratu da, berak hala eskatuta, honako kasu hauetan:

a) Administrazio publikoetako multzo edo eskala batean edo karrera fiskalean zerbitzu aktiboan dagoenean.

b) Sektore publikoko organismo edo erakundeetan karguak betetzera edo zerbitzua ematera igarotzen denean, ez badagokio beste egoera bat. Kasu horretan, kargua edo zerbitzua utzi eta gero, zerbitzu aktiboan berriro sartzeari eskatu behar du hamar eguneko epean, gehienez, kargua utzi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Eskatzen ez badu, interes partikularragatik borondatezko eszedentzian deklaratu da.

c) Interes partikularragatik, betiere aurreko bost urteetan karrera judizialean jardun badu; egoera horretan, ezin da bi urte baino gutxiago egon.

Egoera hori deklaratzeari Justizia Administrazioaren beharren mende dago. Ezin deklaratu da epaile edo magistratuari diziplina-espedita instruitzen ari zaionean.

d) Seme-alabak zaintzeko, gehienez ere hiru urtez ume bakoitzeko, izan naturala, adopziozkoa, harrera iraunkorrekoa edo aurre-adopziozkoa; epea zenbatzen, jaiotze-datatik edo dagokion ebazpen judizial edo administratiboaren datatik hasiko da, hurrenez hurren. Hurrenez hurrenko seme-alabek eskubidea emango dute beste eszedentzia-aldi bat izateko, aurrekoa amaitutzat emanik,

que, en su caso, pondrá fin al que se viniera disfrutando. Cuando el padre y la madre trabajen, sólo uno podrá ejercer este derecho.

e) También tendrán derecho a un período de excedencia, de duración no superior a tres años, para atender al cuidado de un familiar que se encuentre a su cargo, hasta el segundo grado inclusive de consanguinidad o afinidad que, por razones de edad, accidente o enfermedad, no pueda valerse por sí mismo y no desempeñe actividad retribuida.

El período de excedencia será único por cada sujeto causante. Cuando un nuevo sujeto causante diera origen a una nueva excedencia, el inicio del período de la misma pondrá fin al que se viniera disfrutando.

Esta excedencia y la regulada en el apartado anterior constituyen un derecho individual de los miembros de la carrera judicial. En caso de que dos de sus miembros generasen el derecho a disfrutarlas por el mismo sujeto causante, el Consejo General del Poder Judicial podrá limitar su ejercicio simultáneo por razones justificadas relacionadas con las necesidades y el funcionamiento de los servicios.

f) Cuando se presente como candidato en elecciones para acceder a cargos públicos representativos en el Parlamento Europeo, Congreso de los Diputados, Senado, Asambleas legislativas de las Comunidades Autónomas o Corporaciones locales. De no resultar elegido, deberá optar, comunicándolo así al Consejo General del Poder Judicial, en el plazo de treinta días, por continuar en la situación de excedencia voluntaria o por reingresar en el servicio activo.

Artículo 357

Cuando un magistrado del Tribunal Supremo solicitara la excedencia voluntaria y le fuere concedida, perderá su condición de tal, salvo en el supuesto previsto en las letras d) y e) del artículo anterior y en el artículo 360 bis. En los demás casos quedará integrado en situación de excedencia voluntaria, dentro de la categoría de Magistrado.

Artículo 358

1. La excedencia voluntaria, en sus distintas modalidades, no produce reserva de plaza. El juez o magistrado, mientras se encuentre en ella, no devengará retribuciones ni le será computado el tiempo que haya permanecido en tal situación a efectos de ascensos, antigüedad y derechos pasivos, salvo lo dispuesto en el apartado 2 de este artículo y lo que establece la normativa de clases pasivas.

hala badagokio. Aitak eta amak lan egiten dutenean, bietako batek bakarrik erabil dezake eskubide hori.

e) Eszedentzia hartu ahal izango dute orobat, gehienez ere hiru urtekoa, beren ardurapean duten senide bat zaintzeko, bigarren mailako odolkidetasun edo kideatasunerainokoa (bigarrena barne), baldin eta adin-, istripu- edo gaixotasun-arrazoiengatik ezin badu bere kabuz moldatu eta ez badu lan ordaindurik egiten.

Eszedentzia-aldia bakarra izango da eskubide-sortzaile bakoitzeko. Beste eskubide-sortzaile batek beste eszedentzia baterako eskubidea sortzen duenean, eszedentzia-aldi hori hastean amaitu egingo da aurrekoa.

Eszedentzia hori eta aurreko atalean arautzen dena karrera judizialeko kideen eskubide indibidualak dira. Bi kidek eskubidea badute eskubide-sortzaile berarengatik eszedentzia hartzeko, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak mugatu ahal izango du aldi berean hartzeko aukera, zerbitzuen beharrei eta funtzionamenduari loturiko arrazoi justifikatuak direla medio.

f) Ordezkaritza-kargu publikoetarako hautagai aurkezten bada, dela Europako Parlamenturako, Diputatuen Kongresurako, Senaturako, autonomia-erikidego bateko legebiltzarrerako edo toki-korporazioetarako. Hautetsi ateratzen ez bada, aukeratu egin beharko du, eta zer aukera egin duen jakinarazi Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari hogeita hamar eguneko epean: edo borondatezko eszedentzian jarraitu, edo zerbitzu aktibora itzuli.

357. artikulua

Auzitegi Goreneko magistratu batek borondatezko eszedentzia eskatzen badu eta ematen bazaio, Auzitegi Goreneko magistratu izateari utziko dio, aurreko artikuluko d) eta e) letretan eta 360 bis artikuluan adierazten den kasuan salbu. Gainerako kasu guztietan, borondatezko eszedentzian integraturik geldituko da, magistratu-kategoriaren barruan.

358. artikulua

1. Borondatezko eszedentziak, edozein modalitatetan, ez dakar postu-erreserbarik. Epaille edo magistratuak, eszedentzian dagoen bitartean, ez du ordainsaririk sortuko, eta egoera horretan eman duen denbora ez zaio kontatuko igoeretarako, antzinatasunerako eta eskubide pasiboetarako, salbu eta artikuluko honen 2. zenbakian xedatzen den eta klase pasiboen arauetan ezartzen den kasuetan.

2. Se exceptúan de lo previsto en el apartado anterior las excedencias voluntarias para el cuidado de hijos y para atender al cuidado de un familiar a que se refieren los apartados d) y e) del artículo 356, en las que el período de permanencia en dichas situaciones será computable a efectos de trienios y derechos pasivos. En este mismo período se permitirá participar en cursos de formación. Durante los dos primeros años se tendrá derecho a la reserva de la plaza en la que se ejerciesen sus funciones y al cómputo de la antigüedad, así como a participar en los concursos de traslado. Transcurrido este periodo, dicha reserva lo será a un puesto en la misma provincia y de igual categoría, debiendo solicitar, en el mes anterior a la finalización del período máximo de permanencia en la misma, el reingreso al servicio activo; de no hacerlo, será declarado de oficio en la situación de excedencia voluntaria por interés particular.

3. Los que se encuentren en la situación de excedencia a la que se refiere el párrafo f) del artículo 356, en caso de que soliciten el reingreso al servicio activo, quedarán adscritos al Presidente del Tribunal Superior de Justicia de la comunidad autónoma de su último destino, teniendo preferencia para obtener puesto de su categoría en la provincia o, en su defecto, Comunidad Autónoma de dicho último destino.

Artículo 359

1. El reingreso en el servicio activo del juez o magistrado en situación de excedencia voluntaria por interés particular de duración superior a 10 años exigirá la previa declaración de aptitud por el Consejo General del Poder Judicial, quien recabará los informes y practicará las actuaciones necesarias para su comprobación.

2. Los jueces y magistrados en situación administrativa de excedencia voluntaria que soliciten el reingreso al servicio activo y, en su caso, obtengan la correspondiente declaración de aptitud, vendrán obligados a participar en todos los concursos que se anuncien para cubrir plazas de su categoría hasta obtener destino. De no hacerlo así, se les declarará en situación de excedencia voluntaria por interés particular, quedando sin efecto la declaración de aptitud de haberse producido.

Artículo 360

Una vez reincorporado al servicio activo el juez o magistrado en situación de excedencia voluntaria por la causa prevista en el párrafo f) del artículo 356, no podrá acceder, durante los cinco años siguientes, a puesto de la carrera judicial que no sea de los que se proveen por estricta antigüedad.

2. Aurreko zenbakian xedatutakoaz kanpo uzten dira 356. artikuluko d) eta e) letretan aipatzen diren borondatezko eszedentziak, hau da, seme-alabak zaintzeko eta senide bati arreta emateko hartutakoak; izan ere, horietan, egoera horretan ematen den aldia kontatu egingo da hirurtekoetarako eta eskubide pasiboetarako. Denbora horretan, aukera izango da prestakuntza-ikastaroe-tan parte hartzeko. Lehen bi urteetan, postua erreserbatzeko eta antzinatasuna kontatzeko eskubidea izango da, eta lekualdatze-lehiaketetan parte hartzekoa ere bai. Aldi hori igarotakoan, erreserba probintzia bereko eta kategoria bereko postu baterako izango da, eta, eszedentziaren gehieneko epea amaitu baino hilabete lehenago, zerbitzu aktiboan berriro sartzea eskatu beharko dute; eskatzen ez badute, interes partikularragatiko borondatezko eszedentzia deklaratu-ko da ofizioz.

3. 356. artikuluko f) paragrafoan aipatzen den eszedentzian dauden per-sonen zerbitzu aktiboan berriro sartzea eskatzen badute, azken destinoaren au-tonomia-erkidegoko justizia-auzitegi nagusiko presidenteari atxikita geratuko dira, eta lehenatasuna izango dute kategoria bereko postu bat eskuratzeko azken destinoaren probintzian edo, halakorik ezean, destinoaren autonomia-erkide-goan.

359. artikulua

1. Interes partikularragatik borondatezko eszedentzian 10 urte baino gehiago egondako epaile edo magistratuak zerbitzu aktiboan berriro sartzeko, gaitasun-deklarazioa egin behar du aurretik Botere Judizialaren Kontseilu Na-gusiak, gaitasun hori egiaztatzeko behar diren txostenak bilduta eta behar diren jarduerak eginda.

2. Administratiboki borondatezko eszedentzian dauden eta zerbitzu akti-boan berriro sartzea eskatzen duten epaile eta magistratuek, dagokion gaita-sun-deklarazioa eskuratzen badute, parte hartu beharko dute beren kategoriako postuak betetzeko irekitzen diren lehiaketa guztietan, destinoa eskuratu arte. Ez badute parte hartzen, interes partikularragatiko borondatezko eszedentzian daudela joko da, eta baliorik gabetu geldituko da gaitasun-deklarazioa, eman bada.

360. artikulua

356. artikuluko f) paragrafoan jasotzen diren kausengatik borondatezko eszedentzian dagoen epaile edo magistratua berriro zerbitzu aktiboan sartzen denean, hurrengo bost urteetan ezin izango du eskuratu, karrera judizialean, antzinatasun soilagatik esleitzen diren postuetakoren bat besterik.

Artículo 360 bis

1. Las juezas y magistradas víctimas de violencia de género tendrán derecho a solicitar la situación de excedencia por razón de violencia sobre la mujer sin necesidad de haber prestado un tiempo mínimo de servicios previos. En esta situación administrativa se podrá permanecer un plazo máximo de tres años.

2. Durante los seis primeros meses tendrán derecho a la reserva del puesto de trabajo que desempeñaran, siendo computable dicho periodo a efectos de ascensos, trienios y derechos pasivos.

Esto no obstante, cuando de las actuaciones de tutela judicial resultase que la efectividad del derecho de protección de la víctima lo exigiere, se podrá prorrogar por periodos de tres meses, con un máximo de dieciocho, el periodo en el que, de acuerdo con el párrafo anterior, se tendrá derecho a la reserva del puesto de trabajo, con idénticos efectos a los señalados en dicho párrafo.

3. Las juezas y magistradas en situación de excedencia por razón de violencia sobre la mujer percibirán, durante los dos primeros meses de esta excedencia, las retribuciones íntegras y, en su caso, las prestaciones familiares por hijo a cargo.

4. El reingreso en el servicio activo de las juezas y magistradas en situación administrativa de excedencia por razón de violencia sobre la mujer de duración no superior a seis meses se producirá en el mismo órgano jurisdiccional respecto del que tenga reserva del puesto de trabajo que desempeñaran con anterioridad; si el periodo de duración de la excedencia es superior a 6 meses el reingreso exigirá que las juezas y magistradas participen en todos los concursos que se anuncien para cubrir plazas de su categoría hasta obtener destino. De no hacerlo así, se les declarará en situación de excedencia voluntaria por interés particular.

Artículo 361

1. El juez o magistrado será declarado en situación de suspensión de funciones, provisional o definitiva, en los casos y en la forma establecidos en esta Ley.

2. El juez o magistrado declarado suspenso quedará privado del ejercicio de sus funciones durante el tiempo que dure la suspensión.

Artículo 362

1. La suspensión provisional podrá acordarse durante la tramitación de un procedimiento judicial o disciplinario.

360 bis artikulua

1. Genero-indarkeriaren biktima diren emakumezko epaile eta magistratuek eskubidea izango dute emakumeen aurkako indarkeriatikiko eszedentzia eskatzeko, aurretik gutxieneko denbora batez jardun beharrik izan gabe. Administrazio-egoera horretan, gehienez, hiru urte egon daiteke.

2. Lehen sei hilabeteetan, betetzen duten postua erreserbatzeko eskubidea izango dute eta aldi hori kontatu egingo da igogeratarako, hirurtekoetarako eta eskubide pasiboetarako.

Dena den, babes judizialeko jardueretatik ondorioztatzen denean biktimaren babes-eskubidea bermatzeko beharrezkoa dela, hiru hilabeteko aldietan luza daiteke, hemezortzi hilabeteraino gehienez ere, aurreko paragrafoan adierazi bezala postua erreserbatzeko eskubidea, paragrafo horretan adierazten diren baldintza beretan.

3. Emakumeen aurkako indarkeriatikiko eszedentzian dauden emakumezko epaile eta magistratuek, eszedentziaren lehen bi hilabeteetan, ordainsari osoa jasoko dute eta, hala badagokio, baita beren gain duten seme-alaba bakoitzeko familia-prestazioa ere.

4. Emakumeen aurkako indarkeriatikiko eszedentzia-egoera administratioboan sei hilabetez baino gutxiagoz dauden emakumezko epaile eta magistratuak, berriro zerbitzu aktiboan sartzen direnean, lehen betetzen zuten postuari dagokion jurisdikzio-organo berean sartuko dira; baldin eta eszedentzia 6 hilabete baino luzeagoa bada, berriro zerbitzu aktiboan sartzeko, epaile eta magistratuek parte hartu beharko dute beren kategorian postuak betetzeko iragartzen diren lehiaketa guztietan, destinoa eskuratu arte. Parte hartzen ez badute, interes partikularratikiko borondatezko eszedentzian daudela joko da.

361. artikulua

1. Lege honetan ezartzen diren kasuetan eta moduetan deklaratu da epaile edo magistratua funtzio-geldieran, behin-behinekoz edo behin betiko.

2. Funtzio-geldieran deklaratu den epaile edo magistratuak ezin izango ditu bere funtzioak bete geldiera horrek irauten duen aldian.

362. artikulua

1. Behin-behineko funtzio-geldiera erabaki daiteke prozedura judizial edo diziplinazko bat izapidetzen den bitartean.

2. La suspensión provisional durante la tramitación de un procedimiento disciplinario no podrá exceder de seis meses, salvo en caso de paralización del procedimiento por causa imputable al interesado.

Artículo 363

El suspenso provisional tendrá derecho a percibir sus retribuciones básicas, excepto en el caso de paralización del procedimiento disciplinario por causa imputable al mismo, que comportará la pérdida de toda retribución mientras se mantenga dicha paralización. Asimismo, no se acreditará haber alguno en caso de incomparecencia o de rebeldía.

Artículo 364

Cuando la suspensión no sea declarada definitiva ni se acuerde la separación, el tiempo de duración de aquélla se computará como de servicio activo y se acordará la inmediata incorporación del suspenso a su plaza, con reconocimiento de todos los derechos económicos y demás que procedan desde la fecha en que la suspensión produjo efectos.

Artículo 365

1. La suspensión tendrá carácter definitivo cuando se imponga en virtud de condena o como sanción disciplinaria, computándose el tiempo de suspensión provisional.

2. La suspensión definitiva superior a seis meses implicará la pérdida del destino. La vacante producida se cubrirá en forma ordinaria.

3. La suspensión definitiva supondrá la privación de todos los derechos inherentes a la condición de juez o magistrado hasta, en su caso, su reingreso al servicio activo.

4. En tanto no transcurra el plazo de suspensión no procederá cambio alguno de situación administrativa.

Artículo 366

1. El juez o magistrado suspenso definitivamente deberá solicitar el reingreso al servicio activo con un mes de antelación a la finalización del período de suspensión. El reingreso producirá efectos económicos y administrativos desde la fecha de extinción de la responsabilidad penal o disciplinaria.

2. Diziplinazko prozedura bat izapidetzen den bitartean gertatzen den funtzio-geldiera ezin izango da sei hilabete baino gehiagokoa izan, non eta prozedura ez den interesdunari egotz dakiokkeen kausa batengatik geldiarazten.

363. artikulua

Behin-behineko funtzio-geldieran oinarrizko ordainsariak jasotzeko eskubidea izango dute, interesdunari egotz dakiokkeen diziplina-prozedura geldiarazten denean izan ezik; kasu horretan, ordainsari guztia galduko du geldialdi horrek irauten duen artean. Halaber, ez da ordainsaririk emango ez-agertzeen eta auzi-ihesen kasuetan.

364. artikulua

Funtzio-geldiera behin betikotzat jotzen ez denean eta kargutik kentzea erabakitzen ez denean, funtzio-geldieraren iraupena zerbitzu aktibokotzat joko da eta geldieran utzitako pertsona berehala itzuliko da bere postura, eskubide ekonomiko guztiak eta geldiera-dataz geroztik dagozkion bestelako eskubide guztiak onartuta.

365. artikulua

1. Funtzio-geldiera behin betikoa izango da kondena baten ondorioz edo diziplina-zehapen gisa ezartzen denean; halako kasuetan, kontatu egingo da behin behineko funtzio-geldieraren denbora.

2. Behin betiko funtzio-geldiera sei hilabete baino luzeagoa bada, galdu egingo da destinoa. Hutsik gelditutako postua modu arruntean beteko da.

3. Behin betiko funtzio-geldierak epaile- edo magistratu-postuen berezko eskubide guztiak galtzea ekarriko du, harik eta, hala dagokionean, zerbitzu aktiboan berriro sartzen diren arte.

4. Funtzio-geldieraren epea igarotzen ez den bitartean, ez da aldaketarik izango egoera administratiboan.

366. artikulua

1. Behin betiko geldieran utzitako epaile edo magistratuak funtzio-geldieraren aldia bukatu baino hilabete lehenago eskatu behar du zerbitzu aktiboan berriro sartzea. Zerbitzu aktiboan berriro sartzearen efektu ekonomiko eta administratiboak ardura penala edo diziplinazkoa iraungitzen den datatik hasiko dira.

2. Si no fuera solicitado el reingreso en el tiempo señalado en el apartado anterior, se le declarará en situación de excedencia voluntaria por interés particular, con efectos desde la fecha en que finalizare el período de suspensión.

Artículo 367

1. El reingreso en el servicio activo de los suspensos exigirá la previa declaración de aptitud por el Consejo General del Poder Judicial, quien recabará los informes y practicará las actuaciones necesarias para su comprobación.

2. Tras la declaración de aptitud, el juez o magistrado vendrá obligado a participar en todos los concursos que se anuncien para cubrir plazas de su categoría hasta obtener destino. De no hacer lo así, se le declarará en situación de excedencia voluntaria por interés particular, quedando sin efecto la declaración de aptitud.

Artículo 368

La concurrencia de peticiones para la adjudicación de vacantes entre quienes deban reingresar al servicio activo, se regirá por el siguiente orden:

- a) Suspensos.
- b) Rehabilitados.
- c) Excedentes voluntarios.

Artículo 369

El cambio de la situación administrativa en que se hallen los jueces o magistrados podrá tener lugar siempre que se reúnan los requisitos exigidos en cada caso sin necesidad de reingreso al servicio activo.

CAPÍTULO VIII

De las licencias y permisos

Artículo 370

(Suprimido por la Ley 3/2007).

2. Berrito sartzea ez baldin bada aurreko atalean adierazitako epean eskatzen, interes partikularragatiko borondatezko eszedentzia-egoeran daudela joko da, funtzio-geldieraren aldia bukatzen den datatik hasita.

367. artikulua

1. Geldieran utzitako pertsonak zerbitzu aktiboan berrito sartu ahal izateko, gaitasun-deklarazioa egin behar du Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak, gaitasun hori egiaztatzeko behar diren txostenak bilduta eta behar diren jarduerak eginda.

2. Gaitasun-deklarazioa eskuratu ondoren, epaile edo magistratuak parte hartu beharko du bere kategoriako postuak hornitzeko iragartzen diren lehia-keta guztietan, destinoa lortu arte. Parte hartzen ez badu, interes partikularragatiko borondatezko eszedentzian dagoela joko da, eta baliorik gabe geldituko da gaitasun-deklarazioa.

368. artikulua

Zerbitzu aktiboan sartu behar duten pertsonen artean postu hutsak esleitzeko eskaeretan, ordena honi jarraituko zaio:

- a) Geldieran utzitakoak.
- b) Birgaituak.
- c) Borondatezko eszedentzian direnak.

369. artikulua

Epaile edo magistratuak dauden egoera administratiboa aldatu ahal izango da, zerbitzu aktiboan berrito sartu beharrik izan gabe, betetzen badituzte kasu bakoitzean eskatzen diren baldintzak.

VIII. KAPITULUA

Lizentziak eta baimenak

370. artikulua

(3/2007 Legeak ezabatua).

Artículo 371

1. Los jueces y magistrados tendrán derecho a disfrutar, durante cada año natural, de unas vacaciones retribuidas de veintidós días hábiles, o de los días que correspondan proporcionalmente si el tiempo de servicio durante el año fue menor.

A los efectos de lo previsto en el presente artículo, no se considerarán como días hábiles los sábados.

2. Los Presidentes de Sala y Magistrados del Tribunal Supremo y del resto de los Tribunales disfrutarán del permiso de vacaciones durante el mes de agosto; se exceptúan aquellos a quienes corresponda formar la Sala prevista en los artículos 61 y 180 de esta Ley.

Artículo 372

El permiso anual de vacaciones podrá denegarse para el tiempo en que se solicite cuando por los asuntos pendientes en un Juzgado o Tribunal, por la acumulación de peticiones de licencias en el territorio o por otras circunstancias excepcionales, pudiera perjudicarse el regular funcionamiento de la Administración de Justicia.

Artículo 373

1. Los jueces y magistrados tendrán derecho a licencias por razón de matrimonio de 15 días de duración.

2. También tendrán derecho a una licencia en caso de parto, adopción y acogimiento tanto preadoptivo como permanente, cuya duración y condiciones se regularán por la legislación general en esta materia. El Consejo General del Poder Judicial, mediante reglamento, adaptará dicha normativa a las particularidades de la carrera judicial.

En los supuestos de adopción internacional, cuando sea necesario el desplazamiento previo de los padres al país de origen del adoptado, el permiso previsto en este artículo podrá iniciarse hasta cuatro semanas antes de la resolución por la que se constituye la adopción.

3. Tendrán también derecho a licencia para realizar estudios relacionados con la función judicial, previo informe favorable del Presidente del Tribunal correspondiente, que tendrá en cuenta las necesidades del servicio.

Finalizada la licencia, se elevará al Consejo General del Poder Judicial memoria de los trabajos realizados, y si su contenido no fuera bastante para justi-

371. artikulua

1. Epaille eta magistratuek eskubidea izango dute urte natural bakoitzean hogeita bi egun balioduneko opor ordainduak izateko, edo, zerbitzualdia urtebete baino gutxiagokoa izan bada, proportzioan dagozkion egunak.

Artikulu honetan xedatutakorako, larunbatak ez dira egun balioduntzat hartuko.

2. Auzitegi Goreneko eta gainerako auzitegieko sala-presidente eta magistratuek abuztuan izango dute opor-baimena; salbuespen dira lege honen 61. eta 180. artikuluetan aurreikusitako sala eratzea egokitzen zaienak.

372. artikulua

Urteko oporraldia ukatu ahalko da eskatzen den aldirako, baldin eta kalte egiten badiezaioke justizia-administrazioaren funtzionamendu erregularrari, epaitegi edo auzitegian egiteke dauden gaiengatik, lurraldean lizentzia-eskaerak pilatzeagatik edo bestelako salbuespen-egoerengatik.

373. artikulua

1. Epaille eta magistratuek 15 eguneko lizentzia jasotzeko eskubidea dute ezkontzeagatik.

2. Halaber, lizentzia jasotzeko eskubidea izango dute erditzearen, adopzioaren eta harrera adopzio-aurrekoaren nahiz iraunkorraren kasuan. Gai horretako legeria orokorrak araututako iraupena eta baldintzak izango ditu lizentzia horrek. Arau horiek karrera judizialaren berezitasunetara egokituko ditu Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak, erregelamendu bidez.

Nazioarteko adopzioaren kasuan, beharrezko baldin bada gurasoak aurrez joatea adoptatuaren jatorrizko herrialdera, artikulu honetan xedatutako baimena hasi ahal izango da adopzioa eratzen duen ebazpena baino lau aste lehenago ere.

3. Halaber, lizentzia jasotzeko eskubidea izango dute funtzio judizialari loturiko ikerketak gauatzeko, alde zurretik dagokion auzitegiko presidentek aldeko txostena eman badu, zerbitzuaren beharrak kontuan hartuta.

Lizentzia amaitutakoan, egindako lanen memoria helaraziko zaio Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiarri, eta, memoriaren edukia ez baldin bada lizen-

ficarla, se compensará la licencia con el tiempo que se determine de las vacaciones del interesado.

4. También podrán disfrutar de hasta cinco días de permiso en el año natural, separada o acumuladamente. Los superiores respectivos solo podrán denegarlos por necesidad del servicio.

El Consejo General, valorando dicho informe y todos los antecedentes de que disponga o estime necesario recabar, decidirá si procede o no utilizar la aplicación del régimen extraordinario de provisión regulado en este Título, comunicando su decisión a la Sala de Gobierno correspondiente.

Artículo 431

1. Cuando se autorizare este régimen de provisión, la Sala de Gobierno del Tribunal Superior de Justicia anunciará concurso de todas las vacantes a cubrir por este medio dentro de la Comunidad Autónoma, en el que sólo podrán tomar parte aquellos licenciados en Derecho que soliciten una, varias o todas las plazas convocadas y que reúnan los demás requisitos exigidos para el ingreso en la Carrera Judicial, excepto los derivados de la jubilación por edad. No podrá ser propuesto ni actuar como Juez en régimen de provisión temporal quien haya alcanzado la edad de setenta y dos años.

IV. TITULUA

ALDI BATERAKO HORNIDURA-ARAUBIDENKO EPAILEAK

428. artikulua

1. Aldi baterako hornidura-araubidean bete ahal izango dira lehiaketetan esleitu gabe geratzen diren epaile-postu hutsak, harik eta ohiko prozedurekin betetzen diren arte.

2. Postu huts guztiak sartu behar dira oposizio-deialdian, aldi baterako hornidurako epaileek betetzen dituztenak barne. Aldi baterakoak urtean behin iragarri behar dira, gutxienez, lekualdatze-lehiaketetan.

429. artikulua

Justizia-auzitegi nagusietako gobernu-salek aztertuko dute ea jurisdikzio-organo hutsak egoki bete daitezkeen ordezkapen bidez, jurisdikzio-luzapen edo zerbitzu-eginkizun bidez, edo horiek ez ote diren nahikoa funtzionamendu erregularra bermatzeko. Bigarren kasu horretan, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari helaraziko zaio aldi baterako berehala hornitu beharreko epaitegien zerrenda, behar hori justifikatzen duen txosten arrazoituarekin batera.

430. artikulua

Kontseilu Nagusiak, kontuan harturik txosten hori eta orobat bere esku dituen edo bilatu beharrekotzat jotzen dituen aurrekari guztiak, erabakiko du ea titulu honetan arautzen den ohiz kanpoko hornidura-araubidea aplikatzea dagokion ala ez, eta dagokion gobernu-salari jakinaraziko dio erabakia.

431. artikulua

1. Hornidura-araubide hori baimentzen denean, justizia-auzitegi nagusiko gobernu-salak autonomia-erkidegoan bide horretatik bete beharreko postu huts guztien lehiaketa iragarriko du. Lehiaketa horretan, soil-soilik parte hartu ahal izango dute deitzen diren postuetako bat, batzuk edo guztiak eskatzen dituzten eta karrera judizialean sartzeko eskatzen diren gainerako baldintza guztiak —adinagatiko erretiratzeari loturikoak izan ezin— betetzen dituzten zuzenbide-lizentziadunek. Ezin proposatuko da, eta ezin jardungo du aldi baterako hornidura-araubidean epaile gisa, hirurogeita hamabi urte beteak dituenik.

2. Tendrán preferencia aquellos en quienes concurren más méritos de acuerdo al baremo siguiente, siempre que no concurren otras circunstancias que comporten su falta de idoneidad:

a) Los que ostenten el título de Doctor en Derecho.

b) Los que hayan ejercido funciones judiciales, de Secretarios Judiciales o de sustitución en la Carrera Fiscal con aptitud demostrada o ejercido otras profesiones jurídicas.

c) Los que hubieran aprobado oposiciones para el desempeño de puestos de trabajo en cualquier Administración Pública en las que se exija el título de licenciado en Derecho.

d) Los que acrediten docencia universitaria de disciplina jurídica.

e) Los que tengan mejor expediente académico.

f) En las Comunidades Autónomas con derecho o con lengua y derecho propios su conocimiento se considerará como mérito.

Los anteriores méritos serán valorados de forma que ninguno de ellos, por sí solo, pueda superar la valoración conjunta de otros dos.

3. De los nombramientos efectuados se dará cuenta al Consejo General, que los dejará sin efecto si no se ajustaren a la ley.

Artículo 432

1. Los nombrados Jueces con carácter temporal quedarán sujetos, durante el tiempo en que desempeñaren dichos cargos, al estatuto jurídico de los miembros de la Carrera Judicial y tendrán derecho a percibir las remuneraciones que reglamentariamente se señalen por el Gobierno dentro de las previsiones presupuestarias.

2. Los nombramientos se harán por un año, que podrá prorrogarse por otro más, con arreglo al mismo procedimiento, salvo lo previsto en la letra e) del apartado 1 del artículo siguiente.

Artículo 433

1. Quienes ocuparen plazas judiciales en régimen de provisión temporal cesarán:

a) Por transcurso de plazo para el que fueron nombrados.

2. Lehentasuna izango dute ondorengo baremoaren arabera merezimendu gehien biltzen dutenek, ez badago egokitasunik eza dakarren bestelako inguruabarrik:

a) Zuzenbideko doktorearen titulua dutenek.

b) Zeregin judizialean, idazkari judizial gisa edo karrera fiskalean ordezkari gisa gaitasun frogatuarekin jardun dutenek edo beste lanbide juridiko batzuetan jardun dutenek.

c) Zuzenbideko lizentziadunaren titulua eskatzen den administrazio publiko edozein postu betetzeko oposizioak gainditu dituztenek.

d) Diziplina juridikoren baten unibertsitate-irakaskuntzan jardun izana akreditatzen dutenek.

e) Espediente akademiko hoberena dutenek.

f) Berezko zuzenbidea edo berezko hizkuntza eta zuzenbidea dituzten autonomia-erkidegoetan, merezimenduztat joko da haiek jakitea.

Aurreko merezimenduak balioestean, kontuan hartuko da haietako bakar batek ere ez dezala gainditu beste biren balioespen bateratua.

3. Egindako izendapenen berri emango zaio Kontseilu Nagusiari, eta hark baliogabetu egingo ditu ez badatoz legearekin bat.

432. artikulua

1. Aldi baterako epaile izendatzen direnak, kargu horiek betetzen dituzten denboran, karrera judizialeko kideen estatutu juridikoari atxikita geratuko dira, eta eskubidea izango dute Gobernuak erregelamenduz aurrekontu-aurreikuspenetan jartzen dituen ordainsariak jasotzeko.

2. Izendapenak urtebeterako egingo dira, beste urtebetez luzatzeko moduan, prozedura beraren arabera, salbu eta hurrengo artikulua 1. zenbakiko e) letran jasotako kasuan.

433. artikulua

1. Aldi baterako hornidura-araubidean postu judizialak betetzen dituztenak kargugabetu egingo dira:

a) Haien izendapen-epea igarotzeagatik.

b) Por dimisión, aceptada por la Sala de Gobierno que los nombró.

c) Por cumplir la edad de setenta y dos años.

d) Por decisión de dicha Sala, cuando incurrieren en alguna de las causas de incapacidad, incompatibilidad o prohibición establecida en esta Ley, previa una sumaria información con audiencia del interesado y del Ministerio Fiscal.

e) Por acuerdo de aquélla, cuando se advirtiere en ellos falta de aptitud o idoneidad para el ejercicio de cargo y cuando dejaren de atender diligentemente los deberes de éste con las mismas garantías en cuanto a procedimiento establecidas en la letra anterior.

f) Cuando fuere nombrado un Juez titular para la plaza servida en régimen de provisión temporal.

2. Los ceses, cualquiera que fuere la causa que los determine, se comunicarán al Consejo General del Poder Judicial.

TÍTULO V

DE LA FORMACIÓN CONTINUA DE LOS JUECES Y MAGISTRADOS

Artículo 433 bis

1. El Consejo General del Poder Judicial garantizará que todos los Jueces y Magistrados reciban una formación continuada, individualizada, especializada y de alta calidad durante toda su carrera profesional.

2. El Consejo General del Poder Judicial establecerá reglamentariamente un Plan de Formación Continuada de la Carrera Judicial en el que se detallarán los objetivos, contenidos, prioridades formativas y la programación plurianual de estas actuaciones.

3. Cada miembro de la Carrera Judicial contará con un Plan Especializado en Formación Continuada mediante el cual se programarán de forma individualizada, en períodos de cinco años, los objetivos formativos, garantizándose la plena adaptación a las innovaciones jurídicas con incidencia en el ejercicio de sus funciones jurisdiccionales.

El cumplimiento de los objetivos del Plan Especializado de Formación de cada uno de los jueces y magistrados será evaluado por el Consejo General del

b) Dimisioagatik, izendatu dituen gobernu-salask dimisioa onartuta.

c) Hirurogeita hamabi urte betetzeagatik.

d) Gobernu-salaren erabakiz, lege honetan ezartzen diren ezintasun-, batezintasun- edo debeku-kausetakoren bat gertatzen denean, aurretik informazio labur bat emanda eta interesdunari eta Fiskaltzari entzunda.

e) Salaren erabakiz, ikusten bada kargua betetzeko gaitasun edo egokitasunik ez dutela eta uzten badiote karguko betekizunak arduraz betetzeari; aurreko letran prozedurari buruz ezartzen diren berme berak izango dira kasu honetan ere.

f) Aldi baterako araubidean betetzen ari zen posturako epaile titular bat izendatzen denean.

2. Kargugabetzeak, edozein izanik ere hartarako kausa, jakinarazi egin behar zaizkio Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari.

V. TITULUA

EPAILE ETA MAGISTRATUEN ETENGABEKO PRESTAKUNTZA

433 bis artikulua

1. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak bermatuko du epaile eta magistratu guztiek jasoko dutela, beren karrera profesional guztian zehar, prestakuntza jarraitua, norberaren araberakoa, espezializatua eta kalitate handikoa.

2. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak arau bidez ezarriko du Karrera Judizialeko Etengabeko Prestakuntzarako Plana, eta hartan zehaztuko ditu jarduera horien helburuak, edukiak, prestakuntza-lehentasunak eta urte batzuetarako programazioa.

3. Karrera Judizialeko kide bakoitzak etengabeko prestakuntzako plan berezitu bat izango du; haren bidez programatuko dira, bost urteko aldietan, norberaren araberako prestakuntza-helburuak, osotara bermatuz egokituta daudela jurisdikzio-funtzioetan eragina duten berrikuntza juridikoetara.

Epaile eta magistratu bakoitzaren prestakuntzako plan berezituaren helburuak betetzen diren ebaluatuko du Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak,

Poder Judicial en la forma reglamentariamente establecida, a efectos de ascensos y promoción profesional.

4. La Escuela Judicial desarrollará los programas e impartirá los cursos de formación que integren el Plan de Formación Continuada de la Carrera Judicial, pudiendo, por ello, celebrar actividades formativas de manera descentralizada, en el ámbito autonómico o provincial, y mediante colaboración, en su caso, con entidades y organismos expertos en la impartición de la formación de que se trate.

5. El Plan de Formación Continuada de la Carrera Judicial contemplará la formación de los Jueces y Magistrados en el principio de igualdad entre mujeres y hombres y la perspectiva de género.

La Escuela Judicial impartirá anualmente cursos de formación sobre la tutela jurisdiccional del principio de igualdad entre mujeres y hombres y la violencia de género.

TÍTULO VI

DEL CENTRO DE ESTUDIOS JURÍDICOS DE LA ADMINISTRACIÓN DE JUSTICIA

Artículo 434

1. El Centro de Estudios Jurídicos de la Administración de Justicia es una entidad de Derecho público con personalidad jurídica propia dependiente del Ministerio de Justicia.

2. Tendrá como función la colaboración con el Ministerio de Justicia en la selección, formación inicial y continuada de los miembros de la Carrera Fiscal, del Secretariado y demás personal al servicio de la Administración de Justicia.

El Centro de Estudios Jurídicos impartirá anualmente cursos de formación sobre el principio de igualdad entre mujeres y hombres y su aplicación con carácter transversal por los miembros de la Carrera Fiscal, el Cuerpo de Secretarios y demás personal al servicio de la Administración de Justicia, así como sobre la detección y el tratamiento de situaciones de violencia de género.

erregelamenduz ezartzen den moduan, igoeren eta sustapen profesionalaren ondorioetarako.

4. Eskola Judizialak garatuko ditu Karrera Judizialeko Etengabeko Prestakuntzako Planaren programak, eta berak emango ditu hura osatzen duten prestakuntza-ikastaroak. Aukera izango du prestakuntza-jarduerak modu deszentralizatuan egiteko, autonomia-erkidegoen edo probintzien esparruan, eta lankidetzan aritzeko, hala badagokio, prestakuntza-jarduera bakoitzean adituak diren erakunde eta organismoekin.

5. Gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren printzipioan epaile eta magistratuei prestakuntza ematea eta genero-ikuspegia jaso behar ditu Karrera Judizialeko Etengabeko Prestakuntzako Planak.

Eskola Judizialak prestakuntza-ikastaroak eskainiko ditu, urtero, gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren printzipioaren eta genero-indarkeriaren jurisdikzio-babesari buruz.

VI. TITULUA

JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAREN IKASKETA JURIDIKOETARAKO ZENTROA

434. artikulua

1. Justizia Administrazioaren Ikasketa Juridikoetarako Zentroa bere nortasun juridikoa duen zuzenbide publikoko erakunde bat da, Justizia Ministerioaren mendekoa.

2. Zentroaren eginkizuna hau da: Justizia Ministerioarekin lankidetzan aritzea karrera fiskaleko eta idazkaritzako kideen eta Justizia Administrazioaren zerbitzuko gainerako langileen aukeraketan, hasierako prestakuntzan eta eten gabeko prestakuntzan.

Ikasketa Juridikoetarako Zentroak prestakuntza-ikastaroak eskainiko ditu, urtero, gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren printzipioari buruz eta hori karrera fiskaleko, idazkarien kidegoko eta Justizia Administrazioaren zerbitzuko gainerako langileek zeharkakotasunez aplikatzeari buruz, eta orobat genero-indarkeriako egoerak hautemateari eta tratatzeari buruz.

3. Reglamentariamente se establecerá la organización del Centro y designación del personal directivo. Asimismo, se establecerán las relaciones permanentes del Centro con los órganos competentes de las Comunidades Autónomas.

LIBRO V

DE LOS SECRETARIOS JUDICIALES Y DE LA OFICINA JUDICIAL

TÍTULO I

RÉGIMEN DE ORGANIZACIÓN Y FUNCIONAMIENTO DE LA ADMINISTRACIÓN AL SERVICIO DE JUECES Y TRIBUNALES

CAPÍTULO I

De la oficina judicial

Artículo 435

1. La Oficina judicial es la organización de carácter instrumental que sirve de soporte y apoyo a la actividad jurisdiccional de jueces y tribunales.

2. La estructura básica de la Oficina judicial, que será homogénea en todo el territorio nacional como consecuencia del carácter único del Poder al que sirve, estará basada en los principios de jerarquía, división de funciones y coordinación.

3. La Oficina judicial funcionará con criterios de agilidad, eficacia, eficiencia, racionalización del trabajo, responsabilidad por la gestión, coordinación y cooperación entre Administraciones, de manera que los ciudadanos obtengan un servicio próximo y de calidad, con respeto a los principios recogidos en la Carta de Derechos de los ciudadanos ante la Justicia.

4. Los puestos de trabajo de la Oficina judicial sólo podrán ser cubiertos por personal de los Cuerpos de funcionarios al servicio de la Administración de Justicia, y se ordenarán de acuerdo con lo establecido en las relaciones de puestos de trabajo.

3. Zentroaren antolaketa eta zuzendaritzako langileen izendapena erregelamenduz arautuko da. Halaber arautuko da zer harreman iraunkor izango duen zentroak autonomia-erkidegoetako organo eskudunekin.

V. LIBURUA

IDAZKARI JUDIZIALAK ETA BULEGO JUDIZIALA

I. TITULUA

EPAILE ETA AUZITEGIEN ZERBITZUKO ADMINISTRAZIOAREN ANTOLAMENDU- ETA FUNTZIONAMENDU-ARAUBIDEA

I. KAPITULUA

Bulego judiziala

435. artikulua

1. Bulego judiziala epaile eta auzitegien jurisdikzio-jarduerari eusteko eta laguntzeko lanabes-antolakundea da.

2. Hierarkia, funtzio-banaketa eta koordinazioa izango ditu printzipiotzat bulego judizialaren oinarritzko egiturak, eta homogenea izango da egitura hori nazio-lurralde osoan, bakarra denez zerbitzatzen duen boterea.

3. Bulego judizialaren jardun-irizpideak arintasuna, eraginkortasuna, eragimena, lana arrazionalizatzea, kudeaketaren erantzukizuna, administrazioen arteko koordinazioa eta lankidetzeta izango dira, hartara zerbitzu hurbila eta kalitatekoa erdiets dezaten herritarrek, Justiziaren aurrean dagozkien Eskubideen Gutunean jasotako printzipioen arabera.

4. Bulego judizialeko lanpostuak Justizia Administrazioaren zerbitzuko funtzionario-kidegoetako enplegatuek baino ezin beteko dituzte, eta lanpostu-zerrendetan ezarritakoaren arabera antolatuko dira.

Artículo 436

1. El elemento organizativo básico de la estructura de la Oficina judicial será la unidad, que comprenderá los puestos de trabajo de la misma, vinculados funcionalmente por razón de sus cometidos.

2. En atención a sus funciones se distinguirán dos tipos de unidades: unidades procesales de apoyo directo y servicios comunes procesales. La actividad principal de estas unidades viene determinada por la aplicación de normas procesales.

3. El diseño de la Oficina judicial será flexible. Su dimensión y organización se determinarán, por la Administración pública competente, en función de la actividad que en la misma se desarrolle.

4. La Oficina judicial podrá prestar su apoyo a órganos de ámbito nacional, de comunidad autónoma, provincial, de partido judicial o de municipio, extendiéndose su ámbito competencial al de los órganos a los que presta su apoyo. Su ámbito competencial también podrá ser comarcal.

5. Las unidades que componen la Oficina judicial podrán desempeñar sus funciones al servicio de órganos de una misma jurisdicción, de varias jurisdicciones o a órganos especializados, sin que, en ningún caso, el ámbito de la Oficina judicial, pueda modificar el número y composición de los órganos judiciales que constituyen la planta judicial ni la circunscripción territorial de los mismos establecida por la ley.

6. Los jueces y magistrados, en las causas cuyo conocimiento tengan atribuido, podrán requerir en todo momento al funcionario responsable cuanta información consideren necesaria.

Artículo 437

1. A los efectos de esta ley orgánica se entiende por unidad procesal de apoyo directo aquella unidad de la Oficina judicial que directamente asiste a jueces y magistrados en el ejercicio de las funciones que les son propias, realizando las actuaciones necesarias para el exacto y eficaz cumplimiento de cuantas resoluciones dicten.

2. Existirán tantas unidades procesales de apoyo directo como juzgados, o en su caso, salas o secciones de tribunales estén creados y en funcionamiento, integrando junto a sus titulares el respectivo órgano judicial.

3. Las unidades procesales de apoyo directo contarán con un secretario judicial que ejercerá las competencias y funciones que le son propias. Por moti-

436. artikulua

1. Bulego judizialaren egituran, unitatea izango da oinarrizko antolamendu-elementua. Beren egitekoengatik elkarri funtzionalki loturik dauden bulegoko lanpostuek osatuko dute unitatea.

2. Bi unitate mota bereiziko dira, funtzioen arabera: zuzeneko laguntza emateko unitate prozesalak, eta zerbitzu erkide prozesalak. Arau prozesalak aplikatzea da unitateon jarduera nagusia.

3. Diseinu malgua izango dute bulego judizialek. Bakoitzaren neurria, eta orobat antolamendua, haren jardueraren arabera erabakiko du horretarako eskumena duen administrazio publikoak.

4. Bulego judizialak, lurralde-eremuari dagokionez, laguntza eman diezaieke nazio osoko, autonomia-erkidego bateko, probintzia bateko, barruti judizial bateko edo udalerrri bateko organoei, eta laguntzen dituen organoen eskumen-eremu bera izango du. Eskualdea ere izan dezake eskumen-eremu.

5. Jurisdikzio bereko organoen, jurisdikzio bat baino gehiagotako organoen edo organo espezializatuen zerbitzuan jardun dezakete bulego judizialeko unitateek; bulego judizialaren eremua dela-eta ezin aldatuko da, ezein kasutan, ez planta judiziala osatzen duten organo judizialen kopurua eta osaera, ez legeak haientzat ezarritako lurralde-barrutia.

6. Beren ardurapeko auzietan behar duten informazio guztia galdatu ahal izango diote epaile eta magistratuek, noiznahi, dagokion funtzionarioari.

437. artikulua

1. Lege organiko honetarako, zuzeneko laguntza emateko unitate prozesala zera da: bulego judizialean epaile eta magistratuei berenak dituzten funtzioetan zuzeneko laguntza ematen dien unitatea, haien ebazpen oro modu zehatz eta eraginkorrean betetzeko behar diren jarduerak giten dituen.

2. Eratuta dauden eta jardunean ari diren epaitegi, auzitegi-sala edo auzitegi-atalak bezainbeste izango dira zuzeneko laguntza emateko unitate prozesalak, eta haien titularrekin batera dagokion organo judiziala osatuko dute.

3. Zuzeneko laguntza emateko unitate prozesal bakoitzean idazkari judizial bat izango da, dagokion eskumen eta funtzioak betetzeko. Zerbitzuari an-

vos de racionalización del servicio, un mismo secretario judicial podrá actuar en más de una de estas unidades.

4. Cada unidad contará, además, con los puestos de trabajo necesarios para la atención del órgano de que se trate, de acuerdo con el orden jurisdiccional al que pertenezca, que se determinarán en las respectivas relaciones de puestos de trabajo.

5. El Ministerio de Justicia, previo informe del Consejo General del Poder Judicial y de las comunidades autónomas con competencias asumidas, determinará las dotaciones básicas de estas unidades procesales de apoyo directo, que garantizarán, en todo caso, el correcto funcionamiento del órgano jurisdiccional.

Artículo 438

1. A los efectos de esta ley, se entiende por servicio común procesal, toda aquella unidad de la Oficina judicial que, sin estar integrada en un órgano judicial concreto, asume labores centralizadas de gestión y apoyo en actuaciones derivadas de la aplicación de las leyes procesales.

2. Prestarán su apoyo a todos o a alguno de los órganos judiciales de su ámbito territorial, con independencia del orden jurisdiccional al que pertenezcan y la extensión de su jurisdicción.

3. El Ministerio de Justicia y las comunidades autónomas en sus respectivos territorios serán competentes para el diseño, creación y organización de los servicios comunes procesales, con funciones de registro y reparto, actos de comunicación, auxilio judicial, ejecución de resoluciones judiciales y jurisdicción voluntaria. Las Salas de gobierno y las Juntas de jueces podrán solicitar al Ministerio y a las comunidades autónomas la creación de servicios comunes, conforme a las específicas necesidades.

Asimismo, podrán crear servicios comunes procesales que asuman la ordenación del procedimiento u otras funciones distintas a las relacionadas en este número, en cuyo caso, será preciso el informe favorable del Consejo General del Poder Judicial.

4. En razón de la actividad concreta que realicen, los servicios comunes procesales, podrán estructurarse en secciones, a las que se dotará de los correspondientes puestos de trabajo y éstas, a su vez, si el servicio lo requiere, en equipos.

5. Al frente de cada servicio común procesal constituido en el seno de la Oficina judicial habrá un secretario judicial, de quien dependerán funcional-

tolaera zentzuzkoagoa ematearren, unitate batean baino gehiagotan ere jardun ahal izango du idazkari judicial berak.

4. Unitate bakoitzak dagokion organoari zerbitzua emateko behar dituen lanpostuak izango ditu, organoaren jurisdikzio-ordenaren arabera; kasuan kasuko lanpostu-zerrendetan zehaztuko dira lanpostu horiek.

5. Justizia Ministerioak zehaztuko du, aurrez Botere Judicialaren Kontseilu Nagusiak eta eskumenak berenganatuak dituzten autonomia-erkidegoek txostena emanik, zer oinarrizko hornidura behar duten zuzeneko laguntza emateko unitate prozesalek; edozein kasutan, jurisdikzio-organoren jardun egokia bermatzeko adinakoa izan beharko dute.

438. artikulua

1. Lege honetarako, zerbitzu erkide prozesala zera da: organo judicial jakin batean integratu egon gabe, lege prozesalak aplikatzeak dakartzan jarduketan kudeaketa- eta laguntza-zeregin zentralizatuak betetzen dituen bulego judicialerako unitate oro.

2. Zerbitzu erkide prozesalek beren lurralde-eremuko organo judicial guztiei edo bakarren bati emango diete laguntza, edozein dela ere organoon jurisdikzio-ordena eta jurisdikzioaren hedadura.

3. Justizia Ministerioa eta autonomia-erkidegoak, bakoitza beren lurraldean, eskudun izango dira zerbitzu erkide prozesalak diseinatu, sortu eta antolatzeke, funtzio hauetarako: erregistroa eta banaketa, komunikazio-egintzak, sorospen judiciala, ebazpen judicialen exekuzioa eta borondatezko jurisdikzioa. Gobernu-salek eta epaile-juntek zerbitzu erkideak sortzeko eskatu ahal izango diete Ministerioari eta autonomia-erkidegoei, dituzten behar zehatzen arabera.

Orobat sortu ahal izango dituzte prozedura antolatzeke edo zenbaki honetan adierazitakoez bestelako funtzioetarako zerbitzu erkide prozesalak; kasu horretan, aldeko irizpena eman beharko du Botere Judicialaren Kontseilu Nagusiak.

4. Zerbitzu erkide prozesalak, bakoitzaren jardueraren arabera, ataletan egituratu ahal izango dira; atalok lanpostuz hornituko dira, eta, zerbitzuak hala eskatzen badu, ekipotan antolatuko.

5. Bulego judicialaren barrenean eraturako zerbitzu erkide prozesal bakoitzaren buru, idazkari judicial bat izango da, eta haren mende egongo dira

mente el resto de los secretarios judiciales y el personal destinado en los puestos de trabajo en que se ordene el servicio de que se trate y que, en todo caso, deberá ser suficiente y adecuado a las funciones que tiene asignado el mismo.

En aquellos partidos judiciales en que el escaso número de órganos judiciales lo aconseje, el mismo Secretario Judicial de la unidad procesal de apoyo directo podrá estar al frente de los servicios comunes procesales que se constituyan con las funciones relacionadas en el apartado 3 de este artículo.

6. El secretario judicial que dirija un servicio común procesal deberá hacer cumplir, en el ámbito organizativo y funcional que le es propio, las órdenes y circulares que reciba de sus superiores jerárquicos. En el ámbito jurisdiccional, responderán del estricto cumplimiento de cuantas actuaciones o decisiones adopten jueces o tribunales en el ejercicio de sus competencias.

7. El Consejo General del Poder Judicial podrá establecer criterios generales que permitan la homogeneidad en las actuaciones de los servicios comunes procesales de la misma clase en todo el territorio nacional que, en ningún caso, podrán incidir en el ejercicio de la función jurisdiccional o en las competencias de las Administraciones públicas en el ámbito de la Administración de Justicia.

CAPÍTULO II

De las unidades administrativas

Artículo 439

1. A los efectos de esta ley, se entiende por unidad administrativa aquella que, sin estar integrada en la Oficina judicial, se constituye en el ámbito de la organización de la Administración de Justicia para la jefatura, ordenación y gestión de los recursos humanos de la Oficina judicial sobre los que se tienen competencias, así como sobre los medios informáticos, nuevas tecnologías y demás medios materiales.

Asimismo, dentro de dichas unidades, el Ministerio de Justicia y las comunidades autónomas en sus respectivos ámbitos, podrán establecer oficinas comunes de apoyo a una o varias oficinas judiciales, para la prestación de servicios, cuya naturaleza no exija la realización de funciones encomendadas como propias por esta ley orgánica a los funcionarios de los Cuerpos de la Administración de Justicia y que se consideren necesarios o convenientes para el buen funcionamiento de las mismas.

funtzionalki gainerako idazkari judizialak eta dagokion zerbitzuko lanpostuetako enpleguak, zerbitzuari dagozkion funtzioetarako aski eta egokiak bere.

Barruti judizial batean organo judizial gutxi badira, zuzeneko laguntza emateko unitate prozesaleko idazkari judizial bera izan daiteke buru artikulua honen 3. zenbakian zerrendaturiko eginkizunetarako erabiltzen diren zerbitzu erkide prozesalean.

6. Zerbitzu erkide prozesal bat zuzentzen duen idazkari judizialari dagokio nagusi hierarkikoengandik jasotako agindu eta zirkularrak betearaztea, berari dagokion antolaketa- eta funtzio-eremuan. Jurisdikzio-eremuari dagokionez, haren erantzukizuna izango da epaile nahiz auzitegiek beren eskumenaz baliaturik abiatutako jarduketak eta hartutako erabakiak zorrotz betetzea.

7. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak irizpide orokor batzuk ezarri ahal izango ditu klase bereko zerbitzu erkide prozesalen jarduketak homogeneoak izan daitezen nazio-lurralde osoan. Irizpide orokor horiek ez diete eragingo, ezin kasutan, ez jurisdikzio-funtzioa betetzeari, ez administrazio publikoek Justizia Administrazioaren esparruan dituzten eskumenei.

II. KAPITULUA

Administrazio-unitateak

439. artikulua

1. Lege honetarako, administrazio-unitatea zera da: Justizia Administrazioaren antolamendu-esparruan baina bulego judizialean integratu gabe eratutako unitatea, bere gain dituen bulego judizialaren eskumeneko giza baliabideen buruzagitza, antolaketa eta kudeaketa, eta orobat informatika-baliabide, teknologia berri eta gainerako baliabide materialena.

Unitate horien barruan, Justizia Ministerioak eta autonomia-erkidegoek, bakoitzak bere esparruan, bulego judizial baten edo batzuen laguntzarako bulego erkideak jarri ahal izango dituzte, bulego judizialek egoki funtzionatzeko beharrezko edo komenigarri irizitako zenbait zerbitzu emateko; ez, ordea, lege organiko honek Justizia Administrazioako Kidegoetako funtzionarioei propioztat esleitutako funtzioak betetzea dakarren zerbitzurik.

2. Corresponde a cada Administración en su propio ámbito territorial, el diseño, la creación y organización de las unidades administrativas necesarias y de las oficinas comunes de apoyo, la determinación de su forma de integración en la Administración pública de que se trate, su ámbito de actuación, dependencia jerárquica, establecimiento de los puestos de trabajo, así como la dotación de los créditos necesarios para su puesta en marcha y funcionamiento.

3. Los puestos de trabajo de estas unidades Administrativas, cuya determinación corresponderá al Ministerio de Justicia y a las comunidades autónomas con competencias asumidas, en sus respectivos ámbitos, podrán ser cubiertos con personal de los Cuerpos de funcionarios al servicio de la Administración de Justicia, de la Administración del Estado y de las comunidades autónomas que reúnan los requisitos y condiciones establecidas en la respectiva relación de puestos de trabajo.

4. Los funcionarios que prestan sus servicios en las oficinas judiciales, a excepción de los Secretarios Judiciales, sin perjuicio de su dependencia funcional, dependen orgánicamente del Ministerio de Justicia o de las comunidades autónomas con competencias asumidas en sus respectivos ámbitos.

TÍTULO II

DEL CUERPO DE LOS SECRETARIOS JUDICIALES

CAPÍTULO I

Estatuto personal

Artículo 440

Los secretarios judiciales son funcionarios públicos que constituyen un Cuerpo Superior Jurídico, único, de carácter nacional, al servicio de la Administración de Justicia, dependiente del Ministerio de Justicia, y que ejercen sus funciones con el carácter de autoridad.

Artículo 441

1. En el Cuerpo de Secretarios Judiciales existirán tres categorías, teniendo lugar el ingreso en el mismo por la tercera categoría.

2. Administrazio bakoitzari dagokio, bere lurralde-eremuan, behar diren administrazio-unitateak eta laguntza-bulego erkideak diseinatzea, sortzea eta antolatzea, dagokien administrazio publikoan nola integratu erabakitzea, jarduera-eremua eta mendekotasun hierarkikoa zehaztea, lanpostuak ezartzea, eta abian jartzeko eta jarduteko behar diren kredituez hornitzea.

3. Administrazio-unitate hauetako lanpostuak betetzeko, Justizia Administrazioaren zerbitzuko, Estatuaren Administrazioaren zerbitzuko eta autonomia-erkidegoen zerbitzuko kidegoetako funtzionarioak hartu ahal izango dira, kasuan kasuko lanpostu-zerrendetan ezarritako betekizun eta baldintzak biltzen dituztenak. Zer lanpostu behar diren erabakitzea, esparruaren arabera, Justizia Ministerioari eta eskumenak berenganatuak dituzten autonomia-erkidegoei dagokie.

4. Bulego judizialetan diharduten funtzionarioak, idazkari judizialak salbu, Justizia Ministerioaren edo beren eremuan eskumenak berenganatuak dituzten autonomia-erkidegoen mendeko dira organikoki, beren mendekotasun funtzionalaren kalterik gabe.

II. TITULUA

IDAZKARI JUDIZIALEN KIDEGOA

I. KAPITULUA

Estatutu pertsonala

440. artikulua

Idazkari judizialak funtzionario publikoak dira, kidego juridiko nagusi bakar eta izaera nazionaleko bat eratzen dutenak, Justizia Administrazioaren zerbitzuan eta Justizia Ministerioaren mende, eta beren funtzioak autoritate gisa betetzen dituztenak.

441. artikulua

1. Idazkari Judizialen Kidegoan hiru kategoria izango dira, eta hirugarren kategoriatik egingo da sarrera.

2. Todo secretario judicial poseerá una categoría personal. En ningún caso un secretario judicial de la tercera categoría podrá optar a una plaza de la primera.

3. La consolidación de una categoría personal exige el desempeño de puestos de trabajo correspondiente a dicha categoría al menos durante cinco años continuados o siete con interrupción.

4. No se podrá comenzar a consolidar una categoría superior sin previamente haber consolidado la inferior.

5. La categoría consolidada determina la percepción del sueldo correspondiente a la misma, con independencia del puesto de trabajo que se desempeñe.

6. A estos efectos, el Ministerio de Justicia establecerá los tres grupos en los que se clasificarán los puestos de trabajo a desempeñar por los secretarios judiciales.

Artículo 442

1. Los funcionarios del Cuerpo de Secretarios Judiciales serán seleccionados mediante convocatoria del Ministerio de Justicia, a través de los sistemas de oposición, que será el sistema ordinario de ingreso, o de concurso-oposición libre, que tendrá carácter excepcional y en el que las pruebas de conocimiento tendrán un contenido análogo a las de la oposición libre. Ambos procedimientos deberán garantizar, en todo caso, los principios de igualdad, mérito, capacidad y también de publicidad, en la forma en que dispone esta ley orgánica y las disposiciones reglamentarias que la desarrollen.

2. Se reservará el cincuenta por ciento de las plazas vacantes del Cuerpo de Secretarios Judiciales para su provisión por promoción interna mediante el sistema de concurso-oposición por los funcionarios de carrera del Cuerpo de Gestión procesal y administrativa que lleven, al menos, dos años de servicios efectivos en el mismo. A estos efectos se computarán los servicios prestados en el Cuerpo de Oficiales de la Administración de Justicia del que, en su caso, procedan.

Las restantes vacantes, a las que acrecerán las vacantes que no se cubran por promoción interna, si las hubiere, se cubrirán en turno libre mediante oposición o, en su caso, concurso-oposición.

3. Para el ingreso en el Cuerpo de Secretarios Judiciales, cualquiera que sea su forma de acceso, se requiere ser español, licenciado en Derecho, no estar incurso en causa de incapacidad o incompatibilidad, así como superar las pruebas

2. Idazkari judizial orok kategoria pertsonal bat izango du. Hirugarren kategoria baten idazkari judizial bat ezein kasutan ezin lehiatuko da lehen kategoria baten plaza baterako.

3. Kategoria pertsonal bat finkatzeko, gutxienez bost urtez jarraian edo etenik baldin bada zazpi urtez jardun beharra dago kategoria horretako lanpostuetan.

4. Ez dago goragoko kategoria bat finkatzen hasterik, aurrez haren azpikoa finkatu gabe.

5. Finkatutako kategoriaren baitan dago hari dagokion soldata, edozein dela ere betetzen den lanpostua.

6. Ondorio horietarako, Justizia Ministerioak ezarriko ditu idazkari judizialek betetzeko lanpostuen sailkapeneko hiru multzoak.

442. artikulua

1. Idazkari Judizialen Kidegoko funtzionarioak Justizia Ministerioaren deialdiz hautatuko dira, oposizio bidez —hori izango da sartzeko sistema arrunta— edo oposizio-lehiaketa libre bidez —salbuespen gisa, oposizio librekoen eduki bertsuko jakite-probak eginda—. Bi prozedurek berdintasun, merizimendu eta gaitasun printzipioak bermatu beharko dituzte beti, eta orobat publikotasun printzipioa, lege organiko honek eta lege hau garatuko duten erregelamenduzko xedapenek xedaturiko moduan.

2. Idazkari Judizialen Kidegoko plaza hutsen ehuneko berrogeita hamar barne-sustapenez hornitzeko gordeko da, eta oposizio-lehiaketa sistema erabiliko da horretarako, Kudeaketa Prozesal eta Administratiborako Kidegoan gutxienez bi urtez zerbitzuan egiazki jardundako karrerako funtzionarioen artean. Ondorio horietarako, justizia-administrazioako ofizialen kidego batetik etorririkoei kontatu egingo zaizkie hartan emandako zerbitzuak.

Gainerako plaza hutsak, eta, haiekin batera, barne-sustapenean bete gabe gelditutakoak, gelditu badira, txanda librean beteko dira, oposizio bidez edo, hala badagokio, oposizio-lehiaketa bidez.

3. Idazkari Judizialen Kidegoan sartzeko, edozein dela ere iristeko bidea, beharrezkoa da espainiarra izatea, Zuzenbideko lizentziaduna, eta ezintasun-edo bateraezintasun-kausarik ez izatea; gainera, ezartzen diren hautaketa-pro-

selectivas que se establezcan y el correspondiente curso teórico-práctico que podrá tener carácter selectivo.

Artículo 443

1. La condición de secretario judicial se adquiere por el cumplimiento sucesivo de los siguientes requisitos:

- a) Reunir los requisitos y cumplir las condiciones exigidas en la convocatoria.
- b) Superación de los procesos selectivos.
- c) Nombramiento expedido por el Ministro de Justicia y publicado en el «Boletín Oficial del Estado».
- d) Juramento o promesa de cumplir fielmente las obligaciones del cargo y guardar y hacer guardar la Constitución como norma fundamental.
- e) Tomar posesión dentro del plazo establecido.

2. La condición de secretario judicial se pierde en los siguientes supuestos:

- a) Por renuncia voluntaria manifestada por escrito y aceptada expresamente por el Ministerio de Justicia.
- b) Por pérdida de la nacionalidad española.
- c) Por sanción disciplinaria de separación del servicio.
- d) Por inhabilitación absoluta o especial impuesta como pena principal o accesoria por los tribunales cuando la misma sea firme.
- e) Por jubilación, sea voluntaria o forzosa, o por incapacidad permanente para el servicio.
- f) Por condena a pena de privativa de libertad superior a tres años por razón de delito doloso.

Artículo 444

1. Los funcionarios del Cuerpo de Secretarios Judiciales tendrán iguales derechos individuales, colectivos y deberes, que los establecidos en el libro VI de esta ley orgánica.

2. El régimen establecido en el apartado anterior será aplicable a los secretarios judiciales sustitutos, en la medida que la naturaleza del derecho lo permita, quedando integrados, a efectos de seguridad social, en el Régimen General de la Seguridad Social.

bak gainditu beharko dira, eta orobat dagokion ikastaro teoriko-praktikoa, selektiboa izan daitekeena.

443. artikulua

1. Idazkari judizialaren izaera eskuratzeko, betekizun hauek bete behar dira, hurrenez hurren:

a) Deialdian eskatutako betekizunak eta baldintzak bete.

b) Hautaketa-prozesuak gainditu.

c) Izendatua izan, Justiziako ministroak emandako eta Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratutako izendapenez.

d) Zin edo promesa egin, karguaren betebeharrak leial beteko direla eta Konstituzioa funtsezko arautzat gordeko eta gordearaziko dela.

e) Ezarritako epean kargua hartu.

2. Kasu hauetan galduko da idazkari judizialaren izaera:

a) Norberak borondatez uko eginez gero, hori idatziz adierazi eta Justizia Ministerioak espresuki onartutakoan.

b) Espainiar nazionalitatea galtzeagatik.

c) Diziplinazko zehapenez zerbitzutik kenduz gero.

d) Auzitegiek pena nagusi edo osagarritzat desgaitzuntza absolutu edo berezia ezarrituz gero, pena hori irmo geratutakoan.

e) Erretiroa hartuz gero, borondatezkoa izan zein nahitaezkoa izan, edo zerbitzurako ezintasun iraunkorra gertatuz gero.

f) Hiru urtetik gorako kondena askatasun-gabetzailea izanez gero, dolozko delituren batengatik.

444. artikulua

1. Idazkari Judizialen Kidegoko funtzionarioek lege honen VI. liburuan ezarritako eskubide indibidual eta kolektibo berak eta betebeharrak izango dituzte.

2. Ordezko idazkari judizialei ere aurreko zenbakian ezarritako araubidea aplikatuko zaie, eskubidearen izaerak ahalbidetzen duen heinean. Gizarte-segurantzari dagokionez, Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean sarturik geldituko dira ordezko idazkari judizialak.

Artículo 445

1. Las situaciones administrativas en que se puedan hallar los secretarios judiciales, así como su jubilación serán iguales y procederá su declaración en los supuestos y con los efectos establecidos en esta ley orgánica para jueces y magistrados.

2. Estarán sujetos a las mismas incapacidades, incompatibilidades y prohibiciones con excepción de las previstas en el artículo 395.

Artículo 446

1. Los secretarios judiciales deberán abstenerse en los casos establecidos para los jueces y magistrados y, si no lo hicieran, podrán ser recusados.

2. La abstención se formulará por escrito motivado dirigido al Juez o Magistrado si se tratare de una unidad de apoyo directo a un órgano judicial unipersonal, al Presidente si se tratare de una unidad de apoyo directo a un órgano judicial colegiado o al Juez o Magistrado que corresponda por turno de reparto si desempeñase sus funciones en un servicio común, quienes decidirán, respectivamente, la cuestión.

En caso de confirmarse la abstención, el Secretario Judicial que se haya abstenido debe ser reemplazado por su sustituto legal; en caso de denegarse, deberá aquél continuar actuando en el asunto.

3. Serán aplicables a la recusación de los secretarios las prescripciones que establece esta ley para jueces y magistrados con las siguientes excepciones:

a) Los secretarios judiciales no podrán ser recusados durante la práctica de cualquier diligencia o actuación de que estuvieren encargados.

b) La pieza de recusación se instruirá y resolverá por los mismos jueces o magistrados competentes para conocer de la abstención.

c) Presentado el escrito de recusación, el secretario judicial recusado informará detalladamente por escrito si reconoce o no como cierta y legítima la causa alegada.

d) Cuando el recusado reconozca como cierta la causa de la recusación, el tribunal dictará auto, sin más trámites y sin ulterior recurso, teniéndolo por recusado, si estima que la causa es legal. Si estima que la causa no es de las tipificadas en la ley, declarará no haber lugar a la recusación. Contra este auto no se dará recurso alguno.

445. artikulua

1. Idazkari judizialek izan ditzaketen egoera administratiboak, eta orobat erretiroa, lege organiko honetan epaile eta magistratuentzat ezarritako berak izango dira; berdinak izango dira, orobat, egoera horiek guztiak deklaratzeko kasuak eta deklaratzearen efektuak.

2. Ezintasun, bateraezintasun eta debeku berak izango dituzte, 395. artikuluan aurreikusitakoak izan ezik.

446. artikulua

1. Idazkari judizialek abstenitu egin beharko dute epaile eta magistratuentzat ezarritako kasuetan, eta, abstenitu ezean, errekusatuak izan daitezke.

2. Abstentzia idazki ziodun bidez formulatu beharko da, epaile edo magistratuari zuzendurik, kide bakarreko organo judizial bati zuzeneko laguntza emateko unitate bat bada; presidenteari, kide anitzeko organo judizial bati zuzeneko laguntza emateko unitate bat bada; eta banaketa-txandaren arabera dagokion epaile edo magistratuari, berriz, zerbitzu erkide bat bada; haiek ebatziko dute, hurrenez hurren.

Abstentzia baieztatuz gero, abstenitu den idazkari judizialaren lekua haren legezko ordezkioak hartuko du; abstentzia ukatuz gero, berak jarraitu beharko du gai arduratzen.

3. Idazkariaren errekusazioari dagokionez, lege honek epaile eta magistratuentzat ezartzen dituen preskripzioak aplikatuko dira, salbuespen hauekin:

a) Idazkari judizialak ezin errekusatu dira beren ardurapean duten eginbide edo jarduketaren bat betetzen ari diren bitartean.

b) Abstentzio arduratzeko eskudun diren epaile edo magistratu berek inuituko eta ebatziko dute errekusazio-pieza.

c) Errekusazio-idazkia aurkeztu denean, alegaturiko arrazoia egiazko eta legitimotzat aitortzen duen edo ez azalduko du idazkari judizial errekusatuak, idatziz eta xehetasunez.

d) Errekusatuak egiazkotzat aitortzen duenean errekusazioaren arrazoia, hura errekusatutzat jotzen duen auto bat emango du auzitegiak, arrazoia legezkoa dela iritziz gero, bestelako izapiderik gabe eta errekursorako aukerarik gabe. Arrazoia legean tipifikatu gabea dela irizten badio, errekusazioa onartzen ez dela deklaratu du. Auto horren aurka ezin jarriko da errekursorik.

Cuando el recusado niegue la certeza de la causa alegada como fundamento de la recusación, se procederá conforme a lo previsto en el apartado 3 del artículo 225 de esta ley.

e) El secretario judicial recusado, desde el momento en que sea presentado el escrito de recusación, será reemplazado por su sustituto legal.

Artículo 447

1. Las retribuciones serán básicas y complementarias.

2. Los conceptos retributivos básicos serán iguales a los establecidos en la Ley para la Carrera Judicial.

3. Los conceptos retributivos complementarios serán los siguientes:

a) El complemento general de puesto, que retribuye las características generales de los mismos;

b) El complemento específico, único para cada puesto de trabajo y destinado a retribuir las condiciones particulares de los mismos;

c) El complemento de productividad, destinado a retribuir el especial rendimiento, la actividad extraordinaria y el interés o iniciativa con que el funcionario desempeñe su trabajo, así como su participación en los programas concretos de actuación y en la consecución de los objetivos que se determinen por el Ministerio de Justicia, oído el Consejo General del Poder Judicial, y negociados con las organizaciones sindicales más representativas.

También se podrá retribuir mediante este complemento la participación de los secretarios judiciales en los programas o en la consecución de los objetivos que se hayan determinado por los órganos competentes de las comunidades autónomas con competencias asumidas para las oficinas judiciales de su territorio, siempre que exista autorización previa del Ministerio de Justicia.

A tal efecto, se establecerán los mecanismos de coordinación necesarios entre las Administraciones competentes.

d) Las gratificaciones, destinadas a retribuir los servicios de carácter extraordinario prestados fuera de la jornada normal de trabajo.

4. Además de las retribuciones señaladas anteriormente, los secretarios judiciales podrán percibir las siguientes retribuciones, que tienen la condición de especiales:

a) Las correspondientes a desempeño de servicios de guardia.

Errekusazioa funtsatzeko alegaturiko arrazoiaren egiazkotasuna ukatzen badu errekusatuak, lege honen 225. artikuluko 3. zenbakian aurreikusirikoaren arabera jokatuko da.

e) Errekusatutako idazkari judizialaren orde, haren legezko ordekoa jarriko da errekusazio-idazkia aurkeztu den unetik beretik.

447. artikulua

1. Ordainsariak oinarrizkoak eta osagarriak izango dira.

2. Oinarrizko ordain-kontzeptuak legean karrera judizialerako ezarritako berak izango dira.

3. Ordain-kontzeptu osagarriak honako hauek izango dira:

a) Postuko osagarri orokorra, postuaren ezaugarri orokorrak ordaintzen dituen.

b) Berariazko osagarria, lanpostu bakoitzarentzako bakarra eta lanpostuaren ezaugarri partikularrak ordaintzen dituen.

c) Produktibitate-osagarria; haren bitartez ordaintzen da funtzionarioak lanean errendimendu berezia, aktibitate aparta eta interesa edo ekimena izatea, eta, orobat, hark parte hartzea Justizia Ministerioak, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari entzunda eta ordezkagaitasun nagusiko erakunde sindikalekin negoziatuta, ezartzen dituen helburuen lorpenean eta jarduera-egitarau jakin batzuetan.

Osagarri honen bitartez ordaindu ahal izango da, orobat, idazkari judizialek parte hartzea eskumenak berenganatuak dituzten autonomia-erkidegoetako organo eskudunek —Justizia Ministerioak aurrez oniritzia emanda— beren lurraldeko bulego judizialentzat jarritako programetan edo helburuen lorpenean.

Horretarako, behar diren koordinazio-bideak jarriko dituzte administrazio eskumendunen artean.

d) Eskersariak; haien bitartez, lanaldi arruntetik kanpo eskainitako aparteko zerbitzuak ordaintzen dira.

4. Aurretik azaldutakoez gain, ordainsari hauek ere jaso ahal izango dituzte idazkari judizialek, ordainsari berezi gisa:

a) Guardiako zerbitzuak betetzeari dagozkienak.

b) Las correspondientes a sustituciones que impliquen el desempeño conjunto de otra función, además de aquellas de las que sea titular.

Estas retribuciones serán compatibles con todos los conceptos retributivos previstos anteriormente.

5. Los secretarios sustitutos no profesionales percibirán las retribuciones correspondientes al puesto de trabajo desempeñado.

Se reconocerán los trienios correspondientes a los servicios prestados que tendrán efectos retributivos conforme a lo establecido en la normativa vigente para los funcionarios de la Administración General del Estado. Este reconocimiento se efectuará previa solicitud del interesado.

Artículo 448

1. La cuantía del sueldo se establecerá para cada una de las categorías en que se estructura el Cuerpo de Secretarios Judiciales y la antigüedad se remunerará mediante un incremento sucesivo del cinco por ciento del sueldo inicial correspondiente a la categoría de ingreso por cada tres años de servicio. En todo caso se respetará la cuantía de los trienios reconocida a los secretarios judiciales pertenecientes al extinguido Cuerpo de los Secretarios de Magistratura de Trabajo. Los secretarios judiciales tendrán derecho a percibir dos pagas extraordinarias al año por importe, cada una de ellas, de una mensualidad de sueldo y antigüedad y, en su caso, una cantidad proporcional del complemento general de puesto, en los términos que se fijen por ley para la Administración de Justicia, que se harán efectivas en los meses de junio y diciembre, siempre que los perceptores estuvieran en servicio activo o con derecho a devengo del sueldo el día primero de los meses indicados.

2. La cuantía de las retribuciones básicas y de los complementos generales de puesto vendrá determinada en la Ley de Presupuestos Generales del Estado para cada año.

3. Por el Gobierno, mediante real decreto, a propuesta conjunta de los Ministros de Justicia y Hacienda, se determinarán los diferentes tipos de puestos adscritos a los secretarios judiciales a efectos del complemento general de puesto, la asignación inicial de los complementos específicos que correspondan y las retribuciones que procedan por sustituciones que impliquen el desempeño conjunto de otra función.

4. La concreción de la cuantía individual del complemento de productividad y la determinación del número de funcionarios con derecho a su percep-

b) Norbera titular den funtzioekin batera beste funtzioen bat ere betetzea eskatzen duten ordezpenei dagozkienak.

Ordainsariok bateragarri izango dira lehenago aurreikusiriko ordain-konzeptu guztiekin.

5. Profesional ez diren ordezko idazkariak, bete duten lanpostuari dagozkion ordainsari guztiak jasoko dituzte.

Egindako zerbitzuei dagozkien hiru urtekoak aitortuko dira, eta Estatuaren Administrazio Orokorreko funtzionarioentzat indarrean den araudian ezarritakoaren arabera dagozkien ordain-ondorioak izango dituzte. Interesdunak eskaturik egingo da hiru urtekoen aitortpena.

448. artikulua

1. Soldataren zenbatekoa ezartzean, idazkari judizialen kidegoan diren kategorietako bakoitzari berea ezarriko zaio; antzinatasun-saria sarrerako kategoriaren soldataren ehuneko bost izango da, hiru zerbitzu-urteko. Lan Magistraturako Idazkarien Kidego izan zeneko idazkari judizialei, edozein kasutan, errespetatu egingo zaie aitortuak zituzten hiru urtekoen kopurua. Urtean bi aparteko paga jasotzeko eskubidea dute idazkari judizialek; paga bakoitzean, hilabete bati dagokion soldata eta antzinatasuna jasoko dute, eta, hala badagokio, postuko osagarri orokorraren proportziozko kopuru bat, legeak Justizia Administrazioarako zehazten duen moduan. Aparteko pagak ekainean eta abenduan ordainduko dira, betiere hilabete horien lehenbiziko egunean zerbitzu aktiboan edo soldata jasotzeko eskubidedun bada hartzailea.

2. Oinarrizko ordainsarien eta postuko osagarri orokorren zenbatekoa, urtez urte, Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legean zehaztuko da.

3. Gobernuak zehaztuko du, errege-dekretu bidez, Justizia eta Ogasun ministroek batera proposaturik, zein diren, postuko osagarri orokorrari dagozkionez, idazkari judizialei esleituriko postuak; zein den berariazko osagarrien hasierako zenbatekoa; eta zein diren ordezpenen ordainsariak, norberaren funtzioarekin batera beste bat bete behar denean.

4. Produktibitate-osagarria bakoitzarentzat zenbat den, eta hura jasotzeko eskubidea zenbat funtzionarioek duten, Justizia Ministerioaren ebazpen bitartez

ción, se llevarán a cabo mediante resolución del Ministerio de Justicia, previa negociación con las organizaciones sindicales más representativas.

5. Mediante orden ministerial, a propuesta conjunta de los Ministros de Justicia y de Hacienda, previa negociación con las organizaciones sindicales, se procederá a la determinación de la remuneración por servicio de guardia.

6. La asignación individual de la cuantía de las gratificaciones y la fijación de los criterios para su percepción se determinarán por resolución del Ministerio de Justicia.

Artículo 449

1. Los funcionarios que se encuentren en periodo de prácticas o desarrollando cursos selectivos a los que se refiere el artículo 485 serán nombrados funcionarios en prácticas y percibirán una retribución equivalente al sueldo y las pagas extraordinarias correspondientes al Cuerpo de Secretarios Judiciales de la tercera categoría.

2. Los funcionarios en prácticas que ya estuviesen prestando servicios remunerados en la Administración de Justicia, durante el periodo de prácticas no podrán percibir remuneración alguna por el puesto de trabajo de origen y podrán optar por una remuneración de igual importe a la que les correspondía en el puesto de trabajo de origen o por la que les corresponda como funcionario en prácticas, de acuerdo con lo dispuesto en el apartado anterior.

3. Si las prácticas se realizasen desempeñando un puesto de trabajo, el importe señalado en el apartado primero se incrementará en las retribuciones complementarias de dicho puesto.

Artículo 450

1. La provisión de puestos de trabajo se llevará a cabo por el procedimiento de concurso, que será el sistema ordinario de provisión.

Cuando se trate de puestos de carácter directivo o de especial responsabilidad, podrán cubrirse por el procedimiento de libre designación.

El nombramiento de secretarios judiciales para puestos de trabajo radicados en el ámbito territorial de una comunidad autónoma con competencias asumidas, que hayan de cubrirse por este procedimiento, requerirá el informe previo del órgano competente de dicha comunidad.

zehaztuko da, aurrez ordezkagaitasun nagusiko erakunde sindikalekin negoziaturik.

5. Guardiako zerbitzuaren ordainsariak ministro-agindu baten bitartez erabakiko dira, Justizia eta Ogasun ministroek batera proposaturik eta aurrez erakunde sindikalekin negoziaturik.

6. Eskersaria bakoitzarentzat zenbat den, eta hura jasotzeko irizpideak zein diren, Justizia Ministerioaren ebazpen bitartez zehaztuko da.

449. artikulua

1. Praktika-aldian diren edo 485. artikuluan aipatzen diren ikastaro selektiboetan ari diren funtzionarioak praktiketako funtzionario izendatuko dira, eta haien ordainsaria hirugarren kategoriako idazkari judizialen kidegoari dagokion soldataren eta aparteko pagen batura izango da.

2. Lehendik Justizia Administrazioan lan ordaindua egiten ari diren praktiketako funtzionarioek, praktika-aldian, ezin jasoko dute inolako ordainsaririk jatorriko lanpostuarengatik, eta bi hauetariko bat aukera dezakete: edo jatorriko lanpostuagatik zegokienaren pareko ordainsaria, edo aurreko zenbakian xedaturikoaren arabera praktika-aldiko funtzionario izateagatik dago-kiena.

3. Lanpostu bat betez egiten badira praktikak, postu horri dagozkion ordainsari osagarriak gehituko zaizkio artikulua honen lehenbiziko zenbakian adierazitako zenbatekoari.

450. artikulua

1. Lanpostuak hornitzeko, lehiaketa izango da ohiko prozedura.

Zuzendaritzako edo erantzukizun bereziko postuak direnean, izendapen libreza izan daiteke prozedura.

Idazkari judizialak izendapen librez izendatu behar badira eskumenak bereganatuak dituen autonomia-erkidego baten lurralde-eremuko lanpostuetarako, aurrez irizpena eman beharko du erkidego horretako organo eskudunak.

En todo caso, el sistema de provisión deberá estar determinado en las correspondientes relaciones de puestos de trabajo.

2. Excepcionalmente y cuando las necesidades del servicio lo requieran, los puestos de trabajo también podrán cubrirse de forma temporal mediante adscripción provisional o en comisión de servicios.

3. Reglamentariamente se establecerán las normas y requisitos a los que habrán de ajustarse los procedimientos de provisión de puestos de trabajo.

En todo caso, para poder concursar deberá haber transcurrido un período mínimo de dos años, a contar desde la fecha de la resolución por la que se convocó el concurso de traslados en el que el funcionario obtuvo su último destino definitivo, desde el que participa, o desde la fecha de la resolución en la que se le adjudicó destino definitivo, si se trata de funcionarios de nuevo ingreso. Los secretarios judiciales que no tengan destino definitivo, obligados a participar en los concursos de acuerdo con la normativa vigente, están excluidos de esta limitación temporal.

4. En aquellas comunidades autónomas que gocen de derecho civil, foral o especial, y de idioma oficial propios, el conocimiento de los mismos se valorará como mérito.

Artículo 451

1. Las sustituciones por ausencia, enfermedad, suspensión o vacante de secretarios judiciales serán cubiertas por quien designe su inmediato superior jerárquico.

2. Esta designación únicamente podrá recaer en otro secretario judicial o en un secretario judicial sustituto, quien ejercerá las funciones previstas en esta ley orgánica para los secretarios judiciales aún sin pertenecer a dicho cuerpo, sin carácter de profesionalidad y con inamovilidad temporal, ostentando los mismos derechos y deberes que su titular y con idéntica amplitud que éste.

En este segundo caso, el Ministerio de Justicia determinará los requisitos y procedimiento para su nombramiento y cese.

3. Excepcionalmente, cuando no hubiera suficiente número de secretarios judiciales, en los supuestos de entradas y registros en lugares cerrados acordados por un único órgano judicial de la Audiencia Nacional y que deban ser realizados de forma simultánea, podrán los funcionarios del Cuerpo de Gestión Procesal y Administrativa, en sustitución del secretario judicial, intervenir en calidad de fedatarios y levantar la correspondiente acta.

Edozein kasutan, lanpostu-zerrendetan zehaztu beharko da postuak betetzeko prozedura.

2. Salbuespen gisa eta zerbitzu-beharrek hala eskatzen dutenean, aldi baterako ere bete ahal izango dira lanpostuak, behin-behineko atxikipen bidez edo zerbitzu-eginkizun bidez.

3. Erregelamenduz ezarriko dira lanpostuak betetzeko prozeduretan jarraitu beharreko arau eta betekizunak.

Edozein kasutan, lehiatu ahal izateko, bi urte igaroak izan beharko dira funtzionarioak bere behin betiko azken destinoa —lehiaketan parte hartzerakoan duena— lortu zuen lekualdatze-lehiaketarako deia egiten duen ebazpenaren egunetik, edo, funtzionario sartu berria izanez gero, behin betiko destinoa esleitu zitzaion ebazpenaren egunetik. Behin betiko destinorik ez duten idazkari judizialak, indarrean den araudiaren arabera lehiaketetan parte hartzerako behartuak, salbuetsirik daude denbora-muga horretatik.

4. Berezko zuzenbide zibila —foru-zuzenbidea edo zuzenbide berezia— eta berezko hizkuntza ofiziala duten autonomia-erkidegoetan, merezimendu gisa balioetsiko da hizkuntza eta zuzenbide hori jakitea.

451. artikulua

1. Absentzia, gaixotasun, geldiera edo hutsaldia dela-eta idazkari judiziala ordeztu behar denean, haren goragoko hurrenak izendatuko du ordezkoa.

2. Izendatua, nahitaez, beste idazkari judizial bat edo ordezko idazkari judizial bat izango da, eta lege organiko honek idazkari judizialentzat aurreikusituen funtzioak beteko ditu kidego horretakoa ez izanik ere, profesionalizaerarik gabe eta denbora baterako mugiezintasunez, titularren eskubide beren jabe dela eta haren zabaltasun berbera duela.

Bigarren kasu horretan, Justizia Ministerioak ezarriko ditu ordezkoa izendatzeko eta kargugabetzeko betekizunak eta prozedura.

3. Salbuespen gisa, Auzitegi Nazionaleko organo bakar batek zenbait leku itxitan aldi berean sarrera eta erregistroak egitea erabakitzen duenean eta horretarako idazkari judizialik aski ez denean, fede-emaile gisa jardun eta akta jaso ahal izango dute Kudeaketa Prozesal eta Administratiborako Kidegoko funtzionarioek.

CAPÍTULO II

De las funciones de los secretarios judiciales

Artículo 452

1. Los secretarios judiciales desempeñarán sus funciones con sujeción al principio de legalidad e imparcialidad en todo caso, al de autonomía e independencia en el ejercicio de la fe pública judicial, así como al de unidad de actuación y dependencia jerárquica en todas las demás que les encomienden esta ley y las normas de procedimiento respectivo, así como su reglamento orgánico. Las funciones de los secretarios judiciales no serán objeto de delegación ni de habilitación, sin perjuicio de lo establecido en el artículo 451.3.

2. En el ejercicio de sus funciones, los secretarios judiciales cumplirán y velarán por el cumplimiento de todas las decisiones que adopten los jueces o tribunales en el ámbito de sus competencias.

3. Los secretarios judiciales colaborarán con las comunidades autónomas con competencias asumidas para la efectividad de las funciones que estas ostentan en materia de medios personales y materiales, dando cumplimiento a las instrucciones que a tal efecto reciban de sus superiores jerárquicos. Para una mejor coordinación podrán constituirse Comisiones Mixtas de Secretarios Judiciales y representantes de las comunidades autónomas con competencias asumidas, en sus respectivos ámbitos territoriales.

Artículo 453

1. Corresponde a los Secretarios Judiciales, con exclusividad y plenitud, el ejercicio de la fe pública judicial. En el ejercicio de esta función, dejarán constancia fehaciente de la realización de actos procesales en el Tribunal o ante éste y de la producción de hechos con trascendencia procesal mediante las oportunas actas y diligencias.

Cuando se utilicen medios técnicos de grabación o reproducción, las vistas se podrán desarrollar sin la intervención del Secretario Judicial, en los términos previstos en la ley. En todo caso, el Secretario Judicial garantizará la autenticidad e integridad de lo grabado o reproducido.

2. Los secretarios judiciales expedirán certificaciones o testimonios de las actuaciones judiciales no declaradas secretas ni reservadas a las partes, con expresión de su destinatario y el fin para el cual se solicitan.

II. KAPITULUA

Idazkari judizialen funtzioak

452. artikulua

1. Idazkari judizialek, beren funtzioetako jardunean, legezotasun eta inpartzialtasun printzipioen arabera jokatuko dute beti; autonomia eta independentzia printzipioen arabera, fede publiko judiziala ematen ari direnean; eta jarduera-batasun eta hierarkia-mendekotasun printzipioen arabera, lege honek, kasuan kasuko prozedura-arauek eta beren erregelamendu organikoak esleituriko gainerako funtzio guztietan. Idazkari judizialen funtzioak ezin dira eskuordetu, ez gaikuntzaren objektu izan, 451.3 artikulua dioen kasuan izan ezik.

2. Idazkari judizialek, beren funtzioetako jardunean, epaile eta auzitegiek beren eskumenak erabiliz harturiko erabaki guztiak beteko dituzte, eta erabaki horiek bete daitezela begiratuko.

3. Eskumenak berenganatuak dituzten autonomia-erkidegoei baliabide pertsonal eta materialen inguruko funtzioak gauzatzen lagunduko diete idazkari judizialek, nagusi hierarkikoek hartarako emandako instrukzioak betez. Koordinazioa hobetzeko, batzorde mistoak osatu ahal izango dituzte idazkari judizialek eta eskumenak berenganatuak dituzten autonomia-erkidegoetako ordezkariak, erkidego bakoitzaren lurralde-eremuan.

453. artikulua

1. Idazkari judizialei dagokie, esklusiboki eta osoki, fede publiko judiziala ematea. Funtzio hori betetzean, auzitegian edo auzitegiaren aurrean gauzaturiko egintza prozesalak eta prozesurako garrantzia duten egitateak jasoko dituzte, dagozkien akta eta diligentzien bidez.

Grabatzeko edo erreproduzitzeko baliabide teknikoak erabiltzen direnean, idazkari judizialak esku hartu gabe egin ahal izango dira ikustaldiak, legean aurreikusitako moduan. Betiere, idazkari judizialak bermatuko du grabatu edo erreproduzitu denaren egiazotasuna eta osotasuna.

2. Jarduketa judizialak ez badira ez isilpekotzat ez alderdiei erreserbatutzat joak, haien ziurtagiriak edo testigantzak emango dituzte idazkari judizialek, no-rentzat diren eta zer helbururekin eskatu diren adierazirik.

3. Autorizarán y documentarán el otorgamiento de poderes para pleitos, en los términos establecidos en las leyes procesales.

4. En el ejercicio de esta función no precisarán de la intervención adicional de testigos.

Artículo 454

1. Los secretarios judiciales son responsables de la función de documentación que les es propia, así como de la formación de los autos y expedientes, dejando constancia de las resoluciones que dicten los jueces y magistrados, o ellos mismos cuando así lo autorice la ley.

2. Los secretarios judiciales ejercerán competencias de organización, gestión, inspección y dirección del personal en aspectos técnicos procesales, asegurando en todo caso la coordinación con los órganos de gobierno del Poder Judicial y con las comunidades autónomas con competencias transferidas.

3. Garantizarán que el reparto de asuntos se realiza de conformidad con las normas que a tal efecto aprueben las Salas de Gobierno de los Tribunales de Justicia y serán responsables del buen funcionamiento del registro de recepción de documentos, expidiendo en su caso las certificaciones que en esta materia sean solicitadas por las partes.

4. Facilitarán a las partes interesadas y a cuantos manifiesten y justifiquen un interés legítimo y directo, la información que soliciten sobre el estado de las actuaciones judiciales no declaradas secretas ni reservadas.

5. Promoverán el empleo de los medios técnicos, audiovisuales e informáticos de documentación con que cuente la unidad donde prestan sus servicios.

Artículo 455

Será responsabilidad del secretario judicial la dación de cuenta, que se realizará en los términos establecidos en las leyes procesales.

Artículo 456

1. El secretario judicial impulsará el proceso en los términos que establecen las leyes procesales.

2. A tal efecto, dictará las resoluciones necesarias para la tramitación del proceso, salvo aquéllas que las leyes procesales reserven a jueces o tribunales. Estas resoluciones se denominarán diligencias, que podrán ser de ordenación,

3. Auzitarako ahalordeak eskuetsiko eta dokumentatuko dituzte idazkari judizialek, prozedura-legeetan ezarritako moduan.

4. Ez da beharrezko izango, idazkari judizialek funtzio hori betetzean, lekukoek ere parte hartzea.

454. artikulua

1. Idazkari judizialen erantzukizuna da berezkoa duten dokumentazio-lana egitea, eta orobat auto eta espedienteak eratzea, epaile eta magistratuek emaniko ebazpenak jasotzen dituztela, edo berek emanikoak, legeak hala baimentzen duenean.

2. Idazkari judizialen egitekoa da enpleguak antolatu, kudeatu, ikuskatu eta zuzentzea prozesuen alderdi teknikoetan, betiere Botere Judizialaren gobernu-organoekiko koordinazioa eta eskumenak eskualdatuak dituzten autonomia-erkidegoekiko koordinazioa segurtatuz.

3. Idazkari judizialek bermatuko dute auzi-banaketan justizia-auzitegi-tako gobernu-salek horretarako onetsiriko arauari jarraitzen zaiela, eta haien erantzukizuna izango da agirien harrera-erregistroak egoki funtzionatzea, alderdiek gai horri dagokionez eskaturiko ziurtagiriak ematen dituztela, hala badagokio.

4. Jarduketa judizialen egoerari buruzko informazioa emango diete alderdi interesdunei eta interes legitimo eta zuzenekoa agertzen eta justifikatzen duen orori, jarduketak ez badira ez isilpekotzat ez erreserbatutzat joak.

5. Diharduten unitateko dokumentazio-baliabide tekniko, ikus-entzuzko eta informatikoen erabilera sustatuko dute.

455. artikulua

Idazkari judizialaren erantzukizuna izango da kontu-ematea, prozedura-legeetan ezarritako moduan.

456. artikulua

1. Prozesuak aurrera egitea bultzatuko du idazkari judizialak, prozedura-legeek ezarritako moduan.

2. Horretarako, prozesua izapidetzeko behar diren ebazpenak emango ditu, saldu prozedura-legeek epaile edo auzitegiei erreserbatzen dizkietenak. Ebazpen horiek eginbide deituko dira, eta izan daitezke antolaketazkoak, idazpenezkoak,

de constancia, de comunicación o de ejecución. Las diligencias de ordenación serán recurribles ante el juez o el ponente, en los casos y formas previstos en las leyes procesales.

3. Los secretarios judiciales cuando así lo prevean las leyes procesales tendrán competencias en las siguientes materias:

a) La ejecución salvo aquellas competencias que exceptúen las leyes procesales por estar reservadas a jueces y magistrados.

b) Jurisdicción voluntaria, asumiendo su tramitación y resolución, sin perjuicio de los recursos que quepa interponer.

c) Conciliaciones, llevando a cabo la labor mediadora que les sea propia.

d) Cualesquiera otras que expresamente se prevean.

4. Se llamará decreto a la resolución que dicte el secretario judicial con el fin de poner término al procedimiento del que tenga atribuida exclusiva competencia, o cuando sea preciso o conveniente razonar su decisión. Será siempre motivado y contendrá, en párrafos separados y numerados, los antecedentes de hecho y los fundamentos de derecho en que se basa.

Artículo 457

Los secretarios judiciales dirigirán en el aspecto técnico-procesal al personal integrante de la Oficina judicial, ordenando su actividad e impartiendo las órdenes e instrucciones que estime pertinentes en el ejercicio de esta función.

Artículo 458

1. Los secretarios judiciales serán responsables del Archivo Judicial de Gestión, en el que, de conformidad con la normativa establecida al efecto, se conservarán y custodiarán aquellos autos y expedientes cuya tramitación no esté finalizada, salvo el tiempo en que estuvieren en poder del juez o del magistrado ponente u otros magistrados integrantes del tribunal.

2. Por real decreto se establecerán las normas reguladoras de la ordenación y archivo de autos y expedientes que no estuviesen pendientes de actuación alguna, así como del expurgo de los archivos judiciales.

3. Corresponde al Ministerio de Justicia la determinación de los libros de registro que han de existir en los juzgados y tribunales y establecer las normas reguladoras de la llevanza de los mismos mediante los reglamentos oportunos.

jakinarazpenezkoak edo exekuziozkoak. Antolaketa-eginbideei errekurtoa aurrez dakieke epailearen edo txostengilearen aurrean, prozedura-legeek aurreikusiriko kasu eta moduetan.

3. Lege prozesalek hala aurreikusten dutenean, idazkari judizialek eskumena izango dute honako gai hauetan:

a) Exekuzioan, non eta eskumena ez den epaile eta magistratuei erreserbatua eta horregatik lege prozesalen batek salbuetsia.

b) Borondatezko jurisdikzioan, beren gain harturik auziak izapidetzea eta ebaztea, jar litezkeen errekurtsoen kalterik gabe.

c) Adiskidetzetan, berei dagokien bitartekotza eginez.

d) Espresuki aurreikusiriko beste edozeinetan.

4. Idazkari judizialaren ebazpenari dekretu deituko zaio eskumen eskusiboa berak esleitua duen prozesu bat amaitzeko ematen duenean, edo erabakia arrazoitzea beharrezko edo komenigarri denean. Dekretua zioduna izango da beti, eta egitatezko aurrekariak eta zuzenbideko oinarriak agertuko ditu, paragrafo bereizi eta zenbakituta.

457. artikulua

Idazkari judizialei dagokie bulego judiziala osatzen duten enplegatuen zuzendari jardutea, alderdi tekniko-prozesalean, haien jardura antolatuz eta funtzio hori betetzeko egoki deritzoten agindu eta instrukzioak emanez.

458. artikulua

1. Idazkari judizialen erantzukizuna izango da Kudeaketa Artxibo Judiziala. Artxibo horretan gorde eta zainduko dira, horretarako ezarritako araudiaren arabera, izapidetzen amaitu gabeko jarduketa eta espedienteak, salbu eta epailearen edo magistratu txostengilearen esku edo auzitegiko kide den beste magistraturen baten esku dauden denboran.

2. Errege-dekretu bidez ezarritako dira beste izapidereen baten zain ez dauden jarduketa eta espedienteak antolatzeko eta artxibatze arauak, eta orobat artxibo judizialak arazteko arauak.

3. Justizia Ministerioari dagokio erabakitzea zer erregistro-liburu egon behar duen epaitegi eta auzitegietan, eta erregelamendu bidez ezartzea liburuok eramateko arauak.

4. El secretario judicial será responsable de la llevanza de los libros de registro a través de las aplicaciones informáticas correspondientes y, en su defecto, manualmente, impartiendo las oportunas instrucciones al personal de él dependiente.

Artículo 459

1. Los secretarios judiciales responderán del depósito de los bienes y objetos afectos a los expedientes judiciales, así como del de las piezas de convicción en las causas penales, en los locales dispuestos a tal fin. Todo ello, sin perjuicio de las excepciones que puedan establecerse reglamentariamente en cuanto al destino que deba darse a éstos en supuestos especiales.

2. Los secretarios judiciales responderán del debido depósito en las instituciones que se determinen de cuantas cantidades y valores, consignaciones y fianzas se produzcan, siguiendo las instrucciones que al efecto se dicten.

Artículo 460

Los secretarios judiciales colaborarán con la Administración tributaria en la gestión de los tributos que les sea encomendada en la normativa específica.

Artículo 461

1. La estadística judicial, que se elaborará conforme a los criterios que se establezcan, será responsabilidad de los secretarios judiciales. Los Secretarios de Gobierno respectivos velarán por su cumplimiento contrastando la veracidad de los datos.

2. La Estadística Judicial constituye un instrumento básico al servicio de las Administraciones públicas y del Consejo General del Poder Judicial para la planificación, desarrollo y ejecución de las políticas públicas relativas a la Administración de Justicia y, en particular, para las siguientes finalidades:

- a) El ejercicio de la política legislativa del Estado en materia de justicia.
- b) La modernización de la organización judicial.
- c) La planificación y gestión de los recursos humanos y medios materiales al servicio de la Administración de Justicia.
- d) El ejercicio de la función de inspección sobre los juzgados y tribunales.

La Estadística Judicial asegurará, en el marco de un plan de transparencia, la disponibilidad permanente y en condiciones de igualdad por las Cortes Generales, el Gobierno, las comunidades autónomas, el Consejo General del Po-

4. Idazkari judizialaren erantzukizuna izango da erregistro-liburuak eramatea, dagozkien aplikazio informatikoen bidez eta, halakorik ezean, eskuz, bere agindura dituen enplegatuei behar diren instrukzioak emanaz.

459. artikulua

1. Idazkari judizialen erantzukizuna izango da espediente judizialei atxikitako ondasun eta objektuak gordailutzea, eta orobat kausa penaletan konbikzio-piezak gordailutzea, horretarako egokituriko lokaletan. Hala ere, salbuespenak ezar daitezke erregelamenduz, kasu berezi batzuetan, ondasun eta objektuoi eman beharreko xedeari dagokionez.

2. Idazkari judizialen erantzukizuna izango da gertatzen diren zenbateko, balio, kontsignazio eta berme guztiak behar bezala gordailutzea hartarako xedatutako erakundeetan, hartarako ematen diren instrukzioei jarraikiz.

460. artikulua

Idazkari judizialak tributu-administrazioaren laguntzaile izango dira berariazko araudiak haien gain uzten duen tributu-kudeaketan.

461. artikulua

1. Idazkari judizialen erantzukizuna izango da estatistika judiziala, ezartzen diren irizpideen arabera landua. Gobernu-idazkariek begiratuko dute hori bete dadila, datuen egiazkotasuna kontrastatuz.

2. Estatistika judiziala oinarrizko tresna da administrazio publikoen eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren zerbitzuan, Justizia Administrazioari buruzko politika publikoak planifikatu, garatu eta gauzatzeko, eta, zehazki, xede hauetarako:

- a) Justizia gaietan Estatuaren legegintza-politika egitea.
- b) Antolamendu judiziala modernizatzea.
- c) Justizia Administrazioaren zerbitzuko giza baliabideak eta baliabide materialak planifikatzea eta kudeatzea.
- d) Epaitegi eta auzitegien gaineko ikuskatze-lana egitea.

Estatistika judizialak, gardentasun-plan baten barruan, segurtatuko du Gorte Nagusiek, Gobernuak, autonomia-erkidegoek, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak eta Estatuaren Fiskaltza Nagusiak informazio eguneratua, zo-

der Judicial y la Fiscalía General del Estado de información actualizada, rigurosa y debidamente contrastada sobre la actividad y carga de trabajo de todos los órganos, servicios y oficinas judiciales de España, así como sobre las características estadísticas de los asuntos sometidos a su conocimiento. Los ciudadanos tendrán pleno acceso a la estadística judicial.

3. La Comisión Nacional de Estadística Judicial, integrada por el Ministerio de Justicia, una representación de las comunidades autónomas con competencias en la materia, el Consejo General del Poder Judicial y la Fiscalía General del Estado, aprobará los planes estadísticos, generales y especiales, de la Administración de Justicia y establecerá criterios uniformes y de obligado cumplimiento para todos sobre la obtención, tratamiento informático, transmisión y explotación de los datos estadísticos del sistema judicial español.

La estructura, composición y funciones de la Comisión Nacional de Estadística Judicial será establecida reglamentariamente por el Gobierno, mediante real decreto, previo informe del Consejo General del Poder Judicial, del Fiscal General del Estado, de la Agencia de Protección de Datos y de las comunidades autónomas con competencias en la materia.

4. No obstante, las Administraciones públicas con competencias en materias de Administración de Justicia podrán llevar a cabo las explotaciones de otros datos estadísticos que puedan ser recabados a través de los sistemas informáticos, siempre que se consideren necesarias o útiles para su gestión.

Artículo 462

Los secretarios judiciales asumirán todas aquéllas otras funciones que legal y reglamentariamente se establezcan.

CAPÍTULO III

De la ordenación del Cuerpo de Secretarios

Artículo 463

1. Bajo la superior dependencia del Ministerio de Justicia el Cuerpo de Secretarios Judiciales se ordena jerárquicamente en la forma que se determine en las relaciones de puestos de trabajo. En este sentido, realizarán todas aquellas funciones de naturaleza análoga a las que les son propias, inherentes al puesto de trabajo que ocupen y que les sean encomendadas por sus superiores.

rrotz eta behar bezala egiaztatua izan dezatela, uneoro eta berdintasunean, Espainiako organo, zerbitzu eta bulego judizial guztien jarduera eta lan-kargari buruz, eta orobat haien ardurapeko auzien ezaugarri estatistikoei buruz. Herri-tarrek irispide osoa izango dute estatistika judizialera.

3. Estatistika Judizialaren Batzorde Nazionalak onetsiko ditu Justizia Administrazioaren estatistika-plan orokor eta bereziak; orobat, Espainiako sistema judizialaren estatistika-datuak lortzeko, informatikoki tratatzeko, transmititzeko eta ustiatzeko irizpide berdin eta nahitaez bete beharrekoak ezarriko ditu guztientzat. Hauek osatuko dute Estatistika Judizialaren Batzorde Nazionala: Justizia Ministerioak, gai horretan eskumenak berenganatuak dituzten autonomia-erkidegoen ordezkaritza batek, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak eta Estatuaren Fiskaltza Nagusiak.

Estatistika Judizialaren Batzorde Nazionalaren egitura, osaera eta funtzioak erregelamenduz ezarriko ditu Gobernuak, errege-dekretu bidez, aurrez txostena eginik Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak, Estatuaren Fiskaltza Nagusiak, Datuen Babeserako Agentziak eta gai horretan eskumenak berenganatuak dituzten autonomia-erkidegoek.

4. Hala ere, Justizia Administrazioaren arloan eskumenak berenganatuak dituzten administrazio publikoek esku izango dute sistema informatikoen bidez jaso daitezkeen beste estatistika-datu batzuk ustiatzeko, beharrezko edo onuragarri jotzen badituzte beren kudeaketarako.

462. artikulua

Legez eta erregelamenduz ezartzen den beste edozein funtzio ere beteko dute idazkari judizialek.

III. KAPITULUA

Idazkarien Kidegoaren antolaketa

463. artikulua

1. Lanpostu-zerrendetan erabakitako moduan antolatuko da Idazkari Judizialen Kidegoaren hierarkia, Justizia Ministerioaren mende betiere. Idazkari judizialek orobat beteko dute berei dagozkien izaera bertuko beste edozein funtzio, betetzen ari diren lanpostuari datxekiona, nagusiek hala aginduz gero.

2. Los órganos superiores son:

- a) El Secretario de Gobierno.
- b) El Secretario Coordinador Provincial.

3. Cuando en un servicio común procesal prestaren servicios varios secretarios judiciales, la relación de puestos de trabajo determinará su dependencia jerárquica y funcional.

4. Como instrumento de participación democrática del colectivo del Cuerpo de Secretarios Judiciales, se constituirá un Consejo del Secretariado en el seno del Ministerio de Justicia, con funciones consultivas en las materias que afecten al mencionado cuerpo. Su organización, funcionamiento y competencias se desarrollarán reglamentariamente.

Artículo 464

1. Habrá un Secretario de Gobierno en el Tribunal Supremo, en la Audiencia Nacional, y en cada Tribunal Superior de Justicia, así como en las ciudades de Ceuta y Melilla, elegido entre miembros integrantes del Cuerpo de Secretarios Judiciales que tengan consolidada, al menos, la categoría segunda con un mínimo de 10 años de antigüedad, que ejercerá además las funciones de Secretario de la Sala de Gobierno del respectivo Tribunal.

2. El Secretario de Gobierno ostentará, como superior jerárquico, la dirección de los secretarios judiciales que prestan sus servicios en las oficinas judiciales dependientes de dichos Tribunales y en las Ciudades de Ceuta y Melilla. Para ello ejercerá las competencias que esta ley orgánica les reconoce, así como todas aquéllas que reglamentariamente se establezcan.

3. Será nombrado y removido libremente por el Ministerio de Justicia. Dicho nombramiento se realizará a propuesta del órgano competente de las comunidades autónomas cuando éstas tuvieren competencias asumidas en materia de Administración de Justicia, que también podrán proponer su cese.

En todo caso para su nombramiento se recabará informe de la Sala de Gobierno del Tribunal respectivo así como del Consejo del Secretariado. Para el de las Ciudades de Ceuta y Melilla el informe será emitido por la Sala de Gobierno del Tribunal Superior de Justicia de Andalucía.

Para el nombramiento del Secretario de Gobierno del Tribunal Supremo y el de la Audiencia Nacional se requerirá informe favorable de sus respectivas Salas de Gobierno.

2. Hauek dira organo nagusiak:

a) Gobernu-idazkaria.

b) Probintziako idazkari koordinatzailea.

3. Zerbitzu erkide prozesal batean idazkari judizial batek baino gehiagok dihardutenean, lanpostu-zerrendak zehaztuko du haien arteko mendekotasun hierarkiko eta funtzionala.

4. Idazkari Judizialen Kidegoaren parte-hartze demokratikorako tresna gisa, Idazkaritzaren Kontseilu bat eratuko da Justizia Ministerioaren barnean, kidego horri eragiten dioten gaitan kontsulta-funtzioak beteko dituen. Erregelamenduz ezarriko dira kontseilu horren antolaketa, funtzionamendua eta eskumenak.

464. artikulua

1. Gobernu-idazkari bat izango da Auzitegi Gorenean, Auzitegi Nazionalan eta justizia-auzitegi nagusi bakoitzean, eta orobat Ceuta eta Melillako hirietan, Idazkari Judizialen Kidegoa osatzen duten kideen artean hautatua, gutxienez bigarren kategoria finkatua eta 10 urteko antzinatasuna dutenen artean. Dagokion auzitegi gobernu-salako idazkari ere jardungo du gobernu-idazkariak.

2. Gobernu-idazkariak zuzenduko ditu, nagusi hierarkikoa den aldetik, auzitegi horien mendeko bulego judizialean eta Ceuta eta Melillako hirietan diharduten idazkari judizialak. Horretarako, lege organiko honek aitortzen dizkion eskumenak baliatuko ditu, eta orobat erregelamenduz ezartzen diren guztiak.

3. Justizia Ministerioak libreki izendatuko eta kenduko du gobernu-idazkaria. Autonomia-erkidegoko organo eskudunak egingo du hura izendatzeko proposamena, erkidegoak justizia-administrazio eskumenak bereganatuak dituenean, eta hura kargugabetzeko proposamena ere egin ahal izango du.

Edozein kasutan, gobernu-idazkaria izendatzeko, irizpena eskatuko zaie dagokion auzitegi gobernu Salari eta Idazkaritza Kontseiluari. Ceuta eta Melillako hirien kasuan, Andaluziako Justizia Auzitegi Nagusiko Gobernu Salak emango du irizpena.

Auzitegi Goreneko eta Auzitegi Nazionalako gobernu-idazkaria izendatzeko, aldeko irizpena eman beharko du bakoitzeko gobernu-salak.

4. En caso de ausencia, enfermedad, suspensión o vacante del Secretario de Gobierno del Tribunal Supremo o de la Audiencia Nacional así como de las Ciudades de Ceuta y Melilla, asumirá sus funciones el Secretario de mayor antigüedad escalafonal. En estos mismos supuestos y respecto al Secretario de Gobierno de los Tribunales Superiores de Justicia, asumirá sus funciones el Secretario Coordinador de la provincia en donde tenga su sede el respectivo tribunal o, en su defecto, el Secretario de mayor antigüedad escalafonal.

5. Los Secretarios de Gobierno que cesaren en su cargo quedarán adscritos al tribunal en que cesen hasta la consolidación de la plaza correspondiente, o a órgano de su categoría de la ciudad de procedencia, pudiendo optar con carácter preferente, durante los dos años siguientes, a cualquier plaza de su categoría de las que deban proveerse por concurso voluntario.

6. Las Administraciones públicas competentes, en sus respectivos territorios, dotarán a los Secretarios de Gobierno, de los medios materiales y recursos humanos necesarios para el ejercicio de las funciones que tienen atribuidas.

Artículo 465

Serán competencias de los Secretarios de Gobierno:

1. La inspección de los servicios que sean responsabilidad de los secretarios judiciales de su respectivo ámbito competencial, sin perjuicio de la que corresponda al Consejo General del Poder Judicial, a las Salas de Gobierno o, en su caso, al Presidente del Tribunal o de la Sala respectivos.

2. La incoación de expedientes disciplinarios por las posibles infracciones que los secretarios judiciales puedan cometer en el ejercicio de sus funciones, así como la imposición de la sanción de apercibimiento.

3. Proponer al Ministerio de Justicia el nombramiento de los secretarios judiciales de libre designación en su ámbito territorial, que hubiesen participado en la correspondiente convocatoria, así como su cese cuando éste proceda.

4. Control y seguimiento estadístico.

5. Dirección y organización de los secretarios judiciales que de él dependen, respetando y tutelando su independencia en el ejercicio de la fe pública.

6. Impartir instrucciones a los secretarios judiciales de su respectivo ámbito territorial, a solicitud de las comunidades autónomas con competencias asumidas, cuando sea precisa la colaboración de aquellos para garantizar la efectivi-

4. Gobernu-idazkariaren absentzia, gaixotasun, geldiera edo hutsaldia gertatzen den kasuan, eskalafoi-antzinatasun handiena duen idazkariak hartuko ditu bere gain gobernu-idazkariaren funtzioak Auzitegi Gorenean eta Auzitegi Nazionalean, eta orobat Ceuta eta Melillako hirietan. Justizia-auzitegi nagusietan, aipaturiko kasu beretan, auzitegiak egoitza duen probintziako idazkari koordinatzaileak hartuko du gobernu-idazkariaren funtzioa, edo, halakorik ezean, eskalafoi-antzinatasun handiena duen idazkariak.

5. Kargua utzitako gobernu-idazkariak kargua uztean zeuden auzitegiari atxikirik geldituko dira dagokien plaza finkatu arte, edo jatorriko hiriko kategoria bereko organo bati atxikirik, eta, hurrengo bi urteetan, lehentasunezko hautagai izan daitezke borondatezko lehiaketa bidez hornitu beharreko beren kategoriako edozein plazatarako.

6. Administrazio publiko eskudunek, bakoitzak bere lurraldean, esleitu zaizkien funtzioak betetzeko behar dituzten baliabide materialak eta giza baliabideak emango dizkiete gobernu-idazkariei.

465. artikulua

Eskumen hauek izango dituzte gobernu-idazkariek:

1. Beren eskumen-eremuko idazkari judizialen arduraren zerebitzuak ikuskatzea, hargatik eragotzi gabe Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari, gobernu-salei edo kasuan kasuko auzitegi edo salako presidenteari dagokien ikuskatze-lana.

2. Idazkari judizialei diziplina-espedienteak irekitzea beren funtzioetako jardunean arau-hausterik egiten badute, eta ohartarazpen-zehapena ezartzea.

3. Haien lurralde-eremuan izendapen libreko idazkari judizialak izendatzeko proposamena egitea Justizia Ministerioari, dagokion deialdian parte hartu dutenetatik betiere, eta orobat haiek kargugabetzeko proposamena egitea, hala dagokionean.

4. Kontrol eta jarraipen estatistikoa.

5. Mendean dituzten idazkari judizialen zuzendaritza eta antolaketa, idazkariok fede publikoa ematean duten independentzia errespetatuz eta babestuz.

6. Eskumenak berenganatuak dituzten autonomia-erkidegoen eskariz, beren lurralde-eremuko idazkari judizialei instrukzioak ematea, erkidegoek haien lankidetzara behar dutenean Justizia Administrazioaren zer-

dad de las funciones que tienen éstas en materia de medios personales y materiales al servicio de la Administración de Justicia.

7. Proponer al Ministerio de Justicia, o en su caso a la comunidad autónoma con competencias transferidas, las medidas que, a su juicio, deberían adoptarse para el mejor funcionamiento de la Administración de Justicia que fueren de su respectiva competencia, comunicando al Ministerio de Justicia cuantas incidencias afecten a los secretarios judiciales que de él dependan.

8. Cursar circulares e instrucciones de servicio a los secretarios judiciales de su territorio, así como velar por el correcto cumplimiento de las que, a su vez, dirija el Ministerio de Justicia, las cuales en ningún caso podrán suponer una intromisión en el desarrollo de la actividad procesal de jueces o magistrados, ni contradecir las decisiones adoptadas por la Sala de Gobierno en el ámbito de sus competencias. Tampoco podrán impartir instrucciones particulares relativas a asuntos concretos en los que un secretario judicial intervenga en calidad de fedatario o en el ejercicio de sus competencias de ordenación y dirección del proceso.

9. Concesión de permisos y licencias a los secretarios judiciales de su territorio.

10. Las demás previstas en el Reglamento Orgánico del Cuerpo de Secretarios Judiciales.

Artículo 466

1. En cada provincia existirá un Secretario Coordinador, nombrado por el Ministerio de Justicia por el procedimiento de libre designación, a propuesta del Secretario de Gobierno, de acuerdo con las comunidades autónomas con competencias asumidas, de entre todos aquellos que se presenten a la convocatoria pública.

Además, en la comunidad autónoma de Illes Balears habrá un Secretario Coordinador en las islas de Menorca e Ibiza, y en la Comunidad Autónoma de Canarias, otro en las islas de Lanzarote y de La Palma.

En las comunidades autónomas uniprovinciales, las funciones del Secretario Coordinador serán asumidas por el Secretario de Gobierno, salvo en aquellas que, por razón del servicio, sea aconsejable su existencia.

2. Los requisitos y procedimiento para su nombramiento se determinarán en el reglamento orgánico del Cuerpo de Secretarios Judiciales, si bien en todo caso deberá contar con al menos cinco años de antigüedad en la segunda categoría.

bitzuko giza baliabideen eta baliabide materialen arloko funtzioak egiazki betetzeko.

7. Justizia Ministerioari edo, hala badagokio, eskumenak eskualdatuak dituen autonomia-erkidegoari proposatzea zer neurri diren hartu beharrekoak, beren iritziz, Justizia Administrazioak erarik egokienean funtzionatzeko haien eskumeneko gaietan, eta Justizia Ministerioari jakinaraztea haien mendeko idazkari judizialei buruzko gorabehera oro.

8. Zirkularrak eta zerbitzu-instrukzioak igortzea haien lurraldeko idazkari judizialei, eta Justizia Ministerioak igorritakoak zuzen bete daitezela begiratzea. Justizia Ministerioarenak, ezein kasutan, ez dira epaile eta magistratuen jarduera prozesalean sartuko, ez eta gobernu-salak bere eskumenen barnean harturiko erabakien kontra joango ere. Ezin emango dute instrukzio partikularrik, orobat, idazkari judizial batek fede-emaile gisa edo prozesu-antolaketa eta -zuzendaritzarako eskumenak baliatuz parte hartzen duen gaii buruz.

9. Baimenak eta lizentziak ematea beren lurraldeko idazkari judizialei.

10. Idazkari Judizialen Kidegoaren Erregelamendu Organikoan aurreikusitako gainerakoak.

466. artikulua

1. Probintzia bakoitzean idazkari koordinatzaile bat izango da, deialdi publikora aurkeztu diren guztien artetik Justizia Ministerioak izendapen librez izendatua, gobernu-idazkariaren proposamenez eta eskumenak berenganatuak dituzten autonomia-erkidegoekin ados.

Horrez gain, Balear Uharteetako autonomia-erkidegoan idazkari koordinatzaile bat izango da Menorca eta Eivissa uharteetan; Kanariar Uharteetako autonomia-erkidegoan, berriz, beste bat Lanzarote eta La Palma uharteetan.

Probintzia bakarreko autonomia-erkidegoetan, gobernu-idazkariak beteko ditu idazkari koordinatzailearen funtzioak, non eta ez den komenigarritzat jotzen, zerbitzu-arrazoiak direla medio, idazkari koordinatzaile bat ere izatea.

2. Idazkari koordinatzailea izendatzeko betekizunak eta prozedura Idazkari Judizialen Kidegoaren erregelamendu organikoan zehaztuko dira; betiere, kasu guztietan, bost urteko antzinatasuna izan beharko du, gutxienez, bigarren kategorian.

3. En casos de ausencia, enfermedad, suspensión o vacante, será sustituido por el secretario judicial que designe el Secretario de Gobierno de entre los destinados en su provincia respectiva, que reúna los requisitos exigidos para su nombramiento.

4. Los secretarios coordinadores que cesaren en su cargo quedarán adscritos a la Oficina judicial en que cesen hasta la consolidación de la plaza correspondiente, o a órgano de su categoría de la ciudad de procedencia, pudiendo optar con carácter preferente, durante los dos años siguientes, a cualquier plaza de su categoría de las que deban proveerse por concurso voluntario.

Artículo 467

Bajo la dependencia directa del Secretario de Gobierno, el Secretario Coordinador ejercerá las siguientes competencias:

1. Dictar instrucciones de servicio a los secretarios judiciales de su ámbito territorial para el adecuado funcionamiento de los servicios que tienen encomendados.

2. Controlar la correcta ejecución de las circulares e instrucciones de servicio que dicte el Secretario de Gobierno del que dependa.

3. Dar cuenta de forma inmediata al Secretario de Gobierno de cuantos hechos sean relevantes al buen funcionamiento de la Administración de Justicia, así como de las necesidades de medios personales y materiales de las secretarías ubicadas en su territorio.

4. Colaborar con las comunidades autónomas con competencias asumidas, para la efectividad de las funciones que éstas ostenten en materia de medios personales y materiales.

5. Coordinar el funcionamiento de cuantos servicios comunes procesales se encuentren ubicados en su territorio, o en su caso, asumir directamente su dirección cuando exista un único servicio común procesal provincial.

6. Proponer al Ministerio de Justicia las comisiones de servicio de secretarios judiciales que, dentro de su territorio, sean precisas para el correcto funcionamiento de las oficinas judiciales.

7. Resolver las sustituciones de los secretarios judiciales de su ámbito valorando, en su caso, los requisitos a satisfacer por el sustituto en relación con el puesto que deba sustituir.

8. Las demás que establezcan las leyes y su propio reglamento orgánico.

3. Absentzia, gaixotasun, geldiera edo hutsaldien kasuan, gobernu-idazkariak hautatuko du idazkari koordinatzailearen ordezkoa, probintzia horretara destinaturik dauden eta izendapenerako betekizunak betetzen dituzten idazkari judizialen artean.

4. Kargugabetutako idazkari koordinatzaileak kargua uztean zeuden auzitegiari atxikirik geldituko dira dagokien plaza finkatu arte, edo jatorriko hiriko kategoria bereko organo bati atxikirik, eta, hurrengo bi urteetan, lehenasunezko hautagai izan daitezke borondatezko lehiaketa bidez hornitu beharreko beren kategoriako edozein plazatarako.

467. artikulua

Zuzenean gobernu-idazkariaren mende dela, eskumen hauek izango ditu idazkari koordinatzaileak:

1. Bere lurralde-eremuko idazkari judizialei zerbitzu-instrukzioak ematea, beren gain dituzten zerbitzuek egoki funtziona dezaten.

2. Gainetik duen gobernu-idazkariak emandako zirkularrak eta zerbitzu-instrukzioak zuzen bete daitezela kontrolatzea.

3. Justizia-administrazioaren funtzionamendu egokirako garrantzia duten gertaera guztien kontu ematea berehala gobernu-idazkariari, eta, orobat, beraren lurraldeko idazkaritzek giza baliabideen eta baliabide materialen arloan dituzten premien kontu ematea.

4. Eskumenak berenganatuak dituzten autonomia-erkidegoei laguntzea giza baliabideen eta baliabide materialen arloan dituzten funtzioak betetzen.

5. Bere lurraldeko zerbitzu erkide prozesal guztien funtzionamendua koordinatzea, edo, probintziako zerbitzu erkide prozesal bakarra dagoenean, hura zuzentzea.

6. Bere lurraldeko bulego judizialek egoki funtzionatzeko behar diren idazkari judizialen zerbitzu-eginkizunak proposatzea Justizia Ministerioari.

7. Bere eremuko idazkari judizialak nola ordeztu erabakitzea, postu bakoitzerako ordezkoari zer betekizun eskatu behar zaizkion balioetsiz, hala badagokio.

8. Legeek eta bere erregelamendu organikoak ezarritako gainerakoak.

CAPÍTULO IV

De la responsabilidad disciplinaria

Artículo 468

1. Hautagaitzen behin betiko aldarrikapenaren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jarri ahal izango da, argitaratu ondorengo bi egunen barruan.

2. Administrazioarekiko auzi-errekurtsioaz arduratzea Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salari dagokio, eta errekurtsioa jarri ondorengo hiru egunen epean ebatzi beharko ditu haiek.

Artículo 578

1. Transcurridos, en su caso, los plazos señalados en el artículo anterior, el Presidente del Tribunal Supremo y del Consejo General del Poder Judicial remitirá las candidaturas definitivamente admitidas a los Presidentes del Congreso y del Senado, a fin de que ambas Cámaras procedan a la designación de los Vocales del turno judicial conforme a lo previsto en el artículo 567 de la presente Ley Orgánica.

2. En la designación de los Vocales del turno judicial, las Cámaras tomarán en consideración el número existente en la carrera judicial, en el momento de proceder a la renovación del Consejo General del Poder Judicial, de Jueces y Magistrados no afiliados y de afiliados a cada una de las distintas Asociaciones judiciales.

3. La designación de los doce Vocales del Consejo General del Poder Judicial del turno judicial deberá respetar, como mínimo, la siguiente proporción: tres Magistrados del Tribunal Supremo; tres Magistrados con más de veinticinco años de antigüedad en la carrera judicial y seis Jueces o Magistrados sin sujeción a antigüedad. Si no existieren candidatos a Vocales dentro de alguna de las mencionadas categorías, la vacante acrecerá el cupo de la siguiente por el orden establecido en este precepto.

CAPÍTULO III

Estatuto de los Vocales del Consejo General del Poder Judicial

Artículo 579

1. Los Vocales del Consejo General del Poder Judicial, salvo los que integren la Comisión Permanente, permanecerán en servicio activo si pertenecen a la carrera judicial o a algún cuerpo de funcionarios, y seguirán desempeñando su actividad profesional si son abogados, procuradores de los Tribunales o ejercen cualquier otra profesión liberal.

2. Los Vocales que integren la Comisión Permanente, durante el tiempo que formen parte de la misma, desempeñarán su cargo con carácter exclusivo y pasarán, en su caso, a la situación administrativa de servicios especiales en su cuerpo de origen.

3. No podrá compatibilizarse el cargo de Vocal con dedicación exclusiva con el desempeño simultáneo de otras responsabilidades gubernativas en el

578. artikulua

1. Aurreko artikuluan adierazitako epeak iragandakoan, Auzitegi Goreneko eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko presidentek Kongresuko eta Senatuko presidenteei bidaliko dizkie behin betiko onartutako hautagaitzak, bi ganberek epaileen txandako bokalak izenda ditzaten lege organiko honen 567. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

2. Epaileen txandako bokalak izendatzean, ganberek kontuan hartuko dute Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko kideak berritzeko unean zenbat kide diren karrera judizialean, hala epaile-elkarteetan afiliatutakoen artean nola afiliatu gabeen artean.

3. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko epaileen txandako hamabi bokalak izendatzean, honako proportzio hau gorde beharko da, gutxienez: Auzitegi Goreneko hiru bokal; karrera judizialean hogeita bost urte baino gehiagoko antzintasuna duten hiru magistratu; eta sei epaile edo magistratu, antzintasuna kontuan hartu gabe. Bokal izateko hautagairik ez bada aipatutako kategorieta-koren batean, agindu honetan ezarritako ordenan hurrena den kategoriakoak gehituko dira.

III. KAPITULUA

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko bokalen estatutua

579. artikulua

1. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko bokalak, salbu Batzorde Iraunkorreko kide direnak, zerbitzu aktiboan izango dira karrera judizialean edo funtzionario-kidegoren batean baldin badaude, eta beren lanbide-jardueran jarraituko dute abokatuak edo auzitegietakako prokuradoreak badira edo beste edozein lanbide liberaletan badihardute.

2. Batzorde Iraunkorra osatzen duten bokalek, hartako kide diren bitartean, eskusibotasunez beteko dute beren kargua, eta zerbitzu berezietako egoerara igaroko dira, hala badagokio, jatorriko kidegoan.

3. Ez dira bateragarria arduraldi eskusiboko bokalaren kargua izatea eta eremu judizialean beste gobernu-ardura batzuetan jardutea. Batera gertatuz

ámbito judicial. En caso de concurrencia y mientras se ostente el cargo de Vocal con dedicación exclusiva, estas responsabilidades serán asumidas por quien deba sustituir al interesado según la legislación vigente.

4. Los Vocales tendrán la obligación de asistir, salvo causa justificada, a todas las sesiones del Pleno y de la Comisión de la que formen parte.

Artículo 580

1. El ejercicio de la función de Vocal del Consejo General del Poder Judicial será incompatible con cualquier otro cargo público, electivo o no electivo, con la sola excepción en su caso del servicio en el cuerpo a que pertenezcan.

2. Regirán para los Vocales del Consejo General del Poder Judicial las causas de abstención y recusación legalmente establecidas para las autoridades y personal al servicio de la Administración General del Estado. En todo caso, deberán abstenerse de conocer aquellos asuntos en los que pueda existir un interés directo o indirecto, o cuando su intervención en los mismos pudiera afectar a la imparcialidad objetiva en su actuación como Vocal.

3. Los Vocales del Consejo General del Poder Judicial no podrán invocar o hacer uso de su condición de tales en el ejercicio de su profesión.

4. Se considerará un incumplimiento muy grave de los deberes inherentes al cargo de Vocal el quebrantamiento de la prohibición impuesta en el apartado anterior, así como la utilización de su condición de tal para cualesquiera fines, públicos o privados, ajenos al adecuado ejercicio de las atribuciones del Consejo General del Poder Judicial. Si una situación de este tipo se produjere, el Pleno por mayoría de tres quintos podrá destituir al Vocal infractor.

Artículo 581

Los Vocales del Consejo General del Poder Judicial no estarán ligados por mandato imperativo.

Artículo 582

1. Los Vocales sólo cesarán en sus cargos por el transcurso de los cinco años para los que fueron nombrados, así como por renuncia aceptada por el Presidente del Tribunal Supremo y del Consejo General del Poder Judicial, o por incapacidad, incompatibilidad o incumplimiento grave de los deberes del cargo, apreciadas por el Pleno del Consejo General del Poder Judicial mediante mayoría de tres quintos.

gero, arduraldi eskusiboko bokalaren kargua izan bitartean, indarrean den legeriaren arabera interesduna ordeztu behar duenak hartuko ditu halako ardurak.

4. Bokalen betebeharra da Osoko Bilkuraren eta kide diren batzordearen saio guztietara joatea, ez joateko arrazoi justifikaturik izan ezean.

580. artikulua

1. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko bokalaren funtzioa betetzea bateraezina da beste edozein kargu publiko izatearekin, hauteskunde bidezkoa edo ez; salbuespen bakarra, hala badagokio, parte diren kidegoan zerbitzuak egitea.

2. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko bokalen abstentzioari eta errekusazioari dagozkion arauak Estatuaren Administrazio Orokorraren zerbitzuko enplegatuek eta agintariak dituzten berak dira. Betiere, abstenitu egin beharko dute gaien berek zuzeneko edo zeharkako interesa izan lezaketen auzietan, edo parte hartzeak eragina izan balezake bokal gisa inpartzialtasunez jardutean.

3. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko bokalek ezin izango dute izaera hori alegatu edo erabili beren lanbidean dihardutelarik.

4. Bokal-karguari datxezkion betebeharren ez-betetze larritzat joko da aurreko zenbakian ezarritako debekua urratzea, eta orobat bokal-izaera erabiltzea edozein xedetarako, izan publikoa edo pribatua, xede horrek ez badu zerikusirik Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren eskudantziak egoki baliatzearekin. Halako ez-betetze bat gertatzen bada, Osoko Bilkurak, hiru bostenen gehien-go, kargutik kendu ahal izango du araua hausten duen bokala.

581. artikulua

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko bokalak ez dira aginduzko manuz lotuak izango.

582. artikulua

1. Bokalak kargugabetzeko arrazoi bakarrak hauek dira: bost urte igarotzea izendatu zitzutenetik; edo karguari uko egin eta uko hori onartzea Auzitegi Goreneko eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko presidentek; edo ezintasun bat, bateraezintasun bat edo karguaren betebeharren ez-betetze larri bat gertatzea, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Osoko Bilkurak hiru bostenen gehien-goz balioetsia.

2. Los Vocales de origen judicial también cesarán cuando dejen de estar en servicio activo en la carrera judicial, salvo en el supuesto previsto en el artículo 579.2 de esta Ley Orgánica, así como cuando por jubilación u otra causa prevista en esta Ley Orgánica dejen de pertenecer a la carrera judicial.

Artículo 583

La responsabilidad civil y penal de los miembros del Consejo General del Poder Judicial se exigirá por los trámites establecidos para los Magistrados del Tribunal Supremo.

Artículo 584

Los Vocales del Consejo General del Poder Judicial no podrán ser promovidos mientras dure su mandato a la categoría de Magistrado del Tribunal Supremo o a Magistrado del Tribunal Constitucional, ni nombrados para cualquier cargo de la carrera judicial de libre designación o en cuya provisión concurra apreciación de méritos.

Artículo 584 bis

1. Los miembros del Consejo General del Poder Judicial que desempeñen su cargo con carácter exclusivo percibirán la retribución que se fije como única y exclusiva en atención a la importancia de su función en la Ley de Presupuestos Generales del Estado.

2. Los Vocales del Consejo General del Poder Judicial que no desempeñen su cargo con carácter exclusivo percibirán las dietas por asistencia al Pleno o a las Comisiones que establezca la Ley de Presupuestos Generales del Estado, sin tener derecho a ninguna otra clase de remuneración por el cargo de Vocal, salvo las indemnizaciones que por razón del servicio les puedan corresponder.

2. Epaileen txandako bokalak orobat kargugabetuko dira karrera judizialean zerbitzu aktiboan egoteari uzten badiote, salbu lege organiko honen 579.2 artikuluan aurreikusitako kasuan; kargua utziko dute, halaber, erretiroa hartzeagatik edo lege organiko honetan aurreikusitako kausetakoren batengatik karrera judizialeko izateari uzten diotenean.

583. artikulua

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko kideen erantzukizun zibila eta penala Auzitegi Goreneko magistratuentzat ezarritako izapideten bitartez galdatuko da.

584. artikulua

Beren agintaldiak irauten duen bitartean, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko bokalak ezin igoko dira Auzitegi Goreneko magistratuen edo Konstituzio Auzitegiko magistratuaren kategoriara, eta ezin izendatuko dira karrera judizialean izendapen librez betetzen den edo merezimendu-balioespena kontuan hartzen den ezein kargutarako.

584 bis artikulua

1. Kargua esklusibotasunez betetzen duten Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko kideen ordainsaria Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legean funtzioaren garrantziaren arabera bakar eta esklusibotzat finkatzen dena izango da.

2. Kargua esklusibotasunez betetzen ez duten Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko bokalek dietak jasoko dituzte, Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legean osoko bilkurara edo batzordeetara joateagatik ezartzen direnak, eta ez dute eskubiderik izango bokal karguagatik beste ezein ordain-klase jasotzeko, salbu zerbitzu-arrazoiengatik dagozkiekeen kalte-ordainak.

TÍTULO III

DEL PRESIDENTE DEL TRIBUNAL SUPREMO Y DEL CONSEJO GENERAL DEL PODER JUDICIAL, DEL VICEPRESIDENTE DEL TRIBUNAL SUPREMO Y DEL GABINETE DE PRESIDENCIA DEL TRIBUNAL SUPREMO Y DEL CONSEJO GENERAL DEL PODER JUDICIAL

CAPÍTULO I

Del Presidente del Tribunal Supremo y del Consejo General del Poder Judicial y del Vicepresidente del Tribunal Supremo

Artículo 585

El Presidente del Tribunal Supremo y del Consejo General del Poder Judicial es la primera autoridad judicial de la Nación y ostenta la representación del Poder Judicial y del órgano de gobierno del mismo, correspondiéndole el tratamiento y los honores inherentes a tal condición.

Artículo 586

1. Para ser elegido Presidente del Tribunal Supremo y del Consejo General del Poder Judicial, será necesario ser miembro de la carrera judicial con la categoría de Magistrado del Tribunal Supremo y reunir las condiciones exigidas para ser Presidente de Sala del mismo, o bien ser un jurista de reconocida competencia con más de veinticinco años de antigüedad en el ejercicio de su profesión.

2. En la sesión constitutiva del Consejo General del Poder Judicial, que será presidida por el Vocal de más edad, deberán presentarse y hacerse públicas las diferentes candidaturas, sin que cada Vocal pueda proponer más de un nombre.

3. La elección tendrá lugar en una sesión a celebrar entre tres y siete días más tarde, siendo elegido quien en votación nominal obtenga el apoyo de la mayoría de tres quintos de los miembros del Pleno; y, si en una primera votación ninguno de los candidatos resultare elegido, se procederá inmediatamente a una segunda votación exclusivamente entre los dos candidatos más votados en aquélla, resultando elegido quien obtenga mayor número de votos.

4. El Presidente del Tribunal Supremo será nombrado por el Rey mediante Real Decreto refrendado por el Presidente del Gobierno.

III. TITULUA

AUZITEGI GORENEKO PRESIDENTEA ETA BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIKO PRESIDENTEA; AUZITEGI GORENEKO, AUZITEGI GORENEKO PRESIDENTZIA KABINETEKO ETA BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIKO PRESIDENTEORDEA

I. KAPITULUA

Auzitegi Gorenko eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko presidentea eta Auzitegi Gorenko presidenteordea

585. artikulua

Auzitegi Gorenko eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko presidentea da nazioko lehenengo agintari judiziala, eta berak du Botere Judizialaren eta haren gobernu-organoren ordezkaritza. Izaera horri datzekion tratamendua eta ohoreak dagozkie.

586. artikulua

1. Auzitegi Gorenko eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko presidente hautatua izateko, beharrezko da karrera judizialeko kide izatea, Auzitegi Gorenko magistratuaren kategoriarekin, eta hartako sala-presidente izateko eskatzen diren baldintzak betetzea, edo gaitasun-sonaren jabe den legelaria izatea, lanbidean hogeita bost urte baino gehiagoko esperientzia duena.

2. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia eratzeko saioan, zeinean adin handieneko bokala izango baita buru, hautagaitzak aurkeztu eta publiko egin beharko dira, eta bokal bakoitzak ezin izango du izen bat baino gehiago eman.

3. Hautaketa egiteko saioa hirutik zazpita egun geroago beharko da, eta bozketa izendunean Osoko Bilkurako kideen hiru bosteneko gehiengoa lortzen duena izango da hautatua; lehenbiziko bozketan ez bada hautagaietako bat ere hautatzen, bigarren bozketa bat egingo da berehala lehenbizikoan bozkatuenak izan diren bi hautagaien artean, eta boto gehien eskuratzen duena hautatuko da.

4. Auzitegi Gorenko presidentea Erregeak izendatuko du, Gobernuko presidentek berretsitako errege-dekretu baten bidez.

5. El Presidente del Tribunal Supremo prestará juramento o promesa ante el Rey y tomará posesión de su cargo ante el Pleno de dicho Alto Tribunal.

Artículo 587

1. La duración del mandato del Presidente del Tribunal Supremo y del Consejo General del Poder Judicial coincidirá con la del Consejo que lo haya elegido.

2. El Presidente del Tribunal Supremo y del Consejo General del Poder Judicial podrá ser reelegido y nombrado, por una sola vez, para un nuevo mandato.

Artículo 588

1. El Presidente del Tribunal Supremo y del Consejo General del Poder Judicial cesará por las siguientes causas:

1) Por haber expirado el término de su mandato, que se entenderá agotado, en todo caso, en la misma fecha en que concluya el del Consejo por el que hubiere sido elegido.

2) Por renuncia.

3) Por decisión del Pleno del Consejo General del Poder Judicial, a causa de notoria incapacidad o incumplimiento grave de los deberes del cargo, apreciados por tres quintos de sus miembros.

2. Las causas segunda y tercera de este artículo se comunicarán al Gobierno por mediación del Ministro de Justicia. En tales casos se procederá a nuevo nombramiento de Presidente del Tribunal Supremo y del Consejo General del Poder Judicial.

Artículo 589

1. En el primer Pleno ordinario del Consejo General del Poder Judicial posterior a la elección del Presidente del Tribunal Supremo y del Consejo General del Poder Judicial, se deberá elegir al Vicepresidente del Tribunal Supremo.

2. El Vicepresidente del Tribunal Supremo será nombrado, por mayoría absoluta, por el Pleno del Consejo General del Poder Judicial, a propuesta del Presidente. Para figurar en la propuesta será preciso tener la categoría de Magistrado del Tribunal Supremo, estar en servicio activo y reunir los requisitos para ser Presidente de Sala del mismo.

5. Auzitegi Goreneko presidenteak Erregearen aurrean egingo du zin edo promesa, eta Auzitegi Gorenaren osoko bilkuraren aurrean jabetuko da karguaz.

587. artikulua

1. Auzitegi Goreneko eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko presidentearen agintaldia, iraupenari dagokionez, hautatu duen Kontseiluarena bera izango da.

2. Auzitegi Goreneko eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko presidentea berriz hautatu daiteke eta beste agintaldi baterako izendatu, behin bakarrik.

588. artikulua

1. Arrazoi hauengatik utzi beharko du kargua Auzitegi Goreneko eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko presidenteak:

1) Agintaldia amaitzeagatik. Hura hautatu zuen Kontseiluarena amaitzen den egun berean emango da amaitutzat agintaldia.

2) Uko egiteagatik.

3) Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Osoko Bilkuraren erabakiz, ezgaitasun nabariagatik edo karguko betebeharren ez-betetze larriagatik, kideen hiru bosten ados badaude.

2. Artikulu honetako bigarren eta hirugarren arrazoia Gobernuari jakinarazi behar zaizkio, Justiziako ministroaren bitartez. Kasu horietan, berriz izendatuko da Auzitegi Goreneko eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko presidentea.

589. artikulua

1. Auzitegi Goreneko eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko presidentea hautatu ondoren Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak egiten duen lehen osoko bilkura arruntean, Auzitegi Goreneko presidenteordea hautatu beharko da.

2. Auzitegi Goreneko presidenteordea gehiengo osoz izendatuko du Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Osoko Bilkurak, presidenteak proposatuta. Proposamenean agertzeko, Auzitegi Goreneko magistratuaren kategoria izan behar da, zerbitzu aktiboan egon eta Auzitegi Goreneko sala-presidente izateko betekizunak bete.

3. La propuesta realizada por el Presidente del Tribunal Supremo deberá comunicarse a los Vocales al menos con siete días de antelación, y se hará pública.

4. De no alcanzarse mayoría absoluta en la votación, el Presidente del Tribunal Supremo y del Consejo General del Poder Judicial deberá efectuar una nueva propuesta de Vicepresidente.

5. El Vicepresidente del Tribunal Supremo podrá ser cesado por el Pleno del Consejo General del Poder Judicial por causa justificada, con el voto favorable de tres quintos de los miembros del Pleno.

Artículo 590

El Vicepresidente ejercerá, en funciones, el cargo de Presidente del Tribunal Supremo y del Consejo General del Poder Judicial en los casos legalmente previstos de cese anticipado del Presidente y hasta el nombramiento de un nuevo Presidente.

Artículo 591

1. El Vicepresidente prestará al Presidente del Tribunal Supremo y del Consejo General del Poder Judicial la colaboración necesaria para el adecuado cumplimiento de sus funciones. A estos efectos, le sustituirá en los supuestos de vacante, ausencia, enfermedad u otro motivo legítimo.

2. El Vicepresidente del Tribunal Supremo podrá ejercer, por delegación del Presidente, la superior dirección del Gabinete Técnico de este Alto Tribunal, así como todas aquellas funciones que el Presidente le delegue expresamente mediando causa justificada.

Artículo 592

El Vicepresidente del Tribunal Supremo será miembro nato de la Sala de Gobierno de dicho Tribunal y le corresponderá proponer a ésta y al Presidente la adopción de aquellas decisiones orientadas a garantizar el correcto funcionamiento del Tribunal Supremo, así como velar por la exacta ejecución de los acuerdos adoptados por la Sala de Gobierno.

Artículo 593

1. El Presidente del Tribunal Supremo y del Consejo General del Poder Judicial, si procediere de la carrera judicial, quedará en la situación administrativa

3. Auzitegi Goreneko presidenteak egindako proposamena zazpi egun lehenago jakinarazi behar zaie bokalei, gutxienez, eta publiko egingo da.

4. Bozketan gehiengo osoa lortzen ez bada, Auzitegi Goreneko eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko presidenteak beste presidenteorde bat proposatu beharko du.

5. Auzitegi Goreneko presidenteordea kargutik kendu dezake Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Osoko Bilkurak, arrazoi justifikatu batengatik, osoko bilkuraren hiru bostenen aldeko botoarekin.

590. artikulua

Presidente agintaldia amaitu baino lehen kargugabetzeaz legez xedaturiko kasuetan, presidente berria izendatu bitarte, presidenteordeak beteko du Auzitegi Goreneko eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko presidentearen kargua, jarduneko gisa.

591. artikulua

1. Eginkizunak behar bezala betetzeko beharrezko duen laguntza guztia eman beharko dio Presidenteordeak Auzitegi Goreneko eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko presidenteari. Ondorio horietarako, hura ordeztuko du hutsaldi, absentzia, gaixotasun edo beste arrazoi bidezkoen bat gertatzen denean.

2. Auzitegi Goreneko presidenteordeak, presidenteak eskuordeturik, auzitegi horretako Kabinete Teknikoaren goi-zuzendaritza bete dezake, eta orobat presidenteak arrazoi justifikaturen batengatik berariaz eskuordetzen dizkion funtzio guztiak.

592. artikulua

Auzitegi Goreneko presidenteordea auzitegi horretako Gobernu Salako kide berezkoa izango da, eta berari dagokio salari eta hartako presidenteari proposatzea behar diren erabakiak har ditzan Auzitegi Gorenaren funtzionamendu egokia ziurtatzeko, eta orobat Gobernu Salaren erabakiak zehatz gauzatu daitezzen zaintzea.

593. artikulua

1. Auzitegi Goreneko eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko presidentea, karrera judizialetik badator, zerbitzu berezietan izango da administrazio-

de servicios especiales. De no pertenecer a la carrera judicial, su situación administrativa será, en su caso, la que corresponda a su cuerpo de procedencia.

2. El Vicepresidente del Tribunal Supremo, que permanecerá en la situación administrativa de servicio activo, ocupará el cargo durante cinco años, salvo en el supuesto previsto en el artículo 589.5 de esta Ley Orgánica.

3. La responsabilidad civil y penal del Presidente del Tribunal Supremo y del Consejo General del Poder Judicial y del Vicepresidente se exigirá por los trámites establecidos para los Magistrados de dicho Alto Tribunal.

CAPÍTULO II

Del Gabinete de la Presidencia del Tribunal Supremo y del Consejo General del Poder Judicial

Artículo 594

1. El Presidente del Tribunal Supremo y del Consejo General del Poder Judicial estará asistido por un Director de Gabinete de la Presidencia, nombrado y cesado libremente por él.

2. Sólo podrán desempeñar el cargo de Director de Gabinete de la Presidencia un Magistrado del Tribunal Supremo o aquellos miembros de la carrera judicial o juristas de reconocida competencia que reúnan los requisitos legalmente exigidos para poder acceder a la categoría de Magistrado del Tribunal Supremo.

3. El Director del Gabinete de la Presidencia auxiliará al Presidente en sus funciones, ejercerá aquellas otras que le encomiende el Presidente y dirigirá los Servicios de Secretaría de Presidencia, tanto del Tribunal Supremo como del Consejo General del Poder Judicial.

4. Mientras desempeñe el cargo, el Director del Gabinete de la Presidencia tendrá, a efectos representativos, la consideración de Magistrado del Tribunal Supremo.

5. El Reglamento de Organización y Funcionamiento del Consejo General del Poder Judicial determinará la estructura y funcionamiento del Gabinete de la Presidencia.

egoeraren aldetik. Ez bada karrera judizialekoa, jatorriko kidegoari dagokiona izango du administrazio-egoera, zer dagokion.

2. Auzitegi Goreneko presidenteordea zerbitzu aktiboko administrazio-egoeran izango da, eta bost urtez beteko du kargua, salbu lege organiko honen 589.5 artikuluan aurreikusitako kasuan.

3. Auzitegi Goreneko eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko presidentearen eta presidenteordearen erantzukizun zibila eta penala galdatzeko, Auzitegi Goreneko magistratuentzat ezarritako izapideei jarraituko zaie.

II. KAPITULUA

Auzitegi Goreneko eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Presidentetza Kabinetea

594. artikulua

1. Auzitegi Goreneko eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko presidentearak laguntzaile izango du Presidentetza Kabinetean, berak libreak izendatua eta kargugabetua.

2. Presidentetza Kabineteko zuzendariaren kargua betetzeko, ezinbestean, Auzitegi Goreneko magistratu izan beharra dago, edo Auzitegi Goreneko magistratuaren kategoriara iristeko legez eskatzen diren betekizunak betetzen dituen eta gaitasun-sonaren jabe den legegaria izan.

3. Presidentetza Kabinetearen zuzendariak laguntza emango dio presidenteari bere eginkizunetan, presidentearak esleitzen dizkion bestelako eginkizunak beteko ditu, eta Presidentetzako idazkaritza-zerbitzuak zuzenduko ditu, hala Auzitegi Gorenean nola Botere Judizialaren Kontseilu Nagusian.

4. Kargua betetzen duen bitartean, Presidentetza Kabineteko zuzendariak, ordezkaritza-ondorioetarako, Auzitegi Goreneko magistratuaren tratamendua izango du.

5. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren antolaketa- eta funtzionamendu-erregelamendua zehaztuko ditu Presidentetza Kabinetearen egitura, funtzioak eta eskumenak.

TÍTULO IV
DE LOS ÓRGANOS
DEL CONSEJO GENERAL DEL PODER JUDICIAL

Artículo 595

1. Además de las funciones encomendadas a la Presidencia, el Consejo General del Poder Judicial ejerce sus atribuciones en Pleno o a través de las Comisiones previstas en esta Ley Orgánica.

2. En el Consejo General del Poder Judicial existirán las siguientes Comisiones: Permanente, Disciplinaria, De Asuntos Económicos y De Igualdad.

Artículo 596

El Vicepresidente del Tribunal Supremo no ejercerá en el Consejo General del Poder Judicial otras funciones que las previstas expresamente en esta Ley.

CAPÍTULO I

La Presidencia

Artículo 597

La Presidencia del Tribunal Supremo y del Consejo General del Poder Judicial es una función inherente al cargo de Presidente del Tribunal Supremo.

Artículo 598

Corresponde a la Presidencia del Consejo General del Poder Judicial:

- 1) Ostentar la representación del Consejo General del Poder Judicial.
- 2) Convocar y presidir las sesiones del Pleno y de la Comisión Permanente, decidiendo los empates con voto de calidad.
- 3) Fijar el orden del día de las sesiones del Pleno y de la Comisión Permanente.
- 4) Proponer al Pleno y a la Comisión Permanente las cuestiones que estime oportunas en materia de la competencia de éstos.

IV. TITULUA
**BOTERE JUDIZIALAREN
KONTSEILU NAGUSIAREN ORGANOAK**

595. artikulua

1. Presidentetzak esleituriko eginkizunez gain, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak Osoko Bilkuran edo lege organiko honetan aurreikusitako batzordeen bitartez baliatzen ditu bere eskudantziak.

2. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusian batzorde hauek izango dira: Batzorde Iraunkorra, Diziplina Batzordea, Ekonomia Gaien Batzordea eta Berritasun Batzordea.

596. artikulua

Auzitegi Goreneko presidenteordeak ez du lege honetan aurreikusitakoak beste funtziorik beteko Botere Judizialaren Kontseilu Nagusian.

I. KAPITULUA

Presidentetza

597. artikulua

Auzitegi Goreneko eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko presidentetza Auzitegi Goreneko presidente-karguari datzekion funtzioa da.

598. artikulua

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko presidentetzari dagokio:

- 1) Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren ordezkari izatea.
- 2) Osoko Bilkuraren eta Batzorde Iraunkorraren bileretara deitzea eta haien buru egitea, berdinketak kalitate-botoz erabakitzen dituela.
- 3) Osoko Bilkuraren eta Batzorde Iraunkorraren bileren gai-ordena finkatzea.
- 4) Osoko Bilkurari eta Batzorde Iraunkorrari egoki deritzon gaiak proposatzea, haien eskumeneko direnetatik.

5) Proponer el nombramiento de ponencias para preparar la resolución o despacho de un asunto.

6) Autorizar con su firma los acuerdos del Pleno y de la Comisión Permanente.

7) Ejercer la superior dirección de las actividades de los órganos técnicos del Consejo General del Poder Judicial.

8) Dirigir la comunicación institucional.

9) Realizar la propuesta del Magistrado, de las Salas Segunda o Tercera del Tribunal Supremo, competente para conocer de la autorización de las actividades del Centro Nacional de Inteligencia que afecten a los derechos fundamentales reconocidos en el artículo 18.2 y 3 de la Constitución, así como del Magistrado de dichas Salas del Tribunal Supremo que le sustituya en caso de vacancia, ausencia o imposibilidad.

10) Nombrar y cesar al Director del Gabinete de la Presidencia y al Director de la Oficina de Comunicación, así como al personal eventual al servicio del Presidente.

11) Proponer al Pleno el nombramiento del Vicepresidente del Tribunal Supremo, del Secretario General y del Vicesecretario General, así como, en los dos últimos casos, acordar su cese.

12) Podrá encargar cometidos a vocales concretos o a grupos de trabajo siempre que este encargo no tenga carácter permanente ni indefinido.

13) Las demás previstas en la presente Ley Orgánica.

CAPÍTULO II

El Pleno

Artículo 599

1. El Pleno conocerá exclusivamente de las siguientes materias:

1) La propuesta de nombramiento, por mayoría de tres quintos, de los dos Magistrados del Tribunal Constitucional cuya designación corresponde al Consejo General del Poder Judicial.

2) La propuesta de nombramiento, en los términos previstos por esta Ley Orgánica, del Presidente del Tribunal Supremo y del Consejo General del Po-

5) Batzorde txostengileen izendapena proposatzea, gaien ebazpena edo azterketa prestatzeko.

6) Osoko Bilkuraren eta Batzorde Iraunkorraren erabakiak bere sinaduraz eskustea.

7) Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren organo teknikoen jardueraren goi-zuzendari izatea.

8) Komunikazio instituzionala zuzentzea.

9) Proposatzea zein magistratu izango den eskudun, Auzitegi Goreneko Arlo Penaleko Bigarren Salako edo Hirugarren Salako magistratuetatik, Inteligentzia Zentro Nazionalaren jarduerak baimentzeko —Konstituzioaren 18.2 eta 18.3 artikuluetan aitortutako oinarrizko eskubideei eragiten dietenak—, eta, orobat, hutsaldi, absentzia edo ezintasun kasuan zein magistratu izango duen ordezkio, Auzitegi Goreneko sala horietakoetatik.

10) Presidentetza Kabineteko zuzendaria eta Komunikazio Bulegoaren zuzendaria izendatzea eta kargutik kentzea, eta, halaber, presidentearen zerbitzuko aldi baterako enplegatuak izendatzea eta kentzea.

11) Osoko Bilkurari proposatzea Auzitegi Goreneko presidenteordearen, idazkari nagusiaren eta idazkariorde nagusiaren izendapena, eta, orobat, azken bi kasuetan, haiek kargutik kentzea erabakitzea.

12) Bokal jakin bati edo lan-talde bati zeregin konkrituak enkargatu ahal izango dizkio, ez bada enkargu iraunkor edo mugagabea.

13) Lege organiko honetan adierazitako gainerakoak.

II. KAPITULUA

Osoko Bilkura

599. artikulua

1. Osoko Bilkura modu eskusiboan arduratuko da gai hauetaz:

1) Konstituzio Auzitegiko magistratu izateko Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari proposatzea dagokion bi kideak izendatzeko proposamena egitea, hiru bostenen gehiengoz.

2) Auzitegi Goreneko eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko presidentea izendatzeko proposamena egitea, lege organiko honetan aurreikusitako

der Judicial, así como la emisión del informe previo sobre el nombramiento del Fiscal General del Estado.

3) El nombramiento, en los términos previstos por esta Ley Orgánica, del Vicepresidente del Tribunal Supremo, del Secretario General y del Vicesecretario General del Consejo General del Poder Judicial.

4) Todos los nombramientos o propuestas de nombramientos y promociones que impliquen algún margen de discrecionalidad o apreciación de méritos.

5) La interposición del conflicto de atribuciones entre órganos constitucionales del Estado.

6) La designación de los Vocales componentes de las diferentes Comisiones.

7) El ejercicio de la potestad reglamentaria en los términos previstos en esta Ley.

8) La aprobación del Presupuesto del Consejo General del Poder Judicial y la recepción de la rendición de cuentas de su ejecución.

9) La aprobación de la Memoria anual.

10) La resolución de aquellos expedientes disciplinarios en los que la propuesta de sanción consista en la separación de la carrera judicial.

11) La resolución de los recursos de alzada interpuestos contra los acuerdos sancionadores de la Comisión Disciplinaria.

12) La aprobación de los informes sobre los anteproyectos de ley o de disposiciones generales que se sometan a su dictamen por el Gobierno o las Cámaras legislativas.

Artículo 600

1. El Pleno se reunirá en sesión ordinaria, a convocatoria del Presidente, una vez al mes.

2. Deberá celebrarse sesión extraordinaria si lo considerare oportuno el Presidente o si lo solicitaren cinco Vocales, para el ejercicio de alguna de las competencias referidas en el artículo anterior. De igual forma, deberá celebrarse sesión extraordinaria si así fuese necesario para dar cumplimiento en plazo a alguna de las competencias atribuidas al Pleno.

tako moduan, eta Estatuaren Fiskal Nagusia izendatzeko aurreitazko txostena egitea.

3) Auzitegi Goreneko presidenteordearen eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko idazkari nagusiaren eta idazkariorde nagusiaren izendapena proposatzea, lege organiko honetan aurreikusitako moduan.

4) Hein bateko irizpidezketasuna eta merezimendu-balioespena eskatzen duten izendapen eta sustapenentarako izendapen edo proposamen guztiak egitea.

5) Estatuko konstituzio-organoen arteko eskudantzia-gatazka aurkeztea.

6) Batzordeak osatuko dituzten bokalak izendatzea.

7) Erregelamendu-ahala baliatzea, lege honetan aurreikusitakoaren arabera.

8) Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren aurrekontua onartzea eta haren gauzatzearen kontu-ematea jasotzea.

9) Urteko memoria onestea.

10) Diziplina-zehapenak ebatzea, haietan proposatzen den zehapena karrera judizialek botatzea den kasuetan.

11) Diziplina Batzordearen zehapen-erabakien aurka jarritako gora jotzeko errekurtsuak ebatzea.

12) Gobernuak edo legegintza-ganberek irizpena emateko aurkezten dizkioten lege-aurreproiektuei edo xedapen orokorrei buruzko txostenak onestea.

600. artikulua

1. Osoko Bilkura hilean behin bilduko da saio arruntan, presidentek deia eginda.

2. Ezohiko bilkura egin beharko da presidentek egoki irizten dionean edo bost bokalek eskatzen dutenean, aurreko artikuluan adierazitako eskumenetakoren bat baliatzeko. Orobat egin beharko da ezohiko saioa beharrezkoa baldin bada Osoko Bilkurak esleituak dituen eskumenetakoren bat betetzeko.

3. En la sesión en la que se tenga que proceder a la elección del Presidente del Tribunal Supremo y del Consejo General del Poder Judicial será necesaria, para la válida constitución del Pleno, al menos la presencia de doce de sus miembros.

4. En los demás casos, para la válida constitución del Pleno será siempre necesaria, como mínimo, la presencia de diez Vocales y el Presidente.

CAPÍTULO III

La Comisión Permanente

Artículo 601

1. El Pleno del Consejo General del Poder Judicial elegirá anualmente a los Vocales integrantes de la Comisión Permanente.

2. La Comisión Permanente estará compuesta por el Presidente del Tribunal Supremo y del Consejo General del Poder Judicial, que la presidirá, y otros cinco Vocales: tres de los nombrados por el turno judicial y dos de los designados por el turno de juristas de reconocida competencia. Con excepción de los miembros de la Comisión Disciplinaria, se procurará la rotación anual del resto de los Vocales en la composición anual de la Comisión Permanente.

3. El Consejo General del Poder Judicial determinará, en el Reglamento de Organización y Funcionamiento, los casos y la forma en que, por razones de transitoria imposibilidad o ausencia justificada a las sesiones de la Comisión Permanente, deba procederse a la sustitución de los Vocales titulares por otros Vocales, a fin de garantizar la correcta composición y el adecuado funcionamiento de dicha Comisión.

Artículo 602

1. A la Comisión Permanente compete el ejercicio de todas las atribuciones del Consejo General del Poder Judicial que no estén expresamente reservadas a la Presidencia, al Pleno, a la Comisión Disciplinaria, a la Comisión de Igualdad o a la Comisión de Asuntos Económicos por la presente Ley Orgánica.

2. Sin perjuicio de lo dispuesto en el apartado anterior, el Reglamento de Organización y Funcionamiento del Consejo General del Poder Judicial podrá atribuir competencias a los Jefes de los Servicios para supuestos que, sin estar

3. Auzitegi Goreneko eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko presidentea hautatu behar den saioan, kideetatik hamabik egon beharko dute, gutxienez, Osoko Bilkura baliozko moduan eratua izateko.

4. Gainerako kasuetan, gutxienez hamar bokalek eta presidentek egon beharko dute Osoko Bilkura baliozko moduan eratua izateko.

III. KAPITULUA

Batzorde Iraunkorra

601. artikulua

1. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Osoko Bilkurak urtero hautatuko ditu Batzorde Iraunkorra osatuko duten bokalak.

2. Batzorde Iraunkorra hauek osatuko dute: Auzitegi Goreneko eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko presidentea, bera dela buru, eta bost bokal, haietako hiru epaileen txandan izendatuak eta beste biak gaitasun-sonaren jabe diren legelarien txandan izendatuak. Diziplina Batzordeko kide direnak izan ezik, bokalak txandakatu egingo dira, ahal dela, urtez urte Batzorde Iraunkorra osatzean.

3. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak zehaztuko du, Antolamendu eta Funtzionamendu Erregelamenduan, zer kasutan eta modutan, Batzorde Iraunkorraren saioetara aldi batez ezin joana edo absentzia justifikatua izateagatik, bokal titularren ordezkari beste bokal batzuk izendatu beharko diren, batzorde hori egoki eratua izango dela eta behar bezala jardungo duela bermatzeko.

602. artikulua

1. Batzorde Iraunkorrek du eskumena Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren eskudantziak baliatzeko lege organiko honen bitartez berriaz hauei erreserbatu ez zaizkion kasu guztietan: presidentetza, Osoko Bilkura, Diziplina Batzordea, Berdintasun Batzordea eta Ekonomia Gaien Batzordea.

2. Aurreko zenbakian xedaturikoaren kalterik gabe, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Antolaketa eta Funtzionamendu Erregelamenduak esku izango du zerbitziburuei eskumenak esleitzeko zenbait kasutan, ez badaude

reservados al Pleno, no supongan ejercicio de potestades discrecionales. En este caso, cabrá recurso de alzada ante la Comisión Permanente contra las resoluciones de los Jefes de los Servicios.

3. En todo caso, la Comisión Permanente preparará las sesiones del Pleno y velará por la exacta ejecución de sus acuerdos.

CAPÍTULO IV

La Comisión Disciplinaria y el Promotor de la Acción Disciplinaria

Artículo 603

1. El Pleno elegirá a los Vocales integrantes de la Comisión Disciplinaria, cuyo mandato, salvo las sustituciones que procedan, será de cinco años.

2. La Comisión Disciplinaria estará compuesta por siete Vocales: cuatro del turno judicial y tres del turno de juristas de reconocida competencia.

3. La Comisión Disciplinaria deberá actuar con la asistencia de todos sus componentes y bajo la presidencia del Vocal de origen judicial con mayor categoría y antigüedad.

4. En caso de transitoria imposibilidad o ausencia justificada de alguno de sus componentes, la Comisión Permanente procederá a su sustitución por otro Vocal de idéntica procedencia.

Artículo 604

1. A la Comisión Disciplinaria compete resolver los expedientes disciplinarios incoados por infracciones graves y muy graves e imponer, en su caso, las sanciones que correspondan a Jueces y Magistrados, con la sola excepción de aquellos supuestos en que la sanción propuesta fuere de separación del servicio.

2. Los acuerdos sancionadores de la Comisión Disciplinaria a los que se refiere el número anterior serán recurribles, en el plazo de un mes, en alzada ante el Pleno.

3. La Comisión Disciplinaria conocerá igualmente de los recursos de alzada interpuestos contra las resoluciones sancionadoras de los órganos de gobierno interno de los Tribunales.

Osoko Bilkurarentzat erreserbatuik eta ez badute eskatzen irizpidezkotasun-ahalak baliatzerik. Kasu horretan, gora jotzeko errekurtsua jarri ahal izango da zerbitziburuen erabakien kontra Batzorde Iraunkorraren aurrean.

3. Betiere, Batzorde Iraunkorrek prestatuko ditu Osoko Bilkuraren saioak eta begiratuko du zehatz bete daitezela haren erabakiak.

IV. KAPITULUA

Diziplina Batzordea eta Diziplina Ekintzaren Sustatzailea

603. artikulua

1. Osoko Bilkurak hautatuko ditu Diziplina Batzordea osatuko duten bokatalk, eta hautatuaren agintaldia bost urtekoa izango da, dagozkion ordezkien alde batera utzita.

2. Diziplina Batzordea zazpi bokalek osatuko dute: epaileen txandako lau, eta gaitasun-sonaren jabe diren legelarien txandako hiru.

3. Diziplina Batzordeak kide guztiak bertan direla jardun beharko du, epaileen txandakoetatik kategoria eta antzinasun handiena duen bokala dela buru.

4. Kideetako baten aldi baterako ezintasuna edo absentzia justifikatua gertatzen den kasuan, beste bokal bat izendatuko du Batzorde Iraunkorrek haren orde, jatorri berekoa.

604. artikulua

1. Diziplina Batzordeari dagokio arau-hauste larri edo oso larrien ondorioz irekitako diziplina-espeditentak ebaztea, eta, hala badagokio, epaile eta magistratuei behar diren zehapenak ezartzea, salbuespen bakar batekin: zehapentzat zerbitzutik kentzea proposatzen den kasuak.

2. Aurreko zenbakian aipatutako Diziplina Batzordearen zehapen-erabakien aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkeztu daiteke, hilabeteko epean, Osoko Bilkuraren aurrean.

3. Diziplina Batzordea arduratuko da orobat auzitegien barne-gobernuko organoen zehapen-ebazpenen aurka jarritako gora jotzeko errekurtsuez.

Artículo 605

La recepción de quejas sobre el funcionamiento de los órganos judiciales, la recepción de denuncias, así como la iniciación e instrucción de expedientes disciplinarios y la presentación de los cargos ante la Comisión Disciplinaria corresponden al Promotor de la Acción Disciplinaria.

Artículo 606

1. El Promotor de la Acción Disciplinaria será nombrado por el Pleno y su mandato coincidirá con el del Consejo que lo nombró.

2. Vacante la plaza, el Consejo General del Poder Judicial hará una convocatoria para su provisión entre Magistrados del Tribunal Supremo y Magistrados con más de veinticinco años de antigüedad en la carrera judicial.

3. En primera votación será elegido quien obtenga la mayoría absoluta; y, si nadie la obtuviere, se procederá a una segunda votación resultando elegido aquel que lograre mayor número de votos.

4. El Promotor de la Acción Disciplinaria permanecerá en servicios especiales en la carrera judicial y ejercerá exclusivamente las funciones inherentes a su cargo.

5. El Promotor de la Acción Disciplinaria sólo podrá ser cesado por incapacidad o incumplimiento grave de sus deberes, apreciados por el Pleno mediante mayoría absoluta.

6. Cuando por circunstancias excepcionales, físicas o legales, el Promotor de la Acción Disciplinaria se viese imposibilitado transitoriamente para ejercer sus funciones, la Comisión Permanente proveerá, únicamente por el tiempo que dure dicha imposibilidad, a su sustitución nombrando a un Magistrado que reúna los mismos requisitos exigidos al Promotor para su designación.

7. Mientras desempeñe el cargo, el Promotor de la Acción Disciplinaria tendrá, en todo caso, la consideración honorífica de Magistrado del Tribunal Supremo.

Artículo 607

1. El Promotor de la Acción Disciplinaria estará asistido por el número de Letrados del Consejo General del Poder Judicial que establezca el Reglamento de Organización y Funcionamiento del mismo.

605. artikulua

Diziplina Ekintzaren Sustatzaileari dagokio organo judizialen funtzionamenduari buruzko kexak jasotzea, salaketak jasotzea, diziplina-espeditentak irekitzea eta instruitzea eta karguak Diziplina Batzordean aurkeztea.

606. artikulua

1. Diziplina Ekintzaren Sustatzailea Osoko Bilkuraren proposamenez izendatuko da, eta izendatu zuen Kontseiluaren agintaldiarekin batera amaituko da harena.

2. Plaza hutsik dagoelarik, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak deialdi bat egingo du hura hornitzeko, Auzitegi Goreneko magistratuen artean eta karrera judizialean hogeita bost urte baino gehiagoko antzintasuna duten magistratuen artean.

3. Lehen bozketan, gehiengo osoa lortzen duena hautatuko da; inork ez badu lortzen gehiengo osoa, bigarren bozketa bat egingo da, eta hartan boto gehien lortzen duena hautatuko.

4. Diziplina Ekintzaren Sustatzailea zerbitzu berezietako egoeran egongo da karrera judizialean, eta karguari datxekion funtzioak soil-soilik beteko ditu.

5. Diziplina Ekintzaren Sustatzailea ez da kargugabetuko ez bada ezintasunagatik edo betebeharren ez-betetze larriagatik; Osoko Bilkurak balioetsi behar ditu egitate horiek, gehiengo osoz.

6. Salbuespenezko inguruabarren bat gertatu delako, fisikoa edo legezkoa, Diziplina Ekintzaren sustatzailea ezindurik gertatzen bada bere funtzioak betetzeko, Batzorde Iraunkorrak, ezintasun horrek irauten duen denbora doirako, ordezko bat izendatuko du, sustatzaileari eskatu zaizkion gutxieneko betekizunak betetzen dituzten magistratuen artean.

7. Karguan diharduen bitartean, Diziplina Ekintzaren sustatzaileak, betiere, Auzitegi Goreneko magistratuaren ohorezko tratamendua izango du.

607. artikulua

1. Diziplina Ekintzaren sustatzaileak laguntzaile izango ditu Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko zenbait legelari; haren Antolaketa eta Funtzionamendu Erregelamenduak ezartzen dituen bezainbeste.

2. Los Letrados del Consejo General del Poder Judicial bajo las órdenes del Promotor de la Acción Disciplinaria no podrán ejercer ninguna otra función y sólo estarán sometidos a la Secretaría General en cuestiones estrictamente atinentes a su relación de servicio.

3. Corresponde al Promotor de la Acción Disciplinaria la instrucción de los expedientes disciplinarios. Excepcionalmente, el Promotor podrá delegar de forma expresa y motivada la realización de determinados actos de instrucción de un expediente disciplinario en alguno de los Letrados del Consejo que le asisten y que pertenezcan a la carrera judicial.

4. Los Jueces y Magistrados están obligados a colaborar con el Promotor de la Acción Disciplinaria. El Promotor podrá requerir la presencia del Juez o Magistrado expedientado, por conducto del Presidente del correspondiente Tribunal, quien deberá emitir informe en el que se acredite la cobertura del servicio, a fin de que el Consejo General del Poder Judicial pueda otorgar al Juez o Magistrado comisión de servicios para realizar el desplazamiento requerido.

Artículo 608

1. Frente a la decisión del Promotor de la Acción Disciplinaria de no iniciar expediente disciplinario o de archivar uno ya iniciado se podrá interponer recurso ante la Comisión Permanente.

2. Si la Comisión Permanente estimare el recurso, se iniciará o continuará el expediente disciplinario de que se trate.

3. La Comisión Permanente también podrá, de oficio, ordenar al Promotor de la Acción Disciplinaria la iniciación o continuación de un expediente disciplinario.

CAPÍTULO V

La Comisión de Asuntos Económicos

Artículo 609

